



Euskeraren Erri Akademia / Academia Popular de la Lengua Väsca  
L'Academie Populaire de la Langue Basque

# Euskerazaintza

LXXXII Zenbakia • 2018. urtea-2

**Euskalerriaren  
edestia X**

## Gure irakurleari:

Azken zenbakian gure aldizkari au artzen dutenentzat eta adizkideentzat jarritako oar bat agertu zan, arpidendunai diru-laguntza eskatuz.

Batzuk arpidetza zenbat dan jakin nai dute eta gure erantzuna au da: “Len”, oraingoz ez degu arpidesaria zeaztuteko asmorik, al degun artean naiago dogu irakurleen gogo ona kontuan artu eta emaitza ematen digutenak “laguntzaille” taldera sartuko ditugula esaten da gendun.

**Gaur, diru kontuetan estutasunean sartuta gagoz, eta al dauanak gura geunke “urtero” 30 euro ordaintzea, bealdean aipatzen dogun gure kontuen zenbakietan.**

## Gure kontuen zenbakiak onek dira:

BBVA: ES41-0182-1296-00-0201538669

KUTXA: ES80-2101-0200-46-0006681589

## EUSKERAZAINTZA

Euskeraren Erri-Akademia

Colón de Larreategi 14, 2<sup>a</sup> eskuma

48001 - BILBAO

e-mail: [aeuskerazaintza@gmail.com](mailto:aeuskerazaintza@gmail.com)

[www.euskerazaintza.org](http://www.euskerazaintza.org)

Z. N. A. / C. I. F. G 20/127. 759

Eusko Jaurlaritzaren Elkartea Erroldan, 1136 zenbakia.

Erri Zuduzkotasunaren Aldarrikapena  
(BOE 45/1981 eta EE. AA. 96/1984)

I.S.B.N. : 1132- 1318

Legerako Gordetza: BI-1928-87

Diseinua eta inprimaketa: IBEGRAFIK  
[www.ibegrafik.com](http://www.ibegrafik.com)

Laguntzaille

 **Bizkaia**

foru aldundia  
diputación foral

## Euskalerraren Edestia

<i>Oar txiki bat emen:</i> .....	7
1. 2. <i>Sarreraren aurkezpena.</i> .....	7
1. 3. <i>VIII In Atalerarte eta beren sarreratik asita, argi ikusten dogu:</i> .....	7
4. <i>Bai, Europako mendebal onetan, Erromatar eritzizko Godo oneik, katolikotasunezko erlijioa, ezartzeko alegiñean zer egin eben:</i> .....	8
1. 5. <i>IX In ataleko sarreran ikusi gendun:</i> .....	9
1. 6. <i>IX In Atalean gero:</i> .....	11
1. 7. <i>Frantziko iraultzan, Leenengo Errepublikoa.</i> .....	11
1. 8. <i>II In Isabel espainitar erregiñaren aurkezpenean:</i> .....	13
9. <i>1.823ko urtetik aurrera, espainitar Laterriak zelan dauka “Estado Español” en izena”, aberria izan balitz bezela:</i> .....	15
1. 10. <i>1.830eko urtetik, 1.833-1.839ko urte bitartean, Leenengo karlistadaren gertakizunak ikusteko.</i> .....	15
2. - <i>Aurkezpen oneik ikusi ondoren, X In atal onen Euskalerriko edestien kondaira onetan: Bigarren ZATIA:</i> .....	21
2. 1. <i>II In Isabelen erregetza:</i> .....	21
2. 2. <i>1.840-1.844ko urte bitartean, Euskalerriak “Bakearen orde”, menpeko legeekin ordaindu bear ebazanak.</i> .....	23
2. 3. <i>Lau urte onein ondorioa.</i> .....	25
2. 4. <i>Espainitarren edestiko liburuetatik artutakoa:</i> .....	26
2. 5. <i>Liburuaren XXIV-XXV eko txataletatik asita:</i> .....	27
2. 6. <i>Denbora orreitan espainitarrek: “aberi lez egiztatu egiten dabe euren espainitar katolikotasuna”:</i> .....	27
2. 7. <i>Iru azalpen edo adierazpen onei erantzuna emoteko, len jakin bear doguna:</i> .....	28
2. 8. <i>Lenengo azalpenari erantzunda:</i> .....	29
2. 9. <i>Bigarren azalpenari erantzunda:</i> .....	29
2. 10. <i>Iru garren azalpenari erantzunda:</i> .....	30
2. 11. <i>Toledoko kaisartzza edo Toledoren kaiserkeria.</i> .....	30
2. 12. <i>Euskalerriko edestiaren aria oster berrezkuratzuz, 1.844-1.860ko urte bitartean, edestilariak esaten daben II In guda karlista asi ta amaitu zala.</i> .....	31
2. 13. (2). - <i>1.862ko urtean Dagonillaren 25ean jaio zan Arana ta Goiritar Koldobika, Arana ta Goiri tar Sabinoren baiño iru urte zarragoa izan zana, eta abertzaletasunaren arloan Sabinori begiak zabaldu entsoezanak:</i> .....	38
2. 14. (3). - <i>Arana eta Goiri tar Sabino ren jaiotza:</i> .....	38
2. 15. <i>1.841eko urtetik 1.875eko urte bitartekoak aipatu bear doguz, Karlista alderdiaren era berritze edo antola barria lez.</i> .....	39
2. 16. - <i>II In Isabelen erbezeratzza.</i> .....	40

2. 17. <i>Karlista alderdiaren era berritze edo antola barriari ostera ebatuta.</i> .....	40
2. 18. <i>Oarpena:</i> .....	43
2. 19. <i>Ostera, karlisten 1.841-1.875eko urteen arteko berriztearen aria berreskuratuta:</i> .....	43
2. 20. <i>Saboyatar I Amadeo Aostako dukearen bizi kondaira laburra.</i> ....	48
2. 21. <i>I Amadeo´ren erregetzak euki eban aurkaritza.</i> .....	48
2. 22. <i>Saboyako I Amadeo dukeak, emon ebazan lenengo pausoak espainitar erregetzan ezartzeko.</i> .....	48
2. 23 (3) <i>1.871ko urte onetan, Arana ta Ansotegitar Santiago, Arana ta Goiritar Sabinoren aitak, beren itsas ontziko lantegia zaintzen eban yagole etxean, Uribarritar Franzizko karlistaren guda nagusia euki eban ostonduta, guda azten zanerako bere guda taldeakaz arduratu zedin.</i> .....	50
24. <i>I Amadeoren aria ostera artuta.</i> .....	51
2. 25. <i>Erregeak, ertzerakoiezkoakin euki eban estutasuna.</i> .....	52
26. (4) <i>Sabinoren leen ikasketak.</i> .....	53
2. 27. <i>Ostera edestiaren ariari ebatuta:</i> .....	53
2. 28. <i>VII In Karlos erregenai onen bizi kondaira.</i> .....	54
2. 29. <i>1.872ko matxintasuna.</i> .....	55
2. 30. (5) <i>Sabino´ren bizitza artuta.</i> .....	56
2. 31. <i>1.872ko matxintasunaren aria ostera berreskuratuz.</i> .....	56
2. 32. <i>Dorronsorotar Migelen bizi kondaira laburra:</i> .....	58
2. 33. <i>Santa Kurtz apaizaren bizi kondaira:</i> .....	58
2. 34. (6) <i>Arana ta Goiri´tar Sabino:</i> .....	60
2. 35. <i>Ostera, Santa Kurtz apaizaren aria artuta:</i> .....	60
2. 36. (7). <i>Arana ta Goiri´tar Sabino´ren bizitzari ostera oratuta.</i> .....	62
2. 37. <i>Santa Kurtz´en aria ostera artuz:</i> .....	63
2. 38. <i>Lizarraga ta Eskiroz´tar Antonioren bizi kondaira.</i> .....	64
2. 39. <i>Dorregarai eta Domingeara Antonioren bizi kondaira laburra:</i> .....	66
2. 40. <i>Euskalerriko edesti onetan, karlistaren guda ostera artuz.</i> .....	67
2. 41. (8) <i>Sabino´ren Aita Santiago.</i> .....	68
2. 42. <i>Ondorio labur bat.</i> .....	69
2. 43. <i>Karlisten gudako aria ostera berreskuratuta.</i> .....	71
2. 44. (9). <i>Arana ta Goiri´tar Sabin´en aita Arana´tar Santiago.</i> .....	72
2. 45. <i>Karlisten gudako aria ostera berreskuratuz.</i> .....	72
2. 46. <i>Ondorengo oarkizun txiki bat.</i> .....	73
2. 47. <i>Karlisten gudako aria ostera berreskuratuz.</i> .....	74

2. 48. Oarpen txiker bat egin bear dogu emen, egoera au ulertu degun: .....	74
2. 49. Karlisten gudako aria ostera berreskuratuz.....	75
2. 50. Karlistaren arteko gertaera oneik:.....	76
2. 51. Karlisten gudako aria ostera bereskuratuz. ....	76
2. 52. (10) Arana eta Goiri'tar Sabin. ....	76
2. 53. Karlisten guda ostera berreskuratuz.....	77
2. 54. (11). Arana-Goiri Sendia. ....	79
2. 55. Karlisten guda ostera berreskuratuz.....	79
2. 56. Ondorengo oarpen labur bat.....	80
2. 57. Karlisten guda ostera berreskuratuz. ....	80
2. 58. 1.874ko urtean agertutako aldizkariak: .....	81
2. 59. Karlisten guda ostera berreskuratuz.....	81
2. 60. Gogora ekarteko oar txiki bat. ....	81
2. 61. Karlisten guda berreskuratuz.....	82
2. 62. 1.874ko zati onen oarpena. ....	85
2. 63. Karlisten guda ostera berreskuratuz.....	86
2. 64. (12) Arana'tar Santiago, Sabino'ren aita. ....	86
2. 65. Karlisten guda, ostera berreskuratuz.....	86
2. 66. Karlisten gudak, Kataluñako ekitaldietan.....	88
2. 67. Karlisten gudak, Euskalerriko ekitaldietan.....	89
2. 68. (13) Merindadearen arduradunak. ....	90
2. 69. Karlisten Euskalerriko ekitaldiak berreskuratuta. ....	90
2. 70. Karlistek euki ebezan indarrak denbora onetan, olan zenbatu leikez.....	91
2. 71. Gudarako tresneri lantegiak:.....	91
2. 72. Gudarien ikasketarako: .....	92
2. 73. Onen oarpen laburra.....	92
2. 74. Karlisten guda ostera berreskuratuz.....	93
2. 75. Onen oar laburra.....	93
2. 76. Karlisten guda ostera berreskuratuz.....	93
2. 77. Oarkuntza. ....	95
2. 78. Karlisten guda ostera berreskuratuz.....	96
2. 79. (14) Arana ta goiri'tar Sabino. ....	96
2. 80. Karlisten guda berriz berreskuratuz.....	96
2. 81. Arabaren galduera. ....	98
2. 82. (15) Arana Goiri'tarren sendi ta anaiak.....	99
2. 83. Karlisten guda ostera oratuta. ....	99
2. 84. Azkeneko oarra. ....	100



[www.euskerazaintza.org](http://www.euskerazaintza.org)

**610.000  
BISITARI**

**Gure irakurleari:**

Azken zenbakian gure aldizkari au artzen dutenentzat eta adizkideentzat jarritako oar bat agertu zan, arpidendunai diru-laguntza eskatuz.

Batzuk arpidetza zenbat dan jakin nai dute eta gure erantzuna au da: “Len”, oraingoz ez degu arpide-saria zeaztuteko asmorik, al degun artean naiago dogu irakurleen gogo ona kontuan artu eta emaitza ematen digutenak “laguntzaille” taldera sartuko ditugula esaten da gendun.

**Gaur, diru kontuetan estutasunean sartuta gagoz, eta al dauanak gura geunke “urtero” 30 euro ordaintzea, bealdean aipatzen dogun gure kontuen zanbakietan.**

**Gure kontuen zanbakiak onek dira:**

**BBVA: ES41-0182-1296-00-0201538669**

**KUTXA: ES80-2101-0200-46-0006681589**



# EUSKALERRIAREN EDESTIA X.

## ***Oar txiki bat emen:***

*Atal onetan, izki etzan edo (kurtsiban) idazten diran zatiak, nire eritzi edo neure oarkizunak izango dira.*

*Eta izki etzan baltzetan idazten diranak, ataltxoen izen buru, ta Arana ta Gori tar Sabinoren sendiari egokitzen jakozenak izango dira, Sabino ren bizitza ta bere sendiaren kontakizunak, gure dauazanak, errezagatu egiezen.*

## **1. 2. Sarreraren aurkezpena.**

Euskerazaintzaren Xn ataleko Euskalerrriaren edesti onetan, eldu gara, euskaldunentzat garrantzi handiena daukien XVIII, XIX, ta XXn gizaldiko urteetara.

Katolikotasunaren aberkuntzazko eritzikoak, emen baiezten dabezalako, laugarren gizalditik asita, edesti guztian nai ta ziñezkintza guztiekaz ezin izan dabezanak baieatu.

Txarrena baiña, Erromatar-Godoen kaisar-menperatzaille legeakaz, aberri-katoliko erlijioaren eragipenagaz gaineratuta, aurrera egiten dabela kolonizaziozko lapurketakaz.

Ulermeneko zentzu onez ezinean, gudaloztearen indarrezko lapurketara bideratu ebazan alegiñ orreik, eta asmatu eben katolikotasunezko erlijioaren eritzi orren bidez, Mundu osoa erlijio ortan aberri-zatzenagotzeko itxaropenean, sasi-legeztu egiten dabez erritar sinisteak.

Eta ortik agertzen jakie, jabetasunazko arloetan eurak daukien maltzur-guzurrezko ta lapurrezko eskubide ori, eurena izan balitz bezela, legunean Kospedalek telebitan eta euren (PP) batzar nagusian esan eban antzera, *“tenemos que defender lo nuestro”*.

*Zer ete da eurena ?.*

*Mundu onetan geurea edo neurea, “ARDUREA DA”, ortik aurrera inork edo Aita Santuak be, ez daukolako jabetasunik edo ezerezko nerekotasunetik ezer.*

Emen, erlijio bidez legeztu egin ziran lapurketa orreikaz, Europa osoa, zentzunbakeko Laterrietan aberkuntzatu eben, Goiko Jaungoiko Egilleak, Giza-Abere, Arraiñ, Gai-Lur-Aize-Urak, Berak bereztasundutako legeakaz eskubidetuta daukazanen aurka.

Orregaitik, VIIIIn ataleko sarreratik asiko naz aurkezten Xn Atal au, esan bear doguzenak, danon ulermenerako, ondo marraztuta izteko edesti lez.

## **1. 3. VIIIIn Atalerarte eta beren sarreratik asita, argi ikusten dogu:**

Euskalerrriaren jendekuntz handiko legegille biltzar demokratikoak, nundik jaio, ta zelangoak ziran, ainbeste milla azturazko urte bidez, lortu ta gaur arte irauteko.

Europako Mendebal onetan, Euskerea aztu barik, euskaldunak Eskoziatik Kadi-zeraiño, eta Atlant Itsasotik Alemania erdirañoeko lur orreitan, ainbeste milla urtetan bakarrak izanda, euken berezitasunezko zabalkunde aundia kontuan artu bear dalako.

*Bai euskerea be, gure nortasunezko izen-buru lez artu gendunetik, bizitzaren ekintzako alkar babesean artu genduzan senidetasunezko zentzuak, ondo baiño obetoko kontuan artu bear dirala, orduan be eta gaur baiño obeto, euki gendun erlijiozko ulermenetik, GOIKO Jaungoikuari eskeintzen geuntsezalako eguneroko eginkizun guztiak.*

Geroago eta IVn gizaldian, zelan I Konstantinok, Erromatar Kaisertzaren maldaberea ikusi, ta Izadi onen giza, arditalde lez bideratzeko, Kristau eleitzar I Silvestre Aita Santu ta Osio Kordubako gotzaiagaz alkartu ondoren, zelan siñis-egi lez, ziñez-kintzatu eben asmatu ebezan Aberri-katolikotasuneko lege baldintzak, aberkidetasun orreitan, munduko giza osoa batzangotu zedin. Arik eta Godoak Vn gizaldian, Erromako kaisertza menperatu ondoren, eta katolikotasunezko erlijio orregaz jabetu, euren txanda artu, Mauritarrak agertu ziran arte.

#### **4. Bai, Europako mendebal onetan, Erromatar eritzizko Godo oneik, katolikotasunezko erlijioa, ezartzeko alegiñean zer egin eben:**

Godo auek, erromatarren ordegotza artu ebenetik, ta Toledon ezarri eben kaisertzagaz, euren zabaldunezko asmakuntzakin, Euskalerrriaren giza semeakaz, beti borrokan agertuz gaiñ, erromatar kaisertzazko lengo ari ortatik, Europa, katolikotasunezko aberkuntzan batzangotzen asi zirala, arik eta Mauritarrak agertu ziran arte.

K.a. 2.000 urte, Alemaniako lurraldean keltiarrak agertuta, eta K.a. 800 urte, Keltiarren zabalkundearen Europatik zear, Frantziaren lurraldeko Normandiaren inguruan keltiar frankoak euren banaketazko antolamentuagaz agertu ostein, eta Klodobeok K.o. Vn gizaldian leiñu orreik batu ebazala erregezko antolamentuan, eurekin erri bat lez asteko.

Asturiaseko erregetza Pelayorekin sortu zala, bere Erroma, Godotar, ta Kristau erlijio zentzuagaz batera, Mundu au, aberri katoliko erlijioan ezartzeko asmakuntzaren bidetik.

Eta erreñu orreik sortuta, zelan sortu zan Napar erregetza, eta nai ta katolikotasunezko erlijioakoakaz batera ibili eta errege erregiñaren artean, Europa osoa senidetasunean nastu arren, beti ibili zala bere Batzar-Zaarren agindu demokratikoetara, eta erdiugarte onetan geroko mapa osotzeko, zelan Napar ari bidetik sortu ziran Gaztela ta Aragoiko erregetzak, eta batera Leongo erregetza, katolikoan menperatzaillezko legean ezarrita, Frankoen eta Asturias´eko erregetzak lez.

Edestitik zear eta guda indarrez, gure Euskal Demokraziaren Askatasunezko legeak berdinkatzen ibili diranak, gaurko egunetan egiten daben antzera”(1).

Ez dira konturatzen, berezko jendekuntz bide, edo berezko nortasunaren azturazko ikas bidetik, gure legezko egarriak azetzeko, Izadiak daukazan legeetatik atara edo berdinkatuz, sortu edo agertzen direzan legeak, ez direla bardiñ edo antzekoak be, norkeri bidetik asmatzen edo egiten direnakaz.

Norkeriz edo guzur bidetik egiten direzan legeak, guzurrara bideratzen gaituelako. Izadi onetan, ezin dalako asmatu legerik, Izadiak daukazan legeakaz jokatu baiño.

(1) Munduko errigizarte mailla guztien arremanetarako = Europako Mendebal eta Ekialdeko lurraldetan beintzat, dan guztia edo erri guztien erregeak “Katolikotasunezko Aberkuntz orregaz lotuta geratu zalako.



Bai VIIIn atalean bide batez, eta Kondaño'n omenez, berak ikertutako "*Las Confirmaciones y el Pase Foral*" eko lan ederra aurkezten dogula, gure Batzarraren Lege Zarrak, argitasun geiagoagaz ikusi dagiguzan.

Eta euskal Lege Zar orreik daukien zentzunezko argi ta indar guztien gain, Europa eta Mundu osoa katoliko erlijio orren mende batzangotuz aberkidetzeko, norke-  
riz asmatutako ziñezkintzazko edo dojmatikasko menperatzail legeak ezarri dabezala, gure edo berezko legeakaz, berdinkatzen be ez dabezanak izten.

*Katolikotasunean batzangotzeko, aberkidetasunezko lege orreri esker, Jaungoikuak Berak sortutako edo bereztutako Izadari, ipiñi eutsoezan legeen aurka igeriten gabiltz.*

*La noiz eltzen dan eguna, bereztasunezko demokrazian zentzunduta, mai inguru baten ezartzea, Europa ta Mundu onen arazoak konpondu ginduzen.*

Foru Baimena edo zergaitik sortu zan Pase Forala be argitu gendun, Aragoiko IIIn Fernando eta bere emazte I Isabel katolikuak gero, Bizkaiko Jauntza edo Bizkaitarren Artekaitza artu ebenean, jakin degun zergaitik egin bear izan eben ainbesteko ziñezpen edo zinkunde, Bizkaiko Jauntzaren ardurak, artekari lez erabilteko.

Bai ta nungo bidetik, eta zergaitik agertu ziran gure Euskalerrira, atzerritar jauntzazko edo Gaztelarrakin erregezko lotura orreik.

Argitasun orreik eginda, eta ikusita Europaren orokortasunean, erri-jaurkintzaren etorkizunezko denborak, argi ta garbitasun geiago bear ebazala, eta katolikoan aberkuntz ori ez zala lortzen inñundik inñora, erabiltzen ziran kolonizaziozko menperatzail legeak, euren guzurkerizko almenaren mugaraiño eldu ondoren, politikazko arazoak baiño besterik ez ebezalako sortzen, errigizartearen bizitzazko artu emonak ibilgaitzezkoak biurtzen asi ziran, eta Frantziko Iraultzan sartu giñela, beste zuzenbide barik.

Bizitzazko ekanduaren zor-eskubideetan, oker-xautzezko muga edo bide-gabetara eldu giñan: "*Etenbageko odoljarioaren gudakaz bakezko alegiñakin, eta al zan zentzunezko on bidearen erabagiakaz*", ez zalako lortzen eskubideen berdintasunik, ez eta gitxiago, bakerik.

Katolikotasunezko aberkidetasunaren sasijainko menperatzail lege orreik, ekarten dan orokorrezko guzurrakin, dan guztiko giza bazterrak, guzurrez lokaztuta geratu ziran.

Eta Frantziko iraultzan sartuta: "al-osokerizko lege zar guztiak kendu", eta "ainbeste gizon emakumeai: *Egia, Askatasun, ta Bardintasunezko idazburuaren izenagaz*, lepoak moztu arren", alegiñ guzti orreik, giza seme-alabaren eskubide guztien gainetik egin ziralako, ez eben balio ezer, norkerien legezko asmo orreik, ez daukielako zentzurik.

Eta Napoleon agertu zanean, leenengo errepublikea ezereztu, ta legezko gauza guztiak, erregeen alosokerizko legeakaz, aberkuntz katolikoan erlijiozko menperatzail batzangoan ezarri ziran barriro, iraultzagaz kendu ziran lege guztiak, Napoleonek berreskuratuta.

Orain, VIIIn ataleko edesti orren ari bidetik, IXn atalean idatzi genduzanak aurkeztuko dautsuet, Xn ataleko edestia, argi geiagoaz ikusi degun.

## 1. 5. IXn ataleko sarreran ikusi gendun:

Argi geratu zan, garrantzi aundiak euki ebezala Frantzian sortzen ziran gauzak, Europa, ta obeto esanda, munduko errigizarte mailla guztien arremanetarako<sup>(1)</sup>.

(1) Euskalerriko edesti onen saioa geien egiztatu egiten dauanak, edestia bera da, 325eko urtean Ni-  
zean egin zan batzarretik ona, arazo bardiñak daukaguzelako bereizgarritasunezko Mundu onetan.

*Eta Edestitik zear, ainbeste milla bider, alperrezko saioak egin eta gero, aldi onetan jakintsu aundi<sup>(1)</sup> orreik, frantzez gizarteagaz saiatu ziralako: "Ia nundik batzangotu ta artalde lez bideratu, Europako gizarte guztia, asmatu eben menperatzailezko katolikotasunaren aberkidetzan batzangotzeko, goitik berako aginduan".*

Euskalerrarentzat zer ezanik ez, milla urte asko bidean demokraziaren askatasunezko zentzuak bere Baitan oituratuz eukinda, Euskalerriko gizartea izan dalako, euren menpeko saio orren aurka, etsai aundiena.

Edo bakarra ?.

Kontuan artu bear da, milla urte askotan, Atlant-Itsasotik Alemaniaraño, eta Eskoziatik Kadiz'eraño lurralde guzti orreitan, ez zala egon beste giza semerik, Euskaldunak eukin Euskerearen jendekuntzatik eta Askatasunezko demokrazitik kanpo ezer, eta eurak erabilten ebazan lurraldeak izan ziralako, or, barneratu ziran askatasunez, lortu eben euskal demokrazizko sinismenakin.

Orregaitik, arrituko ote gara ba: "Euskal demokrazizko jendekuntzaren aurka izan dirala edesti guztian, katoliko fazizta orrekin aberriko eraso guztiak" Europaren Mendebal lurralde auek, zentzuz euki ebazan Askatasunezko Demokraziak ezereztuteko alegiñez ?.

Besterik ez zan egon Europaren Mendebaleko lur onetan, K.a. 2.000 urte Keltiarak etorri ta Alemania inguruan kokatuz, K.a.800 urte ingurutik, Europatik zabaltzen asi arte.

Bai, K.a. 753ko urtean irasita, 510eko urtetik aurrera erromatar menperatzaile asmoak be zabaltzen asi arte. Eta K.a.200 urte, Ekialdetik Germaniako Godo leiñuak, Danubio ibai inguruan kokatuz euren zabalkuntza lortu arte.

Gero, K.o. 5n gizaldian agertu ziran Suebo, Bandalo eta Alaman Jermako leiñuak.

Gaur Europako lurraldetan ikusten dan lez, lurralde asko galdu ebazan gure euskal leiñu edo sinismenekuak, eta askatasunezko demokraziaren siñezle aundiak lez, sekula ez gendun aurkakorik agertu lurralde orreik galdu arren. Guri geien arduratu egiten dozkunak, Egizko Demokraziaren askatasunak galtzea izan dalako beti. Galdutako zentzu berezi orreik beti, Jaungoikuaren Legetik kanpora ataraten dauskuelako.

Eta nai ta, katolikoaren aberkidetasunezko norkeriaren guzurrak Euskalerrian, kalte aundiak egiten ba dabe: *"Norkerizko aberkuntz katoliko orrekin guzurrak, sasi-jaintasunezko maitetasun lez sartuta, ainbat maltzurrezko guzurraren lokatz artetik urten ezinik izten gaituelako da"*.

Badagoz errigizartearen maillan be, katoliko edo edozein menpetasunezko batzango eritziaren aurka, berez prestatzen gaituen gauzak, nor-beraren gandik asi ta, bakotzaren ardurazko guzak diran: *ezkontzarako etxea, seme-alabak, bear dogun diru ta mozkiñak, auzotasuna, erria, lurralde, eta aberriko askatasunaren zentzuzko arrazoiak, zapaltzen dauskuenean.*

Nai ta edestiko etorkizunean, or ibili bear, odoljariozko ekintza gogor baten, goitik berako menpe eritzi orreik, ezarri gure dabenaren aurka.

(2) Jakintsu Aundiak = euren ustez.

Begitu ba, gure Euskal-Demokraziaren-Askatasunezko borrokak, zelako lurralde txikian mugatu dauskuen.

Baiña begitu beste aldetik be, Jaungoikuak parebageko aukera emoten dauskula, gaurko egunetan oraindiño, gure Arbasoak milla urte askotako ekintzan Euskal Demokrazizko Askatasunean lortu ebezanak, gaurko egunean guk, euren Aitorle lez, Munduaren giza-semei erakusteko.

Ori da ederrena.

Txarrena baiña, katolikotasunezko asmakizun orreik, eten barik Diru-Iturri, edo sasi-jainkoaren Urrezko-Txekor lez gurtuta, 1.693ko urtetan konturatu ez egitea, JAUNGOIKO IRASLEAK Izadi oneri, ipiñi eutsozan legearen aurka gabizela.

## 1. 6. *IXn Atalean gero.*

Frantziko I Felipegaz asi giñan. Iraultza ostetik bera izanda Frantzian, konstituziozko leen erregea.

I Luis Felipe *Egalite* onek bere erregetzan, izengoitiko aukas ezagutu zan: *Uritar Errege*<sup>(1)</sup>, *Diru Etxe Arduradunaren Erregea*<sup>(2)</sup> edo ta *Kale Zoztor edo Kupel-Babes'eko Erregea*<sup>(3)</sup>, *Txantres Uritar erregea*<sup>(4)</sup>, eta abar.

I Felipe onen denboran, lantegigintzak laster edo azkar ugarituteagaitik, aundikien<sup>(5)</sup> igoeragaitik, eta ezergabeko aiton ume<sup>(6)</sup> edo ta langilletzak<sup>(7)</sup> sortutakoagaitik ezagutuko zan bere erregetza.

## 1. 7. *Frantziko iraultzan, Leenengo Errepublikea.*

1.785eko urtean, lenago Karakas alkarteia izan zan Filipinaseko alkarteia desagertzen da.

1.789ko urtean asi zan iraultzatik, *zelan deitu jakon Leenengo Errepublikea*: 1.792ko urtean, XVIIn Luis atxilotu, ta gero 1.793ko urtean Urtarrillaren 21ean lepoa moztu eutsoen egun artean, 1.792ko urtean Iraillaren 21ean sortu zan Frantzezen Igo Errepublikatik, 1.804ko urtean Loraillaren 18garreneko egun bitartean, egon ziran iru lege biltzar, eta errepublika antzeko gobernu ezberdiñari.

1.790eko urtean Urtarrillaren 12an, zelan sortarazi zan Auñamendiren Beko Lurralde edo Eskualdea<sup>(8)</sup>, Bear eta Euskalerrria alkartuz, Pau eukinda Uri nagusi lez.

1.793-1.815eko urte bitartean, zelan I Luis Felipe erbesteratu eben.

1.794ko urtean Urtarrillaren 27an, zelan agertu eben "*Barrere*" legea, Frantziko lurraldean egon ziran beste izkuntzak, euskerea bezela, aienatu zitezen, konstituzio barriaren frantzez izkuntza indartzeko.

1.794ko urtearen Uztaillan zelan, Frantziaren egiuneko gudalozteak Bidasoa aldatuz, Giputzen lurraldean sartzen dirala, eta Donostia etsaimendu ondoren, Mitxelena alkateak zelan emoten dautsoz frantzezaren Monzey gudal nagusiai, Uriaren giltzak.

(1) Uritar-Errege = rey ciudadano. (2) Diru etxeko arduradunaren erregea (3) Kale zoztor edo kupel babeseko erregea = rey de las barricadas. (4) Txantres uritar erregea = Txantreseko dukadoaren izena be eroaten ebalako. (5) Aundikien igoeragaitik = con la ayuda que recibió de los adinerados, puesto que la evolución del campo monetario fue grande. (6) Ezer-gabeko aiton-ume = proletario. (7) Langilleria edo langilletza = proletariado. (8) Eskualdea = región, territorio, país, al alcance de la mano. Eskualde guztieran = en todas las latitudes.

Gipuzkoako Aldundikoak Getariatik, zelan Mozeyri eskeiñi eutsoen guda-eten bat egitea, eukezan asmoak berari aurkezteko.

Asmo onen baldintzak, auek izan ziran: “Gure Foru-Legeak, erlijo katolikoa, ta euskal Lurralde orreik euki ebazan oiturak, ta beste izaerazko gauzak, aurreko 1.200 urteak lez izan dagiezala, eta Giputz´tarrak ez egiezala beartu, guda serbitzurik egiten.

1.794ko urtean dagonillaren 14an, ongunde onek baieztetzea bear ebelako, Getarian batzartu ziran, eta Pinet ta Kabaingnak´ek euren berbalditan ia zapuztu ba eben Giputzak aurkezte eutsoena, Mozey gudal nagusiak, ongundeen alde agertu zan, eta orokorrezko batzar orrek, onartu eban Gipuzkoakin errepublika bat egitea, espainitarren banazean, edo kanpo.

Banakuntzazko batzorde bat irasi eben orretarako, Giputzen aldetik Etxabe´tar Jose F., Zuaznabar´tar Joakin, eta beste Frantziko lurraldearen euskal Diustegi.

*Euskalerrriaren edestiko saio onetan, garrantzi andi eta euskal gertakizun asko geratzen dira aipamen barik. Orretarako baiña, 10 urte ariñago asi bear izan neban saio onegaz, eta orretarako ez dot euki denborarik.*

1.795eko urtean Uztaillaren 15ean sartzen dira Frantzezak Gazteizen, Mozey´en agindutara.

Euskalerrria ezan leike, Frantzez errepublikaren alde edo laguntzagaz, beren aberitar errepublikea sortuko ebela, baiña Basileako egiune edo ongundea ziñatu eben Frantzezak espainitarrekin, eta orren bidetik desagertu zan Frantzezaren laguntza Giputztarrai.

1.795eko urtean Uztaillaren 22an ikusi gendun be, zelan izenpetu eben espainitarrak ta konstituzioaren frantzez barriak, Basileako ituna, euskaldunen errepublikazko emetsak ezereztuz.

1.804ko urtean zelan agertu zan Zamakola bere Bakezko Kai´en antolamenduagaz.

1.808ko urtean Jorrail-Loraillaren ille bitartean, zelan Napoleonek IVn Karlos eta bere seme VIIIn Fernando atxilotzen dauz, bere anai I Jose espainitarren errege ipinteko.

1.809ko urtean Azillaren 25ean zelan ezkondu zan I Felipe Bi-Siziliako Borbon´tar Maria Ameliagaz, eta euki zituzen 10 alaba-semeak.

1.810eko urtean Iraillaren 24an Kadizen ikusi gendun, gudal nagusiak egin eben konstituzio barriaren lege-baldintzak, zelan onartu ziran espainitarren artean, 1.812ko urtean amaitu ebena.

Eta euskaldunak emendik aurrera, zelan 20 urtetan ez zirala konturatuko, gure Foru Legeen alde ez zala ezer egingo, espainitarren artean ainbeste alosokekerizko agintaritzatik konstituzioaren alde egin ziran ainbesteko aldaketakaz.

1.812ko urtean, ainbesteko sasiguda bitartez, zelan lurreko eraiketaren itzitasunak, amaibako gose edo zabel zorriak ekarriko ebazan, euskal gizarte artera.

1.813ko urtean Ingelesak eta Portugesak Donostia erretan dabe. Gero, eta errearen ostean, andinaiairen lapurketazko ekitaldi sakon baten, zelan dirudun jauntxo barri batzuk sortu ziran, Donostiaren berreskuntz orretan.

1.814ko urtean eta Napoleon atxilotuta, zelan joan zan Frantzira ostera be, bere erregezko zeregiñakaz arduratzeko.

1.814ko urtean Uztailaren 29an, ostera berrezkuratu ebazan euskaldunak euren Foru Legeak, Nafarroak be, bere erregetzazko legeak berreskuratuta.

-1.817ko urtean Urriaren 21eko egunean espainitarrak, gure Foru Legeak eurenak izan ba ziran lez, zelan: *“Onartzen ziralala esan eban, sin perjuicio de los intereses de la nación”*.

*Noren Aberria baiña.*

*Izadi onetan, ezereen guraso barik egiten dira alaba-semeak ?.*

1.848ko urtean zelan “Kupel-Babesaren” ostean baztatu eben erregetzatik I Luis Felipe, IIIn Errepublikareen bideak zabaltzeko.

Eta zelan 1.848ko urtean Otsailaren 25eko egunetik, 1.852ko urtearen Abenduko 2n egun artean, frantzez barriak ibili eben jaurkintzagaz, bete ebela IIIn Errepublikako epe aldi ori.

## 1. 8. *IIIn Isabel espainitar erregeñaren aurkezpenean.*

1.814ko urtean eta Napoleonek bere anai Bonaparte´tar Jose espainitar errege lez ipiñi eban ostetik, zelan VIIIn Fernando erregea bere espainitar errege aulkian ezarrita, Kadizeko guda nagusiak agertu ebezan konstituzio barriaren legeak ezereztu ebazala, bere al-osokerizko legeak ostera berrezkuratu.

1.820ko urtetik aurrera, zelan azten dira eraso gogorak Euskal Foru Legearen aurka.

1.820ko urtean, zelan iru urteko gudarien matxinada bat asi ondoren, konstituziozko Laterri barrien legeak eta Kadizeko aginduak ostera ezarrita, ondasunak askatu<sup>(1)</sup> ebezala.

Eta buru beroko liberalak edo konstituzionalistak alboratu egiten ziran neurrian, VIIIn Fernandok, Kadizeko konstituzioaren legeak ontzat artzen eban itzurak eginda, bere alosokerizko legearen atzean ibili zala, geroago San Luisen 100.000 gudariak<sup>(2)</sup> lortuko ebena.

1.820ko Urtarrillaren 1go egunean VIIIn Fernandok, 1.812an espainitar guda nagusiak Kadizetik agindu ebazan konstituzio barri orren legeak ezereztu ebazalako, eta lenagoko erregearen nagusitza ostera aldarrikatu ebalako:

Riegotar Rafael koronel ordezko guda nagusiak, San Juaneko Buru edo Kabezas´etik, 1.812ko Epaillaren 19an Kadizen guda nagusiko jaurkintzak sortu eben konstituzioa edo liberal jaugo barri orren legeak aldarrikatuta, erregezko al osokeriaren aurka matxinatu zan, eta guda nagusiak ortik aurrera euki eben liberalaren laguntzagaz indar asko artzen joanda, zelan euren adierazpeneko Foru Itza<sup>(2)</sup> bidez, eraso aldi gogorak egin ebazala, gure Foruko Lege Zarraren aurka.

Zelan edestilari batzuk esaten dabela, Euskalerrian sortu zan karlistadako guda, ez zala izan Foruen goraberakoa.

(1) Ondasunak askatuz = desamortización de Mendizábal. (2) San Luisen 100.000 gudariak = guda-lozte au Frantziko XVIIIIn Luisena izan zan.

Eurentzat ez, euren arteko borroka, Erdi Ugarte onen lurralde osoak mendean ezartzeko gaur lez, politikaren jaurkintzazko liberal eta erregearen al osokerizko eritzi bien artean izan zalako. Gurea bai baiña, Vn Karlos Maria Isidrori, gure Lege Zarrak babestu egian, laguntza eskatu geuntzelako.

Eta orregaitik, borrokaldi andi ta geienak, Kataluña ta Euskalerrian egin zirala, euren batzango mende asmotan, emen egon zalako espainitar kaizertza ezartzeko arazoaren ardatza.

IVn Karlos eta VIIIn Fernando Napoleonengandik atxilotuta egon ziranean, gudar agintariak asi zirala indarra artzen, eta gure Euskalerrian gudu antzez<sup>(1)</sup>, euren gizon jaurgo zaleak ezartzen.

1.820ko Epaillaren 7an, zelan espainitar gudar nagusiak beartuta, lortu ebela, 1.812ko Epaillaren 19an Kadizen sortu eben konstituziozko lege barri orreik, VIIIn Fernandok izenpetzea.

1.820ko urtean Epaillako 18an, zelan Gernikako Batzarkidei Epaillen 24an batzartzeko agindu eutsela, 1.812ko urtean Urrillaren 18an euskal ordezkari gezur zaleak, gure Foru edo Euskal Legeak, Kadizen ziñatu ebezan espainitar lege barriekaz egokitu egiezan.

Espainitarrak, Euskaldunai ainbeste amurru eukinda, mende joku orrein bitartez, bere lurretan ereiten ez ziran obariagaitik be, zergapetu gura ebazala, adibidez: Garagar, zikirio edo zekale<sup>(2)</sup>, olo<sup>(3)</sup>, ilar nabar edo txitxirioagaitik<sup>(4)</sup>, eta ez edozer gauzakin, 14.000.838 erleko diru kopurua ordaindu bear zalako.

Maltzurrezko joku orretan baiña, espainitarrak zelan zerga orreik ezin ebezan aurrera eroan, Bizkaiak, lenago bere Jaun erregeari antolabidezko lanagaitik ordaintzen ebazanak, ezereztu barik euki ebazalako.

1.820ko urtean Epaillaren 25eko denbora onetan, zelan espainitarrak mogimendu larregi egin ebela, gure Euskal Legeak, euren jaurgo Santu barriaren barruan gesaltzeko<sup>(5)</sup>, espainitar lurralde guztietan nortasunezko ezberdintasunak aienatzeko, ta Euskaldunak euren izatasunezko Nortasuna galduta, espainitar biurtu zitezen.

1.820ko urtean Jorraillaren 1etik aurrera, zelan Bilboko Udalak espainitar jaurgo zale gudar agintariekin lankidetasun aundia erakutsi ebala, Udal arduradunak ziñatuta euki eben espainitar *jaurgo politikua* Jorraillaren 2a aldarrikatzeko eguna zala agindu eutsonean, Bilbotarrak espainitar biurtu zitezen.

1.823ko Jorraillan, zelan Borbontar Luis Angulemako dukeen aginduan sartu zirala peninsula edo Erdiugarte onetara, Frantziko San Luisen 100.000 seme gudariak.

1.823ko urtean Urrillaren 1ean VIIIn Fernandok, erregetzaren al osokerizko agintaritza aldarrikatu ebala, eta ararte Kadizetik gudar nagusiak agindu ebazan jaurgo barriaren edo konstituzioko lege barri guztiak, ezereztu ebazala.

Eta zelan espainitarrentzat emen asiko zala, edestilariak 1.823-1.833ren urte arteko zori gaiztoko amarkada deritxonai, gudar agintariak, erregearen gaiñetik agindu naian ibili ziralako.

1.823ko urtean zelan VIIIn. Fernandok, gudalburu jaurgozaleak beartuta, espainitarren jaurgo barriari ziñezko itza emon bear eutsen. *“Eta emen ikusten da, zelango saio pilla egin ebazan Batikanoko aolkulariak, Europa ta Mundu au katolikotasunaren erlijiozko aberkidetzan batzangotzeko”*.

(1) Gudu antzez = estrategia militar, estrategikamente. (2) Zikirio edo zekale = centeno. (3) Olo = avena. (4) Ilar nabar edo txitxirioak = garbanzos. (5) Gesaltzeko = diluir.

1.823ko urtean Urrillaren 30ean zelan Prantzezak urten eben Bilbotik, eta euren ordeztu, espainitar oiñezko iru txanberga<sup>(1)</sup> eta zaldun talde bat<sup>(2)</sup> etorri ziralara.

1.823ko urte onen askenetan, zelan VIIIn Fernandok, espainitar gudaiburu jaurgorri barri zaleak beartuta, espainitarren konstituzio barriari ziñez itz emon bear eutson, “*Sin detrimento de la unidad constitucional de la monarquía*” esaten ebana, eta gero, “*Sin detrimento de la unidad constitucional Española biurtuko zana*”.

Eta orregaitik, zelan VIIIn Fernandok ortik aurrera ez ebala inkizizio barririk ezarri, erregetzaren betiko antolabideak berrezkuratzeko bertan itzi ostein.

Eta guda agintariak beartuta, zelan erregeak espainitar jaurgoa ziñatu ebenetik, atara ebazan legeak, danak izan ziralara batzangotasunezko jaurgorri aldera urbiltzeko.

*Noren aolkularitzazko esku baltza ibiliko ote zan asmo orren azpitik ?*

Kontuan eukin bear da orregaitik, katoliko onein asmakuntza, erri ezbarriñeko Foru Legeen gaiñetik, Erdiugarte onen lurralde guztiko bardintasuna gure ebala, eta alegiñezko ekintza orrean bidetik aukeratuko ebazan barriro, berezko Foru edo Euskal Legeak ezereztuteko bideak.

## 9. **1.823ko urtetik aurrera, espainitar Laterriak zelan dauka “Estado Español’ en izena”, aberria izan balitz bezela.**

*“Euskalerra, Kataluña ta Galiziaren berezko eta jendekuntzazko Aberriak kontuan artu bage”.*

### 1. 10. **1.830eko urtetik, 1.833–1.839ko urte bitartean, Leenengo karlistadaren gertakizunak ikusteko.**

1.830eko urtean Jorraillaren 3an, zelan agertu zan Madrileko la Gaceta aldizkarian, VIIIn Fernandok, Ley Salica ezereztu ebala.

Eta espainitar ondorengo guda sortuz, gure Euskalerraarentzat zoritxarreko ondorioak ekarriko ebazala, txeberazko guda orreitan nai ta nai ez, nastuta geratu giñelako.

Ez zan ustegabeko gauza, aberkuntz-katoliko orren batzangotzeko barruan sartuta geratzea, katolikotasunean batzangotzeko amets orrek, Izadi osoa arrapetan ebalko, eta oraindiño ez dabezelako, norkeriz asmatutako lege orreik gure gaiñetik kendu, or daukaguz lepo gaiñean, len damudunak<sup>(3)</sup>, zorroen oial sardagaz eta zorritz beteta soñean eroaten ebazan jantzi zar lez.

1.830eko urtean Epaillaren 31n, VIIIn Fernandok bere alaba IIIn Isabel izango zana, sei illabete jaio aurretik, bere aita IVn Karlosek 1.789an agertu eban legeagaz, 1.713ko urtean Vn Felipek ezarri eban Salikako legea ezereztu egiten eban lez, debekatuko lege orregaz, emakumezkoai bere alabagandik asita, zelan baimena emoten eutsoen, erregetzazko aulkian ezarri zitezen.

Baita, zelan Karlos Maria Isidro izan zala, VIIIn Fernando bere anaiaren ondorengoa ia onen errege denbora guztian, arik eta VIIIn Fernandok lege ori aldarrikatu arte.

1.830eko urtean Urrillaren 10ean Madrillen jaio zala Isabel, VIIIn Fernandoren alaba, gero bere bizitzan “*Betillun etorkizunezko erregeña*” edo *Umetxo Erregeña*<sup>(4)</sup> deituko ebana.

(1) Txanberga = batallón. (2) Zaldun talde bat = un escuadrón de caballería. (3) Damudunen jantzi latzak = como la ropa de saco llena piojos que los penitentes usaban para su perdón. (4) “Betillun etorkizunezko erregeña au” edo “Umetxu Erregeña au” = “La de los tristes destinos”, edo “La reina castiza”.

1.833ko urtearen Epailan, zelan Karlos Maria Isidrok esaten ebalatzen bere anaia VII In Fernandok ez ebalatu euki nagusitasunik Salikako lege ori ezerezteko, 1.713ko Lorailaren 10ean Vn Felipek ezarri eben Ley Sálida ori, 1.789an euren aita IVn Karlosek ezereztu ebanean, aldarrikatu barik geratu zalako. Eta bere loba II In Isabelen Asturiaseko printzea izatea ez ebalatu on artzen, iges egin bear izan eban Portugalera.

1.833ko urtean Iraillaren 29ko arratsaldean il zala VII In Fernando, eta bere alaba II In Isabelen izenarekin, egun berean egin ebela espainitarren erregeña, bere ama, Bi Siziliako Maria Kristinaren errege ordegotzan.

Bai, zelan Euskaldunentzat, VII In Fernandorekin joan zirala betirako, ararte Ugarterdi onetako erregeakaz euki gendun epai edo antolamenduzko artekaritza, espainitar guda buru nagusien maltzur eta zapaltzaillezko asmakuntzari, ate guztiak zabaldua.

1.833ko urtean Iraillaren 29an zelan VII In Fernando il zanean, Vn Karlos Maria Isidro bere anaiak, II In Isabel bere lobaren Asturiaseko erregeñ gai izatea ez ebalatu on artzen, ez eta urte ta egun orreitan II In Isabel erregeña izendatuta, bere ama Borbon Bi Siziliako Maria Kristinak, erregezko jaurkintza orreik ordezkatu egiezan gutxiago, Vn Karlosek, Abarkatar Joakin, guztientzako ministrua izendatuta, gudalozte eta guda nagusiaren laguntza eskatu ebalatu.

Eta guda nagusien artean ez ebalatu euki aipameneko laguntasunik, Portugaleko errege I Migelen onospena bakarrik artu ondoren, zelan VII In Fernandoren anai Vn Karlos Maria Isidrori, Frantziko iraultzaren baiño lenautik alosokeriaren erregetzako taldekoaz lagunduta egoanari, erregetzaren bide guztiak moztu eutsezala.

1.833ko urtean Urrillaren 6an Errioxa aldeko Trizio errian, Ladron de Zegama guda nagusiak, zelan Karlos Maria Isidro, VII In Fernandoren anaia, Vn Karlos izenarekin izendatu ebalatu espainitarren errege, eta oldezko gudariakaz<sup>(1)</sup> Logroño artu ta gero, Nafarroara aldatu zala, euren aldekoakin bat egiteko<sup>(2)</sup>. Eta ekintza orregaz, emen asi zirala karlistadako ondorengo borrokak, nai espainitar artean, nai Euskalerrri ta bai Kataluñan be.

Eta zelan Bizkai ta Durangaldeko guda Aldundiko erriak, Vn Karlosekin egon zirala.

1.833ko urtean Urrillaren 27an, zelan Donostiko Uriak aldarrikatzen dau II In Isabel eregeña lez, kontuan euki barik gure Foru Legeak.

*Eta urte onetan argitaratu eben espainitar guda nagusiak, Peninsula onen lurralde guztien eskubideak bardinduko eban antolamendua.*

*Erromatar-Godo-katoliko aberkuntz lez, nortasun bereziko giza guztia batzangotuz, zorro baten sartzeko arauak asmatuta.*

*Egiko araukatz batera, estandaka etorriko direnak edesti guztian, ikusten dogun lez, leerkailluak ezin dabelako poxpolloakatz batera juan, eta gitziago, poxpoilloak sua-piztuta eroaten ba dabe.*

1.833ko urtean Azaroaren 30ean, zelan aldarrikatu zan, erregetzaren jaurgo edo konstituzio barria, ezarri zanetik.

1.833ko urtean Azaroaren 14an, zelan izendatzen dabe Zumalakarregi, euskal gudaloztearen agintari nagusi lez.

(1) Oldezko gudariak = soldados voluntarios. (2) Euren aldekoakin bat egiteko = para reunirse con los suyos y reorganizar sus ejércitos.



1.835eko urtean Uztaillaren 10ean, zelan lurreratu zan Donostiako urian Ingelesaren lejiño taldea, Ebans'en agindupean, eta Donostiko gordetzaille edo diru zaleak, zelan erretzen dabe gure Foruko Legearen liburua. Bai ta zelan Donosti ta Irun geratzen dira Gipukoatik kanpo, 1.841eko urterarte.

1.837ko urtean Espartero espainitar gudal nagusiak, zelan ezereztu egiten dauz Euskal Foru Lege guztiak.

1.838ko urtearen asieran, zelan gure Foru Legeak, alde bietatik zapaltzen ziralako, Lizarrako erritarrak matxinatzen dira *“gaztelarrak eta euren batzarrak il egiezen”* aldarriketarak.

1.838ko urtean Otsaillaren 3an, zelan errege agindu batek, Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako Aldundiak lengoratu egiten dabezala. Amarrukeria edo azpiko joko bat baiño besterik ez zana izan. Euskalerrian zergako diru batuetan egoan gizarteko naste borratea, bertakoak konpondu egiezen<sup>(1)</sup>. Eurak, munduko indar eta denbora gustia euki ebalako, fazizta mendeku orreik ezartzeko gure Euskalerrian.

*Marotoren saldukeria zelan amaitzen dan ikusiko dogu, gertakizun oneikaz, ta karlisten ondarena ikusi ondoren, Euskalerriko Edesti onegaz aurrera egin dogun.*

1.839ko urte onetan, zelan Maroto ariñago ez bazan asi, Isabelen gudal nagusiak azten dala berba egiten.

1.839ko Urtarrillatik, zelan Vn Karlos erregearen gualtegian Tejeiro gudal nagusiaren aldekoak ziranak, eta Maroto zaleen artean asten dirala, gero ta biziago izango ziran eztabidak. Marotistak Isabelen gudal nagusiekin alkar berba egitekoaren aldekoak ziralako.

1.839ko urtean Urtarrillaren 15ean Marotok zelan, Vn Karlosen ondoan azpikari lez ipiñi eban Garzia ta Orejontar Jose, Esparteroren bigarrenagaz berba egiteko, alkar izketa orreitan urrengo mezuaren antolakuntzak ezarrita. Marotok ortik aurrera, Garzia ta Orejontar Jose bitartekoekin, Esparterogaz, artu emon aundia euki ebalako.

1.839ko Otsaillan Marotok, beren gualozteagaz Tolosara joan da, Gartzia ta Sanztar Pablo gudal nagusia, bai ta Ibañez idazkaria atxilotzeko agindua emon eban, gudariak matxinatu zitezen alegiñetan ibili ziralakoen aitzakiagaz.

Uriz eta Karmona Lizarrara bialdu ebazan, Garzia ta beste gudal nagusiekaz alkartu zitezen, eta matxintasunezko alegiñ orreik ez ba ziran geratzen, danak tiroz ilko ebazan keiñada egin eutsen.

1.839ko urtean Otsaillaren 14an, Maroto ta Esparterok antolatzen asi zirala 1.839ko ongundearen alkarrizketak.

1.839ko urtean Otsaillaren 17an, zelan Maroto, Lizarran sartu zala bere gualozteakaz eta gaba orretan, Garzia gudal karlista nagusia arrapau ebal Lizarrako ate baten, apaiz jantzita iges egiten egoala.

1.839ko urtean Otsaillaren 18an Marotok zelan, Garzia, Sanz, Gerge ta Yaniztar Juan Antonio, Karmona brigadierra, eta Uriz intendentziako arduradun karlista gudal nagusiak, bera Esparterogaz izkutuko izketaldietan ibiltearen aurkakoak ziralako, eta bere aldetik guzurragaz, gualozteak beren aurka matxinatzen ibili ziralakoen aitzakiagaz salatu ostean, bostak tiroz ilteko egiezan agindua emon ebal.

(1) Euskaldunak konpondu egiezan = eta emen beartu genduzan izkilluaren keiñuakaz, gure diruen zuzenbideak konpontzen. Gero dirubide orretatik 1.873ko urtean izkillu indarrez beartuko euskuen “Diruen antolabide” ori edo CONCIERTO ECONÓMICO ori EGITEN. Que fué el preludio de nuestros conciertos económicos de hoy.

Marotok zelan, Vn Karloseri beren maltzurrezko jokoia ostonduteko, ez eutsola ilketa orreik egiteko zala gora beran, ezer esan. Bestela epaiketaren bidez bere azpikerizko joko ori agiriko argian geratuz, eta gudal nagusiak aske itxi bearrez gain, bere lagun aundia zan Esparterogaz, eta espainitarren aldeko saldukeriz ibili zan bakezko alegiñak egiten, utsean geratuta, bere bizitza be dangilizka geratzen zalako.

Marotok orregaitik, eta Vn Karlosten bigunkerigaitik, bere aurrean, jauntxu agertzen zalako, gudal nagusi orreik judazkeriz, ezeren epaiketa barik bialdu ebazan eriotzera.

Eta 1.839ko urtean Otsaillaren 18an zelan Marotok, Lizarrako "PUY" Baselizaren orma ostera eroanda: Gerge, Garzia, Sanz, Uriz eta Karmona, Karlosten gudal nagusiak tiroz il ebazan bostak.

Bertan dago burdiñezko oroipengarri bat euren omenez.

Eta Lizarrako illerrian, gudal nagusien arrillobian dagoz euren gorpuak obiratuta.

Arrillobi orreitan ereñoztatuko gurutz azpian ta liseko lora artean burni xafla bat dago Nafarroako antziñatar edo tradizio zaleak idatzita:

*"Dios, Patria, Rey. A los Generales Carlistas Garcia, Sanz, Guergé, Carmona, Uriz, fusilados por el nefasto Maroto en este sitio, el 18 de Febrero de 1.839. Dedicán este piadoso recuerdo, los tradicionalistas de Navarra. R.I. P."*

1.839ko urtean Otsaillaren 20an Marotok, zelan bialdu eutson eskutitz bat Vn Karloseri, sortu ziran gertakizunak, beren erara oartu egiezan.

1.839ko urtean Otsaillaren 21ean, zelan Vn Karlosek, azpisuge edo saltzaille bat zala, asarre salatu ondoren, Maroto kendu ebala bere agintaritzatik. Marotok baiña, egoeraren nausia zan, eta Vn Karlos ez zan gauza izan Maroto bere lekutik kentzeko.

1.839ko urtean Otsaillaren 24an Karlosek, agindu baten bidez ostera izendatzen dau Maroto gudal nagusi lez, eta Zaratiegi ta Elio gudal nagusiak askatu ondoren, Marotoren aurka egon ziran gudal nagusiak, Frantzira erbesteratu ebazan. Ortik aurrera, zalantzak gogortzen asita.

1.839ko urtean Otsaillaren 25ean Maroto, Vn Karlosten aurrean aurkeztu zan, ilketaren gora beran, ezer aitatu barik.

1.839ko urtean Epaillaren 3an zelan Marotok, ostera salatzen dabezala erbesteratuta egon ziran gudal nagusiak, eta berak jakin ez arren, zelan bertan be eukezan bere aurka asita, egon ziran gudal nagusien artetik. Eta gertatu zan dan guztia, Marotoren maltzur eta saldukerizko jokoagaitik sortu zala.

1.839ko urtean Jorraillaren 17tik Loraillaren 13ko egun bitartean Kantabrian, zelan gertatu zan Ramaleseko borroka, Maroto izanda karlisten gudalozteko gidari, eta Espartero Liberal gudaloztearena.

Liberalen indarrak, zelan bikoiztu egiten ebazala gaiñetik karlistarena, eta laukotu egin ebazala Marotok, 17 batalloitik 8 bakarrik ibili ebazalako.

Geiago, zelan Guardaminoko gatzelua babesten egon zan Karreras gudal nagusi karlistari, Marotok etsaimentzeko agindua emon eutsola, borrokan asi orduko.

1.839ko urtean Jorraillaren 27an zelan, karlistentzako ain garrantzi andikoak izan ziran Moro ta Mazo mendi bizkarrak, Marotok aurkako alegin barik itzi eutsezala liberalai.

Eta bai gero zelan borrokatu ziran aĩn gogor, euren gazteluak zaintzeko, karlistak baiña atzeratu bear izan eben kalte aundiekin, Guardaminoko kañoien babesera.

1.839ko urtean Loraillaren 8an Esparterok goizetik, zelan Guardamino ta Ramaleseko gazteluak erasotzen dauz, arratsaldeko leen orduetan barrura sartuta, berton egon ziranak baiña, sua emon eta iges eginda, utzirik egon ziranak.

1.839ko urtean Loraillaren 11n Karlistek, Bizkaian Karrantzako ibarrean euken aurkako mugatik, zelan alde egin eben.

Gudari karlisten artean, zelan saldukeria egon zala asi zirala gogoratzen, eta gaur badakigu egia zala, gudari karlistak susmatzen ebana.

A ta guzti, zelako borroka gogorak egin ebezan, alde bietatik 2.000 illak egoteko, karlistentzat baiña borroka onek, asko esan gura ebala, Guriezko kañoitegiko labak galdu ziralako eta Kantabriako bideak moztu eutsezelako.

1.839ko urtean Loraillaren 13an zelan Guardaminoko gaztelua geratu zan ingurata, eta Marotok bertan egon zan Karreras zuzendariari aginduta, liberalari etsaimendu zedin gazteluak eukezan guda tresneri guztiakaz. Zelan liberalak arrapau ebezan gudariak, karlisten aldera bialdu ebazala baldintza onegaz: Ezin ebela izkillurik artu, arik eta eurak, beste ainbeste gudariekin truke egin arte.

Karlistek Gordejuelan, galdu eben Molinarreko gaztelu ta Guriezoko kañoigintzak.

Eta zelan espainitar gortekoak Esparterori, garaipenezko ekintza onen guztiagaitik "*Garaipeneko Dukea*" izendatu ebela.

1.839ko urtean Loraillaren 19an zelan Muñagorrik Auñamendiak aldatuta, Urdaxeko gazteluagaz jabetzen dala denboraldi baterako.

1.839ko urtean Loraillaren 22an Marotok, zelan asi zan antolaketak egiten, Franziko gobernukoak, artekaritzazko ardurak artu egiazan gudalozte bien artean, eta onen erantzuna ez ebalako on artu, inglesen billa asi zala, Uztaillaren 20an Lord Hay'ekin lortuta, bera artekaritza ori artu zedin.

1.839ko urtean Loraillaren 29an, zelan Esparterok, Balmasedan sartzen dala.

Eta zelan argi dagoela, emendik aurrera eta bai ariñago be, ez zirala geiago borrokatu bear, Vn Karlosek bere gudalozteetan uste aundia euki arren, eta ainbeste urte borrokazko alegiñean ibili ondoren, zalantza aundiak euki ebazalako bere barnean.

1.839ko urtean Bagillaren 28an, zelan I Luis Felipe erregearen izenean, Soutl Frantzez mariskala ipiñi ebela artekari lez, Vn Karlos eta bere emazte Beirako Dukesa espainitar erregetzari ukatu egien, ta eurak gura eben erbesteko etxe baten bizi zitezen, eta eurak uzte au ez ba eben onartzen, espainitarren kondea ta Cabrera gudal nagusiak sinatu egiezala erabagi oneik.

Zelan beste txatal batzuk be euki ebazala agiri orrek, Maria Kristina erbesteratu, eta bere alaba II In Isabel Karlosen seme nagusiagaz ezkondu, espainitarren errege izan zitezen; Euskalerriko Foru Legeak 1.830n urte arte orduko euki ebazan jabetasunean beti lez itxi egiezen; eta gudari karlistai euren maillakin, espainitar gudalozteetan le-  
rokatzeko almena emoten ebana.

Eta zelan alkar izketa oneik eta gero aipatzen diranak, ez ebela euki aurrerakuntzarik, Esparterok leen, eta espainitar gortekoak Euskalerraren menpetasun atzean ibili ziralako.

Zelan egizko arrazoiaren aurka, saldukeri ta indar bidetik, alan gertatu zala, indarra-  
ren keiñuagaz, guzur ta amarrukeri utsekin Esparterok, Euskalerrria menperatu ebalako.

Eta zelan gaurko Euskaldunak, gaiñean daukagun indarrezko guzur aundi ori dala,  
Europaren aurpegiaren egia aurkezteko argitu ta garbitu bear doguna, Euskaldun lez bizi  
gura ba dogu.

1.839ko urtean Uztaillaren 20an, zelan Marotok, Kantauriko itsas inguruak zain-  
tzen ebazan Lord Hay itsas untziren kapitaiñagaz berba egin ebala, Diego de Leon  
karlista gudal nagusiak Elliot'en ituna apurtu ebalakoan aitzakiarekin, gudalozte bien  
artean, ingelesaren bitarteko billa ibili zalako.

1.839ko urtean Uztaillaren 20an zelan Esparterok, Urkiolako San Antonio artzen  
dauala, karlistai atzeratuazota.

1.839ko urtean Uztaillaren 29an, zelan sortu zan Espartero ta Lord Hayen arteko  
alkarriketa, onek Esparterori aurkezteko Marotoren adierazpenak.

Zelan Esparterok on artu ebazala Marotoren eskeintzak, baiña Esparterok espainitar  
jaurkintzan aurkeztu ta gero erantzungo eutzala esan eutson. Eta espainitar gortekoak,  
Karlosen gudalozteak, Isabelen ama Kristinaren aginpean geratzen ba ziran, erantzun da.

Zelan alkarriketa oiek, karlista gudarien belarrietara eldu ziranean, Bera, Lezaka  
ta Urdaxen, Marotoren aurka matxinatu zirala.

1.839ko urtean Dagonillaren 19an, zelan Vn Karlos bera be salduta aurkitu za-  
nean, Maroto bere agintaritzan legeztu egiten dabela.

1.839ko urtean Dagonillaren 22an, zelan Espartero Durangon sartuta, alkarizke-  
tak azten dirala alde bietako gudal nagusien artean.

1.839ko urtean Dagonillako 24an, zelan Maroto, liberalaren gudal nagusi Zaba-  
lagaz alkartzen dala, Esparterorekin berba egin gura ebala esateko. Eta Marotok bere  
gudal nagusiekaz berba eginda, Vn Karloseri esan eutsola zelako asmoak euki ebazan.

1.839ko urtean Dagonillaren 25ean Elgetan, zelan erri agintari eta gudal nagu-  
siekaz egin zan batzarrean egon zala Vn Karlos, eta an inguruan egon ziran gudariai  
lenengo gazteleraz eta gero beste bateri aginduta euskerara itzultzeko berba egin eba-  
nean, Marotok gudariai keiñua eginda, gudariak Maroto ta pakea asi zirala aldarrika-  
tzen, eta Karlos laguntza barik ikusi zan ezkerero, Lekunberrirantza iges egin ebala.

1.839ko urtean Dagonillaren 26an, zelan Abadiñoko San Antolin baselizaren iz-  
ketan euki ebala lenengo ikustea Maroto ta Esparterok.

Eta elkargoaren baldintzak idatzi ziranean, iñork ez ebala siñatu gura, Maroto ezik.  
Zelan agiri onen zentzuak, Foruen baieztatzea barik, espainitar aberriko legearen adoz-  
tasunean etorrira: "*Sin perjuicio de la unidad constitucional de la monarquia*" esaten ebala.

1.839ko urtean Dagonillaren 27an izketaldiko arremanak apurtuta Marotok, zelan  
eskatzen eutson parkamena Vn Karloseri, eta ori egiztatzeko gudaloztearen prestakun-  
tza agindu ebala kristino gudaloztearen aurka.

De la Torretar Simonek baiña, Bizkaiko gudari-taldearen gudal nagusiak, ez eba-  
lako onartu agindu ori, or erabagi zala gudaren amaiera.

1.839ko urtean Dagonillaren 28an, zelan Marotok, iñoren laguntza edo baimenikgabe, de  
la Torretar Simon gudal nagusiarena izan ezik, ontzat artu ebala Bergaran egingo zan elkargoa.

1.839ko urtean Dagonillaren 30ean zelan Marotok, gudaren amaiera aldarrikatu  
ebala.

1.839ko urtean Dagonillaren 31n Bergaran, zelan alkartzen dirala Maroto ta Espartero, eta saldukerizko besarkada ondoren, Esparterori emon eutsoezala gaztelar bost batalloi, iru gipuzkoar eta Bizkaiko zortzi batalloi, Espartero bere aldetik, Foruak zaindu edo eraberrituko ebala eskeintzagaz.

Eta zelan baitzezko berba orreikaz, gure *“Foru Lege”* edo *“Lege Zarrak”* espainitar gortekoaren naikerizko borondatean geratu zirala, Espartero bera izanda lenengoa, bere espateagaz, Foru Legearen buruak moztuko ebazanak.

1.839ko urtean Iraillaren 3an, zelan Bizkaiko Aldundikoak, Elorrion oraindiño zortzi batalloi egon ziralako euren izkilluak emon gura ezean, Durangora aldatu zirala, Aretxabala gudal nagusiaz Foruaren gora beran berba egiteko.

1.839ko urtean Iraillaren 4an, zelan Dalloko apaiza bere gudariakaz Poblaziñoako errian errendatu edo etsaimendu zala, Bergarako egiune derrigorrez onartuta.

1.839ko urtean Iraillaren 10ean, zelan Nafarroako Aldundiak aldarrikapen bat egin ebala, sasi gudan ibili ziran taldeak aienatu edo ezereztu zitezen, garaitzaille gudal nagusi<sup>(1)</sup> *“Garaipenaren Dukea”*<sup>(2)</sup>, Espainako jaurkintza eta askatasunaren Foruko lurraldeen artean, artekari lanetan ibili zalako, Foru Legeak euren legean babestu edo eraberritzeko.

1.839ko urtean Iraillaren 14an, zelan Vn Karlosek guzti au ikusita, borroka uztea erabagitzen dabela, eta Dantxarinearik oraindiño leial eukezan Arabatar eta Napar gudariek, Añamendiko mugatik Frantzira aldatu zala.

1.839ko urtean Iraillaren 25ean Araban, Bergarako egiuneagaz babestuta, zelan errendatu edo etsaimendu zanean Gebaratarren gaztelua, amaitu zala Euskalerra ta karlisten alde geratzen zan azkeneko zain tokia, Euskaldunak euren etxetara joanda.

Zelan izan ziran Katalanak, Karlosen ikurra aurrera eroan ebena 1.839ko Dagonillatik 1.840ko Bagillararte.

Eta 1.839ko Urrillan Euskalerra gudariz beteta itzi ondoren, zelan Espartero 44.000 gudarigaz, Zaldubara joan zala, bere gudalategia Mas de las Matasen ezarrita.

Eta 1.839ko urtean Urrillaren 25ean eldu zirala Euskalerrira gure eraberritutako *“Foru Legeak”* bere txatal baten esaten eban araubide onegaz: *“Sin perjuicio de la unidad constitucional de la monarquia”*. Eta 1.839ko urtean Azaroaren 16an, gure Foru legeak guztiz ezereztuteko, zelan betiko diruaren Zuzendariak, Zuzendari Politikoagaitik aldatu<sup>(3)</sup> ebazala, eta euren diputadu ta senatoreen auteskundeak Euskalerrira luzetu ebazala, gure Foruen antolaketak guztiz aienatu zitezen.

Bai zelan, euren konstituziozko bigarren idazkunean, gure *“Foruak, espainiako erreinuaoren orokorrezko konstituzio edo iraspenagaz egokituta”* esaten eban.

*Eta gogoramen oneikaz sartzan gara IIIn Isabelen erregetzara.*

## ***2. -Aurkezpen oneik ikusi ondoren, Xn atal onen Euskalerriko edestien kondaira onetan: Bigarren ZATIA.***

### ***2. 1. IIIn Isabelen erregetza.***

VIIIn Fernandoren jaurkintzapean egin zan lantegi-gintza<sup>(4)</sup>, erria ankaz gora egon zanean egin zan, eta gaiñera bere inguru aldetik geien: Kataluña, Malaga, Sebilla, Balladoliz, Bejar, Alkoi eta abar.

(1) Garaitzaille gudal nagusi = invicto general. (2) Espartero. (3) Zuzendari Politikuak = los gobernadores civiles de hoy. (4) Lantegi-gintza = industrialización.

Lanerako euki ebazan buruzagi edo arduradunak<sup>(1)</sup>, auek begi txarrez ikusten ebe-  
zako gobernuko ministruak, ez eben artu emon onak euki.

*“Ministruak, bildur izando ote ziran, edo eukiko eben, eurentzako gura ebezan diruak,  
lanan arduradun langilleak eroan egiezen ?”*

-1.833ko urtetik 1.868ko urteraino izan zan IIn Isabel espainitar erregeiña, Vn Fe-  
lipek 1.713ko urtean asmatuta, ezarri eban Salikako legea, VIIIn Fernandok konstituzio  
barri orren laguntzan, Salikako lege ori ezereztu ebalakoai esker.

IXn alean aipatu gendun, IIn Isabelek umeetan ez ebalako euki azkuntza onik, bere  
ama naikoa euki ebalako bere maitaleekin.

Erlijio, etxekotasunezko ikasketak, eta pianoa jotzen irakatsi eutsoen geien, politi-  
kazo arloa ta edozein eratako umanismo edo elerti-ikasketak alboratuta.

Nai ta IIn Isabelek, IXn Pio Aita Santuaren baimenakin, Narbaez´tar gudal nagusi jene-  
rala, bere aitortle Klaret´tar Antonio Maria artx-apezpikua<sup>(2)</sup>, eta sor Patrozinioren aolkua euki.

IIn Isabelen jaurkintzazko gudal nagusiak, erregetzazko almen político geienak  
emon eutsoezan lege-biltzarrekoai, bitarte orretan, errigizarteen berezko eskubideak  
murriztuz, indarrezko jaurbideen gauzako gora beratan, sakonago sartu zitezen.

1.834ko urtean eta IIn Isabel erregetzazko aulkira igon barri egon zanean, espai-  
nitarrek, ia ez eben euki itsasontzidi edo gudaontzirik, bost korbet-ontzi eta ogei ontzi  
laguntzaille baiño. 1.820ko urtean aleginduta lurriñ-ontzi on bat<sup>(3)</sup> egiten, ez ziran  
izan gauza baiña, alango ontzirik egiteko.

IIn Isabel erregeiñaren denporan aldatuko ziran, itsas-ontzi oialetik, lurriñ-ontzi  
edo itsas-ontzi mekanikuetara. Biur edo biribil dabiltzen tresneri mekanikuekaz<sup>(4)</sup> edo  
arraun tresnekoari oratuz, oialezko tresneriak guztiz baztertze.

1.839ko urtean Dagonillaren 30ean Marotok, saldukerizko aldarrikapenagaz, kar-  
listen guda amaitu eban.

1.839ko urtean Urrillaren 25ean eldu ziran Euskalerrira gure eraberritutako “Foru  
Legeak” bere txatal baten esaten eban araubide onegaz: *“Sin perjuicio de la unidad cons-  
titucional de la monarquía”*.

1.839ko urtean Azaroaren 16an, gure Foru legeak guztiz ezereztuteko, betiko dirua-  
ren Zuzendariak, Zuzendari Politikoagaitik aldatu ebazan, eta euren diputadu ta seno-  
toreen auteskundeak Euskalerrira luzetuz, gure Foru antolaketak guztiz ezereztu ebazan.

Eta konstituzio orren bere bigarren idazkunean, gure *“Foruak, espainiako erreiniua-  
ren orokorrezko konstituzio edo iraspenagaz egokituta”* esaten ebana.

1.840ko Bagillan, Balmasedako alegiñak porrot egin eben orduan, Kataluñako  
guda gogorak be amaitu ziran.

1.840ko urtean “El Vascongado” izparrangia agertu zan, bere aldizkariko lanetan,  
“politiko ta merkantil” arloko barriak, zabaldu zitezen.

1.840ko urtean Urrillaren 12an, 1.810-1.813ko urtetan, Kadizen gudal nagusiak sorta-  
razita, ta eurentzat aurrerakoiezko konstituzioa izan zana, Esparteroren eskuetan ipiñi gu-  
rean, onek Maria Kristina beren errege ordegotzatik kendu eban, eta espainitarren jaurkin-  
tza artuten dauenean, ortik aurrera asiko dira gure Euskal Foru Legezko zauriak zabaltzen.

(1) Lanerako Buruzagi edo arduradunak = empresarios. (2) Bere aitortleri Antonio Maria Klaret artx-apezpikua, bere senarraren aitortleri Fulgenzio aita, eta sor Patrocino lekaiameak, IIn Isabelek asko ziñezten eutsoenai. (3) Lurriñ-ontzia = Barco de vapor. (4) Biur edo biribil dabiltzen tresneriak = con hélices o palas propulsoras como los remos, abandonando para siempre las velas.

1.840ko urtean Abenduaren 15ean espainitarren bitarteko agindu batek, Euskalerriko mugak, Ebro ibaitik Auñamendietara aldatzen dauz.

1.841eko urtean Urtarrillaren 5ean errege agindu batek, gure *“Foru Pasaia”*<sup>(1)</sup>, ezeztu egiten dau, Euskalerrria, espainitarren gobernuko erabagi ta agindupean ipiñita.

1.841eko urterako eleizak: 1.835eko urtetik Mendizabal eta Madozek asi eben “esku illetan” esan jakonai, edo ta eleizako ondasunaren salgai ipinteko askatasunak<sup>(2)</sup>, apurtuta euki ba ebazan diruaren kontrolezko antolaketa guztiak, eleiztarrek, euren ordainketarako euki eben jabetza edo eskubidetik, espainitarren gobernu menpe edo eskuetarara aldatu ziran, euki ebazan ondasun edo aberaskiak, eleiztarren eleizkizunezko<sup>(3)</sup> ordainketakaz.

1.841ko urtean Urtarrillaren 5ean errege agindu batek, gure *“Foru Pasaia”* ezereztu egiten dau, espainiarren gobernuko erabagi ta agindupean ipiñita.

1.841eko urtean Urtarrillaren 10ean, espainitar gobernutik agindu bat atara zan, Foru Pasaia desagertuta dagoela esateko.

1.841eko urtean Jorrraillaren 23an ostera ezartzen dira, Araba, Gipuzkoa, eta Bizkaiko Foru Aldundiak.

Eta espainitarrak egiten ebazan aldakuntza guzti oneik, 1.839ko urtean Urrillaren 25eko legeak, lurralde bakotzaren arduradunakaz alkartuta egin bear zirala esaten ebana, kontuan artu barik egiten ebazan.

1.841eko urtean Dagonillaren 16an espainitarren jaurkintzak, Nafarroako Aldundiren baimenagaz, 1.839ko urtean Urrillaren 25ean sinatu ziran egiuneko legeari ezeztu jaramonik egin barik, lotsagarritzko *“Ley Paccionada”* ezarri eban.

1.841eko Urrillan, Bizkaia, Gipuzkoa eta Araba Esparteroren aurka, O’Donnell matxintasunari lagundu eutsoen, Muñagorri be, bertan ilda, bere goiko kondairan esan doten lez, eta Espartero garaipenduz, ez eban galdu aurkeztu jakon aukera ori, *1.841eko Urtearen Urrillako 20 eta 29an, gure Foru Legeen antolaketa guztiak ezereztuteko*.

Zazpi urteko guda au olan amaituta, Maroto ostera artu eben, kristino gudalozteetan, gudal buru nagusi lez, eta gaiñera Marotoren etxeko kondea izendatuz.

Lenengoetatik argi ikusten diranak dira, Marotoren saldukeriak eta Esparteroren maltzurkeriak.

## ***2. 2. 1.840-1.844ko urte bitartean, Euskalerrriak “Bakearen orde”, menpeko legeekin ordaindu bear ebazanak.***

1.840ko urtean “El Vascongado” izparrangia agertu zan, bere aldizkarizko lana “político eta mercantil” arloetan azalkatzeko.

1.840ko urtean Urrillaren 12an Esparterok, 1.810/1.813an Kadizen gudal nagusiak sortarazi eben aurrerakoiezko konstituzioaren buruzagi biurtu gurean, Maria Kristina beren errege ordegotzatik kenduta, espainitarren jaurkintza artzen dau, eta ortik aurrera gure Euskal Legearen zauriak zabaltzen asiko dira, goian esan doten lez.

1.840ko urtean Abenduaren 15ean espainitarren bitarteko agindu batek, Euskalerrriko mugak Ebro ibaitik Auñamendietara aldatzen dauz, Pasajes eta Donostiako kayak zabalduta, zerga-arauekin ordaintzeko<sup>(4)</sup>.

(1) Foru pasaia = pase Foral. (2) Eleizaren ondasunak salgai ipinteko askatasunak = desamortización. (3) Eleiztarren elizkisuak = culto y clero. (4) Zerga-arauekin ordaintzeko = aranceles, o tarifa especial para la percepción de ciertos derechos, impuestos, etc.

1.841en urterako eleizak: 1.835eko urtetik Mendizabal eta Madozek asi eben “esku illetan” esan jakonai, edo ta eleizako ondasunaren salgai ipinteko askatasunak<sup>(1)</sup>, apurtuta euki ba ebazan diruaren kontrolezko antolaketa guztiak, eleiztarrak, euren ordainketarako euki eben jabetza edo eskubidetik, espainitarren gobernu menpe edo eskuetarara aldatu ziran, euki ebazan ondasun edo aberaskiak, eleiztarren eleizkizunezko<sup>(2)</sup> ordainketakaz, goian esanda dagon lez.

1.841eko urtean Urtarrillaren 5ean errege agindu batek, gure “*Foru Pasaia*”, ezerez-tuten dau, espainiarren gobernuko erabagi ta agindupean ipiñita.

1.841eko urtean Jorraillaren 23an ostera ezartzen dira, Araba, Gipuzkoa, eta Bizkaiko Foru Aldundiak.

Eta espainiarrak egiten ebazan aldakuntza guzti oneik, 1.839an Urrillaren 25eko legeak *lurralde bakotzaren arduradunakaz alkartuta egin bear zirala esaten ebana*, kontuan artu barik egiten ebazan.

1.841eko urtean Urtarrillaren 10ean, espainitar gobernutik agindu bat agertu zan, Foru Pasaia desagertuta dagoela esateko.

1.841ean Dagonillaren 16an espainitarren jaurkintzak Nafarroako Aldundiaren baimen edo ta laguntzagaz, Nafarroan lotsagarritzko *Ley Paccionada* ezarri eban, 1.839ko urtean Urrillaren 25ean sinatu ziran egiuneko legeari, ezeren jaramonik egin barik.

1.841eko Urrillan, Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabarrak Esparteroren aurka jokatutearen, O'Donnellen matxintasunari lagundu eutsoen.

Eta Espartero garaipenduta, beronek ez eban galdu aurkeztu jakon *1.841ean Urrillaren 29ko* aukera eder ori, gure “*Foru Legeak*” ezereztuteko, Bergaran ziñatu ebanari jaramon egin barik.

Zazpi urteko guda au olan amaituta, Maroto ostera artu eben, espainitar gudalozteetan guda buru nagusi lez, Maroto “etxeko kondea” izendatuta.

Euskalerrriaren aurkako, Marotoren saldukeri eta Esparteroren maltzurkeriak, asieratik argi ikusten ziran.

1.842ko urtean, 1.810-1.813ko urteetan agertu ta legeztu zan konstituzio edo jaurgo barria, espainitar menperatzaileen artean “aurrerakoia” zala esaten eutsoenari, aldatu edo ta eraberritu zan, menpekotasunaren arloa erindu edo guztiz argituta.

1.842ko urtean Uztaillaren 1ean de Luna´tar Julian´ek, Euskalerriko gizarte ta lurak beti danik espainitarrenak izan ba ziran lez, gure Foruaren legezko jarduntasuna barregarritu gurean ibili zan, euskal oligarka batzuen onerako ta espainitarren anai arrebakaz borrokan bakarrik ibilteko, balio ebala esanda, eta abar.

1.842ko urtean Iraillaren 11n, Espartero *Garaipeneko Dukeak*, gure Foruak babestu egingo ebazala esan arren, bere ezpatea atarata, gure euskal legearen buruak moztu ebazan leen, ekintza orregaz, gure goi maillako ikastetxearen zeregiñak, bigarren maillara beratuta.

1.843ko urtearen Bagillan Foruen gora berako leian ibilita, Esparteroren aurkako matxintasuna sortu zan, eta Euskalerrian, ia Esparteroren eritizizko lege orreik ezerez-tuten ba ziran itxaropentsu agertuta, Foru legeak berrezkuratzeko lanetan asi giñan, aukera ona zalako.

(1) Eleizaren ondasunak zalgai ipinteko askatasuna = libertad para vender los bienes de la iglesia. (2) Eleiztarren eleizkizunezko ordainketakaz = el abono de los diezmos y primicias.



Alegiñ guztiak, alper biurtu jakuzan, espainitar geienak, 1.812ko urtean guda buru nagusiak sortu ebezan, menpearen legezko eritzi orreikaz, adoz egon ziralako.

1.843ko urtean Urrillaren 10ean II In Isabelek 13 urte bete ebazanean, eta 14 urte baiño len adiñetan nagusi lez aldarrikatuta, Azaroaren 10ean konstituzioari ziñ eginda asi zan bere erregiñezko antolamenduaren epaiketetan.

1.843ko urtean Abenduaren 1ean Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako Aldundiak, gure Foru legeak berrezkuratzeko alegiñ gogorrean ibilita, eta espainitarren gorteko jaurkintzan aurkeztu eben jazarraldiekin, bat egin eben, II In Isabeleri, ezkutuzko meatxuan idatzitako eskutitz bat bialduta.

Eta erantzun ona esan leike euki ebala eskutitz orrek, 1.843ko urtean Uztaillaren 4an, ostera berrezkuratu egin genduzelako Foruaren Araudiak, neurri aundi baten beintzat.

1.844ko urtean Epaillaren 20an Jiron eta Ezpeletatar Franzizko Jabier, Ahumada-ko dukea, ta Nafartar guda nagusien alegiñakiñ, *guardi zibillaren taldea sortarazi eban*, eta Iruñan dauka oroikaria: “Navarra al duque de Ahumada” esaten dauana.

## 2. 3. *Lau urte onein ondorioa.*

1.839ko urtean Urrillaren 25ean ikusi dogun lez, saldukeri barragarri baten guda amaituta gero, Madrilleko gobernutik Euskalerrira bialdu ebezan eraberitutako gure Foru Legeak, bere txatal baten: *“sin perjuicio de la unidad constitucional de la monarquía”* esaten eban, eta beste idazkunean: *“Euskal Foruak, espainitar erreinuaren orokorrezko konstituzio edo iraspenagaz egokituta”*.

XVI In gizaldeko amaieran gaztelar gobernuakoak esaten eben: *“Los vascos no entran en la cámara de nuestro gobierno, porque son jentes de otra nación”*.

*Jakingo eben Gaztelarrak, zer esaten eben ?*

*Ala noz esaten dabe egia: Len, ala Gaur?*

*Ala iñoz ez dabe jakin, egia ta guzurra zer direzan ?*

*Erritarrak ez, eleiztar nagusi ta politikako aundiki batzuk bai beintzat.*

XIX In gizaldean espaintarrak baiña, euskaldunai euren gauza edo euren jabetasunezkoak izan bagiñan bezela artzen gaituez, ezereen begirun barik.

Argi ikusten dogu, euren menpeko edo norkerizko lege orreik, benetako sasi-jainko lege lez sinistuta euki ebezala denbora orreitan, *(eta gaur ere, ikusten dan lez)*.

Itsukeriaren zentzunezko indar, edo indarkerien itsuzko siñiste orreik, menperatzaile ta erlijioaren alkar bidetik agertu leikezelako bakarrik.

Orregaitik, Erroma-Godo Kaisartzen indarra, erlijio maillara igonda katolikotasunezko aberkuntz ikurragaz, eta ziñezkintzatutako itsu bidetik eroanda, norkeri aundiko asma men orretatik ezin leike beste gauzarik agertu, *Guzurraren ikurragaz agertzen direzanak, eta norkerien Urrezko Txekorraren gurtasunetik agertu leikezanak baiño, ez jakuz agertzen.*

1.840ko urtean Urrillaren 12an guda amaitu zanean Esparterok, Maria Kristina bere alabaren errege ordegotzatik kendu ebanean, liberal eritizizko guda nagusiak ezarri ebazan jaurgo barriaren menpeko legeen jaurkintzan, bera agintari nagusiko ardu-

rean ezarrita. Eta ortik aurrera gure jabetasunezko Foru Legeak ibili ziran alde batetik bestera, jantzan ibili ba ziran lez.

Esparterok ondo baiño obeto jakin eban, Euskalerrian guda indar bidez lortu ebezan garaipenak, ez ebela euki baliozko legetasunik, alan ta guzti baiña, aurrera egin eban ezeren adeitasun barik, Euskalerria euren jabetasunezkoa izan balitz bezela.

Orregaitik ikusten doguz, gure euskal edestiaren jabetasunezko erabagian lortutako *Foru Pasaiaren* legea ezereztuten, Nafarroako Aldundiaren baimenagaz *ley paccionada* ezartzen, eta gure *Foru Legearen euskal zentzuak ezereztuten*, ta abar.

Gure euskal bereztasunezko oituragaz sorturiko legeak baiña, euren norkeriagaz asmatzen dabezan menpetzail legeen aurkakoak diran lez, daukien maltzurrezko guda indar guztiagaz eta sasikatoliko ikurra elburu daroiela, nai ta ariñago asi, alkarte okergaitzo au, K.o. IVn gizalditik dabiz Euskalerria kolonizatu gurean.

Orregaitik, gure oiturazko lege gorputza aldatzeko, gogo guztiagaz egiten dabezan indarrezko epaikeri, ebaiketa edo moztaldiak, euren menperetzaillezko legeakaz ordezkatu gure dabez, egia guzurragaz naastuta.

Noz ulertu, guzorra egiagaz zorro baten sartuta, eztanda egiten dauela ?.

Ez dira konturatuten: Jainkoak bereztutako gai-Ludi onetan bizi gindezan, eta jantzi lez daukagun aragizko gorputz au, gure ARIMAREN moztaritasuna dala, bizitz onetan ikusi ta aurpegiz berba egiteko al izan gindezan, bai gizak daukan almen eta indar guztiagaz bizitzan, jan eta lan egiteko bear dauazanak tresneri biurtuz.

Orregaitik dira bardiñak, aldi guztiko denborak, nai gizarte artean, norkeriaren arrera aundiko itzurak ibili arren, gure gizatasunezko eginbear guztia *“Ekanduzko arloan amaitzen dalako”*.

*“Gai-Ludi onetan, gizaren denbora guztietako eginkizun bakarra, bear bearrezko zor-eskubidearen ordezeko ardurak, orekan bete, eta ondo zaintzea dalako”*.

Euskaldunak eta European bizi diran berezko erriak gure demokrazizko izakereagaitik ondo dakigun gauza da.

*Europa ta espainitar menperetzail batzangoaren zaletasunezko abertzale katolikuak, elduko ote dira mailla orreitarra ?.*

Leia ori, eurak konturatu arte izango da zalantzarik gabe.

Badagoz espainitar edestiari buruz, betikoa izan balitz legean, eta gaiñera, garaipenaren guzur aundiko zentzuan, idatzitako liburu asko.

Gauza oneik ziurtzeko baiña, nik Aguraineko Klaretiarren liburutegitik baime-nagaz artuta, aurrean daukaten liburutik artuko doaz bear dodazan zeatzasunak: D. VICTOR GEBHARDTk idatzita eta 1.863ko urtean irarritako “Historia General de España y de Sus Indias” VIñ atalean eta 1.013ko orrialdean asita esaten dauanakaz.

## 2. 4. *Espainitarren edestiko liburuetatik artutakoa.*

Biktorren liburu au, oso argi ta ondo zeatzuta dagon liburu da, espainitarren edesti ta izaeraren gora beran.

Bereztasun arloaren zabaleko Legeak, norkerian asmatutako legeakaz parean ezartzen doguzanean, oldozmen edo ta itzaren mugak, aukera argi ta garbiak emoten dauskue, espainitarren siniskera aberri lez, uste okerra dala adierazteko.

## 2. 5. *Liburuaren XXIV-XXV'eko txataletatik asita:*

-1.134ko orrialdera: IVn gizalditik asi ziralako, euskaldun, katalan, galiziar eta menperatzeko gure ebazan erdigizartearen lurra, espainitarren zaku edo zorro bar-diñean sartzen dabez, alan izan balitz bezala.

-1.277 orrialdera: Apostoluengandiko, katoliko, eta erromatar erlijioa izango dala betirako egizko erlijio bakarra. Bai?.

-1.294 orrialdea: Nai eta erregea, 1.812ko urtean Kadizen aldarrikatu zan konstituzioa edo jaugo barriaren legepean ipiñi arren, Erromatar katolikotasun agintari maillan, aundienetarikoa zala beren arrezazko zuketan<sup>(1)</sup> adierazten dau. Baiña, ainbeste borroka egin eta gero, iñoz lortu ote dabe ?.

-1.312 orrialdera: zelan 1.810/1.813 urteko bitartetik aurrera asten dira Laterritasun itzagaz berba egiten.

Itz barri orregaz argi ikusten da, eurok be ez ebela jakin batzangotasunezko merkataritz ta katoliko asmo orren jaurkintzari zelan deitu edo esan: Aberri, nazio, laterri, katoliko aberri, edo ta abar.

-1.320 orrialdera: Arbasoen aitalen erri, sorterri edo "patria" ta "patria católica"ren izenagaz asten dira berba egiten.

Gizaren edestian berba orreik, erri baten len-guraso sorkuntzatik edo arbasoen belauñ askoko alditik etorten diranak dira, eta itz orreik norkeriz mugatuta, edestia eurena bakarrik izan balitz bezala aurkezten dabe.

Geiagorik bear ote dabe, edo ta noz asetuko dira, "maltzurrezko fazizta lapur" edo ta asmatutako "sasiainko kaisar" orreik, bereztutakoen aztura bideko oituran ondo ipinitako izenagaz geratu zitezen ?.

Ez dira asmamen orreik txarrenak: euren norkerian, iñork ez dabezan ulertzen sasi legeak, Jainkoaren berezko Legeakaz sortzen dabezan txinpartakin gure dabez nastu, eta orretarako, gudaindar laguntzagaz baliatzen dira, nai ta odoljariozko zarraski baten izanda be, aurrera gure dabelako egin.

Gudal nagusi orreik, erregearen gaiñetik ezarrita, eta legezko arloari, egizko itxura apur bat emon gurean, erregea gura dabe izan daitela gizarteko maillan, nagusienaren itxurak egin bear dabezanak, eta okerrezko utsaldiak lenego ministruai leporatu. Baiña zelan izan lei ori, eurak ministruak ba dira ? *Ikusi gura neuke antzerki ori.*

-1.364 orrialdera: IXn Pio Aita Santuak IIñ Isabelekin ospatutako eleiz ongunde edo itunean, katoliko erlijioagaz nastu egiten da dan guztia, eta ez edozelan, Jainkoaren izenean egiten dabelako, argi ikusi dagigun, espainitarrak, katolikotasun aberkidetasunagaz daukien itsukeria.

Naste guzti au ikusita, arritu egiten gara, Frankok, Giputz ta Bizkaitarrai judas edo saltzaillearen izen gaiztoagaz zigortzea ?.

## 2. 6. *Denbora orreitan espainitarrak: "aberri lez egiztatu egiten dabe euren espainitar katolikotasuna".*

1.-*Biktorrek*: espainitar izen ta izaerazko asmamenari buruz, euren erri-biozkada azaldukerian, espainitar Laterria, espainitar aberri katoliko lez aurkezten dauskue.

(1) Zuketan = en el trato de usted.

2.- *Espainitarremtzat*: Laterritasunaren adimuga<sup>(1)</sup> ori, guztiz jauntzarra<sup>(2)</sup> dala esaten dau Bittorrek, bere adierazpenetan.

Espainitarrentzat *Laterritasunezko* itz orrek, irunsi egiten dabezelako eurak daukien aberri katolikuen eskualdiak<sup>(3)</sup>.

3.- *Biktorrek gaiñera*: espainitarrak minduta geratzen dirala esaten dau, Laterritasunak eurei, ezaren edo ukapeneko<sup>(4)</sup> ziurtza aurkezten dautselako daukien katolikotasunaren aberkidetasunezko asmoetan.

## 2. 7. *Iru azalpen edo adierazpen onei erantzuna emoteko, len jakin bear doguna:*

a) IVn gizaldian, Europa Asia ta Afrika guztia, aberri-katolikotasunean batzangotzeko asmakuntz fazizta eritzi ori abiadan ipiñi ebenetik XIXn gizarteraño, nai ta indarkeri asko ibili arren, azken gaiztoa edo porrokatuta ibili dala beti.

-Berezko lege, eta asmatzen ziran menpeko legeakaz sortzen zan naste gogor orreitan, batu baiño, zati geiagotan banatzen ebazalako erri ta izkuntzak.

-Bizitzaren bereztasunezko ekintzatic sortutako izkuntzezko errigizarteak: erromatarren basakerizko borroka bidetik menperatuta, erriak zatitu ondoren, ainbat latin kume edo ta zentzunbako izkuntz agertu ziralako.

-Jainkoaren Legeetatik alda eziñean, eta daukiezan asmoak beteteko, beti ibiliko dira, Erroma ta katolikotasunen norkerizko menpekotasunakaz, errietan sortzen diran nasteakaz baliatzeko.

-Gure zuzentasunezko ekintzagaz, beti garbitu egin bear doguzenak, euren zentzuzko lekuetan ezartzeko, Jainkoari begira eta bereztasunezko ekintzan sortuta daukaguzan izaerazko nortasunakin aurrera egin gura ba dogu.

-Ez dira konturatuten, bereztasunaren zentzuz kanpo dabilzan gauzak, berezko legeetan baieztu bear direzala, lege orreik ez dabelako onartzen ainbeste maltzurrezko guzur ta okerkerizko lege-asmorik, maltzurkerizko eran egindako lege orreik guzurrezkoak eta lapurrak izanda, naikerizko edo norkeriaren arrazoi txepeletan biurtzen diralako.

b) XIXn gizaldirarte, Europa edo ta Ludi au batzangotezko, aberri katolikotasunezko asmakuntzan porrot eginda gero, orrarteko erromatar menpeko legeakaz diruaren domu zaleen, edo merkantil kapitalkerizko asmakuntz ori aienatu edo ezereztu ez egien<sup>(5)</sup>, mundu osoko batzangotasuna alboratuta, gaur daukaguzan laterritutako lurralde txikerretan joan ziran Europa batzangotzen, gizaren nortasuna ta izatasunaren eskubideari iñoz begitu barik.

Eta 1.789ko urtean ori lortzeko, katolikoaren aolkularitzagaz fazizta indarrak batura, Frantzia iraultzatu eben, beste lurraldetara zabaldu egiezan batzangotasunaren indarrezko alegiñ orreik.

d) *Bai ta orduko errietan, epaiketaren lanak norkeriz erabagitzeko, berezko errien nortasunezko bizitzak, jaun ta erregearen antolamenduzko ongundepaan egon ba ziran lez:*

-Sasi katoliko espainitar, frantziar, ingelesdar, alemandar, eta Europako eritzi katoliko fazizta orreik euki ebezanak, munduko lurralde kolonizazioaren gudu indarrezko ekintzan menperatu ebezan antzera, kolonizaziozko laterri orreitan banandu ebazan Europako lu-

(1) Laterritasunaren adimuga = cualidad o sentido moral que se le da a la palabra ESTADO. (2) Jauntzar = déspota, tirano. (3) Eskualdi edo Esku-arteak = bienes, recursos, medios de subsistencia. (4) Ezaren edo ukapen = acción o efecto de negación. (5) diruaren domu-zale = aficionado a capitalizar dinero. Edo, mercantil kapitalkerizko asmakuntz ori, aienatu edo ezereztu ez egien = para que no desaparezca, o se deshaga ese sistema capitalizador que tanto ansian algunos.

rraldeak, errigizarteen diru ta ardurak, sasikatolikoek batzangotasunezko araudipean aurerra eroateko, eta bereztasunezko erri ta erri orreine nortasunezko eskubideak zapalduz, sasi-asmakizun orren zalegarrikerian nortasundu gindezan, egiten dabez alegiñ guztiak.

Orreik dira gaur egun, Europarrak, Nortasunezko arduratik kanpo daukaguzan arauak<sup>(1)</sup>, ezer aldatu barik. Laugarren gizalditik gaur arte, ez dalako aldatu eritzi orren ezerezeko ekintzarik.

## 2. 8. *Lenengo azalpenari erantzunda:*

Katoliko itza nundik nora da berezko erri edo ta aberri baten adierazle. Ala mundu onetan, anka z gora ibili geinke?.

Izadi ontan, AITAREN ondorengotasuna, asmatutako edozein itz baragarriekin mugatu leikena ote da?.

Berezko erri ta izkuntzakaz, lendik daukaguz naste ta banakuntza naiko eginda, oraiñ izkuntzaren iztegiakaz azteko.

Laterriak, aberriak ote dira ?. Laterritzko itz orrek, *EGOKERA* edo *EGOERA* esangura dau, bai *EZARPENA* edo *JARKERA* be<sup>(2)</sup> bakarrik.

Espainitar faziztak, “*Nacional catolicismo del estado Español*” edo “*estado catolico nacional español*”, euren gurutzada santuaren bidetik esaten dabe dala ao zabalagaz.

Eta esaera ori, nortasunezko aberritasunaren adierazpena ote da?.

1.789ko urte ezkeroztik esaera ori, 1.810/1.813ko urte bitartean espainitarren izenean, konstituzio barritik sortuta, aurrerakoiezko jaurgu barria zala esaten eutsien euren ustez espainitarrak ziranai, eta 1.823ko urtetik VIIIn Fernandori konstituzio ori, indarrez sinatzen beartu ebenetik ona da.

Esaera ta asmo orreik, adiñezko lengotasunaren ezean aurkezten ba dira, zer dira eurak aberriko senditasunean, millaka urteak daukiezan izkuntz ta errien aurrean ?.

Berezkotasunaren bizi ekintzan eraikita, edo ta sorturiko izkuntzagaz nortasundutako errigizartearen aurka, asmakuntzan sorturiko erriak aurrerakoiezkoak dirala esaten ba dautsoe be, jaurgu edo konstituziozko erri edo ta aberri maltzur barri orreine arteko bitartea, Nortasuna eta norkerien artean dauan bitarte lakoa da.

## 2. 9. *Bigarren azalpenari erantzunda:*

Espainitarrak, laterritasuna eurentzat, jauntxarra dala esaten dabe. Laterritasunak irunsi egiten dabezelako eurak daukiezan aberri katolikoaren eskualdiak<sup>(3)</sup>.

Mundu fisiko onetan, sagarrak meloiak ote dira ?.

“Laterritasunaren” itza iztegian begituta: Gizaki edo gauza baten ezarpen edo egoerea esangura dau, beren izaera, egin leiken edozein aldaketara lotuta dagoelako.

Eta adimuga orrek, ze ikusmen ete dauka, jaioterri edo ta Aitarene ondorengotik etorten diranakaz ?.

Argi dago, *laterritasunak* ez daukala ezer ikusirik *nortasunezko aberritasunagaz*.

(1) Arauak = conjunto de leyes, o, sistema de gobierno, fuera de la personal peculiaridad de los hombres-mujeres que habitan ésta Europa y Mundo. (2) Estado, o situación = egokera edo egoera, eta jarkera edo ezarpena. (3) Eskualdiak = amplitud de recursos.

## 2. 10. *Irugarren azalpenari erantzunda:*

-Espainitarrak, minduta geratzen dirala esaten dau Bitorrek. Eurak, katolikotasunezko aberritasunean daukien asmoari, Laterritasunak, ziurtzaren eza aurkezten dautseelako.

-Orduan, umeak edozer gauzagaitik asarratzen diranean egiten jakien antzera, “*piruli*” edo gozokitxo bat emon bear ote jakie ?.

-Laterritasunak, Aberriarekin ez badauka ezer ikusirik, espainitarrek, zergaitik eskatzen dabe: sua, lerrauts edo bolboragaz alkartzea lez bezala dana, euren esangureko mugaketan oso ezberdin diran itz bi orreik esangura baten alkartzeko ?.

-Mundu onen goimaillako jakintsuenak, edestian ainbeste norkerizko nasteekin, baitazko zentzuan ganorabakotu ote dira ?.

-Nik badaukat lagun bat, amamari iletargia eskatzen eutsona.

## 2. 11. *Toledoko kaisartza edo Toledoren kaiserkeria.*

Espainitarrak antza, daukien aberritasunezko katolikotasun ori, naiz ta erromatar godeen katoliko asmakuntzatik etorri, PPko alderdiaren Kospedaltar andreak euren gazteai ta telebistan esaten eutsoen lez: “*eurak badaukiela uri edo toki sakratu bat, aztu bear ez dabena: “Toledoko Kaizartza” edo “Kaizertzazko Toledo”.*

-*Toledo*, erromatarrengandik izan zan ardurazko Uria, bere inguruko erritxoen artean.

-*Garrantzi aundikoa baiña*, Leobijildok Bisigodo erregetzaren Uri Nagusi lez izendatu ebanetik aurrera da, ta baita, 589an I Rekaredok, IIIIn Eleiz Batzar Nagusia ospatu ebanean, Toledo erreñu lez izendatuta geratu zanetik.

-*Bere erritik*, edestian aldatu diran jendekuntz guztiak itzi dabez euren etxegintz lanak berton.

-*Orregaitik da* etxe bikain askogaz beteta dagoen Uria. Eta baleiteke, beste alango Uririk munduan ez egotea.

-*Bisigodoak*, ainbat Eleiz Batzar Nagusi ospatu ebezan Uri orreitan, 932ko urtean IIIIn Abderramanek menperatuarte. Eta 1.085eko urtean VIIn Alfonsok moruengandik askatuta, orduko denboretatik iraun ebana bere Uri nagusitasunean, I Karlos´ek gobernu Madrillera aldatu arte.

-*17 izan ziran Toledon ospatu ziran Eleiz Batzar Nagusiak*, erromatar deboratik 400 eta 527ko urtetan katoliko-aberritasunaren eleizarenak bakarrik izanda, eta 589ko urtean I Rekaredok ospatu eban irugarren eleiz-batzarretik, garrantzi aundiago euki ebezanak.

-*1.520-1.522 urte bitartean, Toledo izan zan I Karlosen aurka*, erkidegoaren gudak<sup>(1)</sup> bideratu ebazanak.

-*Eta I Karlosek arrezkeroztik*, Toledo, ia bere bizi guztian eukinda katolikotasunaren aberriko kaisertza lez. Bere maldabera, I Karlos´en gorteak, Madrillera aldatu ebazanean asi zan.

-*Orregaitik*, Toledo naita arberatutako<sup>(2)</sup> izatasunean egon arren, eleike arritzekoa izan bear iñorentzat, espainitar-katoliko-aberri lez asmatutako batzangoaren menpetasunezko irudi ori Toledon eukitea gaur be, euren jabetasunezko<sup>(3)</sup> kaisargoaren irudi lez.

(1) Erkidegoaren gudak = guerra de las comunidades o de los comuneros. (2) Arberatutako = agusanizado. (3) Euren jabetasunezko = que lo consideran como de su propiedad. Cuando en éste Mundo, nada puede ser de nadie, cuando la responsabilidad debe de imperar como ley que emana la Creación.

Katoliku edo espainitarrak, ezer zuzendu barik edestitik zear ekarten dabezan ainbat maltzurrezko guzur lodiai, oraindiño menperatzail ta aberats faziztaren artean, indar guztia emoten dautsoelako.

*-Euskaldunak.*

Euskaldunak edesti guztitik oraiñarte, zazpi lurraldeetan murriztuta geratu bagara be, iñork ez daukue izaeraren nortasunetik ezer kendu, eta gitxiago eskubidearen jabetzatik, euren eskuetan ez dagolako alango almenik.

Eta naita frantziar eta espainitarrak euren lurraldeak dirala esan arren, or erdian daukie Euskalerrria, bere eskubideak aldarrikatuz gain, bere jabetasunagaz begirunea eukitea eskatzen dauana. Euskalerrria eskubidearen jabeduna dalako, euren naiaren aurka.

Laster izango dana, giza bizitza amiltegiaren ertz edo ta leze bazterrean kokatu egin ondoren, gure mundu onetako eginkizunak beartuta agertzen dira aldaketa sako-nak egitera, ertz edo leze bazter orretatik urruntzeko.

Eta *“bereztasun”* orretara itzultzeagaz, gai-gizaren eskubideetara itzultzea esan gura dauan lez, adi egonda, or berrezkuratuko doguz ostera, gure berezko eskubideak.

## **2. 12. *Euskalerrriko edestiaren aria ostera berrezkuratuz, 1.844-1.860ko urte bitartean, edestilariak esaten daben IIIn guda karlista asi ta amaitu zala.***

1.844ko urtearen Loraillan, Narbaeztar Ramon Maria izendatzen dabe espainitarren jaurlariko lendakari, eta ortik aurrera asi zan, espainiartren gortean burudunezko amarkada esaten jakonari ?.

Maltzurrezko lapurretan egiteko izan ezik, iñoz euki ote dabe, zentzunezko gauza bat egiteko bururik ?.

1.844ko urtean Uztaillaren 4an espainitar jaurkintzaren erregetzazko agindu bate-gaz, ostera lengoratu egiten dira Foruen lege batzuk.

Argi ikusten da aldi onetan, gure Foru Legeak, espainitarren apetalde ta naikerira ibili zirala, espainitar gobernukoak menpeko legeen zentzu orreik guzurrezkoak izanda, ez ebelako jakin zelan ezarri. Guzurra, norkeriaren maltzurtasuneko gauza izanda, gatz edo ezinezkoa dalako egiaren artean ezartzea.

Antza, euri be begirune andia emoten eutsen maltzur ta guzurrezko arrazoi galantakin ibiltea, euskal nortasunaren izatasunezko oituran daukaguzan legearen aurka.

Eta 1.845eko urte oneitan asten da bigarren guda esaten eutsoenari, guda bat baiño, ainbat basoetatik edo bas-guduxkako borrokaldiak izan ziranai.

Kataluñan egin ziran geien, lenengo txandan, Kabrera ta Griñotar Ramon, eta bigarren ekitaldian, Tristany Ros de Eroles, Borjes eta Billela buru izan zirela, euki ebezan 70.000 gudariakaz, liberalaren gudalozte andiaren aurka.

1.845eko urtean Urtarrillako 1ean espainitar Konstituzio edo jaurgo barria anto-latu zan.

1.845eko urtean Vn Karlos Maria Isidrok, bere seme Borbon eta Braganzatar Karlos Luis<sup>(1)</sup> Montemolineko kondearen eskuetan itzi ebazan bere erregetzazko eskubide guztiak, onek VIIn Karlosen izena artuta.

(1) Borbon eta Braganza tar Karlos Luis, 1.818an Madrillen jaioa eta 1.861eko Urtarrillaren 13an Brouseen il. VIIn Karlosen izenagaz esagutu zana.

1.845/1.849ko urte bitartean, VI In Karlos Luis onek, 1.846ko urtean II In Isabel bere lengusiñagaz egon ziran ezkontzeko asmoak apurto ondoren, Cabrera ta Griñotar Ramon karlista gudal nagusiagaz Kataluñan matxinatzen da.

1.846ko Iraillan karlistak itxaropentzu, Kataluñan matxinatzen dira *Matinersen guda*<sup>(1)</sup> izendu zanagaz.

1.846ko urtean Iraillaren 14an VI In Karlosek, Euskaldunak matxinatu zitezen alegindu zan, baiña ez eban artu erantzunik.

1.846ko urtean espainitar gobernukoak II In Isabeleri 16 urte euki ebazanean, ezkontza antolatu eutsoen, bere bi aldeetako len maillako legusua zan Borbon ta Asis´tar Frantzizko Kadizeko dukeagaz. Mutillen aita Paulado Frantzizko, VII In Fernandoren anaia zalako, eta bere ama, Bi Siziliako Borbon´tar Luisa Karlota, Maria Kristinaren aizta zalako.

II In Isabel´ek ezkontza onegaz, nai ta seme alaba asko eukin, ezkontzaren leenengo egunetik, ez eban ezagutuko zorionik, artu eban senarra, omo-seksukoi edo ema-gizona zalako.

Eta ortik aurrera bere bizitza, eten bageko jai bat izan zan, goizeko 5etan ogeratuz eta arratsaldeko 3retan jagi, bere gogoko maitale ugariekaz ibili ta gero.

Ezkon-gai edo senar-gai asko euki ebazan, European, urdurik egon ziralako ezkontza orrek euki eban garantzi aundiagaz.

Gauza bategaitik edo besteagaitik baiña, danak baztertu ziran, arik eta bere alde bietako leen maillako lengusua, Borbon´eko Asis´tar Frantzizko aurkeztu arte.

1.846ko urtean Urrillaren 10ean ospatu zan Madrillen ezkontza ori, errege jauregiaren jaur-alkiren gela aundian, II In Isabelek 16 urte eukazala. Bai egun orretan eta leku bardiñean, bere aizta Borbon´tar Luisa Fernandaren ezkontza be, Orleans´tar Antonio Montpensier´eko dukea, Frantziko errege izan zan I Luis Felipe erregeen semearekin, II In Isabelek, ez eban ikusten bere senarra begi onekin, idazle batzuk esaten daben lez, maritxu antzeko bat izan zalako.

Eta lenengoetatik erakutsi eben biak, bata bestearen arteko etsaigo edo eziñ-ikusi antz bat.

Dana dala, II In Isabel eta bere senar Borbon eta Asis´eko Frantzizko izenean, ama-bi alaba semeak euki zituzen, nai izan naiezko seme alaba batzuk, aurgaltze ta jaio barri ildakoak euki. Aurbide edo sabelaldi geienak, gaueko jaialdikoak izan zirenak.

Amaren alaba-semeetatik, lau baiño besterik ez ziran eldu euren adiñetara: Isabel; XII In Alfonso; Maria de la Paz; eta Eulalia.

Aurretiko ekintza aukerak eukinda, erriaren askatasunezko demokraziaren arloetan bere jaurkintza, porrot aundi bat baiño besterik ez zan izan, erakundeak maltzurto ondoren eta auteskundeen antolakuntzak, usteltasunezko gaiztakeriz goralduta ezin besteraiño, beti irabazten ebazalako antolatzen ziran auteskundeak.

II Isabelen erregetza, Gaztelar edo espainitarren jaurkintzazko edestian, usteltasunezko gaiztakeriz, kirats aundiena emon dauen gobernua izan dala esaten dabe. Nire baitari, lan aundia emoten dautsona sinisten, 2.018ko gaurko urte onetan, PP´koen jaurkintza ikusiz.

Eta jaurkintzazko arduradunetan aldakuntzak egoten ba ziran, beti izaten ziran gaurko lez, jazarraldi edo gudal nagusien matxinadarekin, edo ezpatakaz ataraten zan zaratarekin.

(1) Matiners´en guda = guerra de los madrugadores.



Gaiñera, erregiñeko gorteen jaurkintzazko ministru ta erlijioakoak ondo erabili ondoren euren zirikitasunak, gobernuaren barren-barreneraño ibiltzen ebazan, eta IIn Isabelek, askotan sartzen zalako gobernuko gauzatan, bera leen ministru lez aurkeztu ondoren, maldaberan joan zan IIn Isabelen jaurkintza ori, arik eta jaurlarikoen asarre bidetik, 1.868ko “La Gloriosa”ren iraultza agertu zan arte.

1.848ko urtean Bartzelona Mataroko trenbidea zabaldu zan.

1.848ko Bagillan, Cabrera guda nagusia Kataluñan sartzen da, eta guda bizkortu eban.

1.848ko urtean Uztaillaren 2an Alzaa´tar J.J.ek, euskaldunak matxinatzeko alegiñetan etorri zanari, mikelete eta guardi zibillek arrapatu eben, eta len karlista ta orain jaurgo edo konstituzioaren alde egon zan Urbiztondo guda nagusiak aginduta, Uztaillaren 3an tiroz il eben.

1.848-1.849ko urte oneitan, ainbat alegiñ egin eben euskaldunak gudarako antolatuten, baiña eziñean geratu jakiezan alegiñ orreik, eta Billalonga ta Urbiztondo espainitarren guda nagusiak izan ziran, gudaloztearen antolaketa bardiñ orreitan ibilita, odol askoko fusilamendu ta itsas osteko erbestaraldiekaz, ezereztu ebezanak matxintasan orreik.

1.848-1.851eko urte artean, eta 1.853-1.855ko urte bitartean, Mariano Roka de Togores´tar Karrasko, zama-ontzi ta itsas-gudarien ministrua zanak, itsas-ontziren antolan sartuta, egitamu gogor baten sartu zan, guztiz ez zana bete, baiña beste ministruak arduratu zitezen balio ebela esan eben, egon ziran itsas-ontzidiren itxitasun aunditik urteteko.

1.849ko urtean Jorraillaren 7an Urbiztondok, Euskalerritari ezarri eutsozan guda legeak amaitutzat emon ebazan. Eta ia batera, Kataluñako *matinersen guda* amaitu zan.

1.851ko urtean Bilbon, Eustakio ta Delmatar Juanek “Irurac Bat” aldizkari politikua sortu edo irasi eban.

1.852ko urtean Otsaillaren 2an Madrillen Atotxako eleizan IIn Isabelek, bere jai barriko alabea aurkeztu eutson Ama Birjiñari, eta urteeran 63 urteko Merinotar Manuel Martin apaiza, bere aurrean belaunikotuta, ta ezker eskuegaz agiri bat erakutsita, eskoiagaz aizto batekin zauritu eban IIn Isabel, eta atxilotu ondoren, Otsaillaren 7an ukamendian urkatzeko garroteagaz il eben.

*Merino apaiz onek, ez eukan ezer ikusirik Merinotar Jeronimo apaiz basa gerlariagaz.*

1.853ko urtean Bilbon “El Avisador Bilbaino” izparrangia agertu zan, Bilbaoko etorkizunakaz arduratzeko.

1.853ko urtean espainitarren erregetzazko agindu batekin, ostera itzultzen dira Euskalerriko Udaletxetara 1.841eko urtean baiño ariñago euki ebezan legeak.

1.853-1.854ko urte oneitan, IIn Isabelen erregetza, zar-berritze edo berrikuntza arloetan, bultzakada aundia artu eban, tren edo su-gurdiaren bideak zabaltzen asita, erdiugarte onen Uri arteko urruntasunak, murrizten asi ebazanean.

1.855eko urtean, emaitza txarrak emon ebazan, Madoztar Paskualen azkeneko “ondasunaren askatasunagaz”<sup>(1)</sup>: laterriaren zorrak ez ebalako garbitu, Udaletxeak ondatu edo lurreratu, eta nekazarien itxaropenezko erriko lurra andikien eskuetara aldatu ebazalako.

1.855eko urtean IIn Isabelek, bere aitak ertsi edo giltzatu ebazan goi maillako ikastegiak, zabaldu ebazan. A ta guzti, aurrera begira ikusten zana, negar egitekoa zan, urte oneitan espainitar lurraldean, 6.000 erri egon ziralako eskola barik.

(1)Ondasunaren askatasuna = desamortización.

1.855eko urtean aldarrikatu zan, burnibide edo trenbideak egiteko legea. Eta urte berean egin ziran antolaketak, trenbide ori, Madriletik Irunera egiteko.

1.855eko urtean Bagillaren 3an, trenbidea, Gazteizera eroateko gogoratu ziran, azkenean baiña, Ebroko Mirandara eroan eben.

1.855eko urtean Bilbon, “El Boletin del Comercio” ren izparrangia agertu zan.

1.855eko urtean Epaillaren 10ean Triesten il zan Borbontar Karlos Maria Isidro, Molinako kondea, Vn Karlos izenakin ezagutu zana.

1.856ko urtean, “espainiar diru etxea” sortu zan, San Fernando diru etxearen ordez.

1.856ko urtean Bilbaon, “El Liberal Vizcaino” ren izparrangia agertu zan, bere ostean Diario de Anuncios agertuta, gai ezko<sup>(1)</sup> ta ekanduzko arloetan arduratuko zana.

Orduko denboran, nagusien arteko asmakuntzaren arloetan, aberastuteko euki zituzen berotasunezko gogoak, ez eban euki zerikusirik erritarren artean sortzen zanagaz.

1.856ko urterarte egin ziran gauzak: 1.848ko urtean Bartzelona-Mataro suburbien bidea; Salamankako markesak Madriletik Aranjuezeraiño egin eben su-gurdien bidea; Maria Kristinaren gizona Riansareseko Dukeak egindako Jijon-Langreo trenbidea, Balentziaren Jatibakoagaz batera.

Baita gauza okerrak egin be, bide auek euki eben mendizka okerragaitik, egin eben su-gurdiaren bideen zabaltasunak, Europaren neurritk kanpo egin bear izan ebezalako, eta su-gurdien geltokietarako bideak bertan itzi bear izan ebazan, diru arlo orreitan, irabazpide lanetatik, ondameneko lanetara aldatuta.

Garrantzi aundiko ur-zapailuak<sup>(2)</sup> be egin ziran, Juan Bravo Murillo eta Manuel Alonso Martinez II In Isabel ministruetatik asita, II In Isabel ur-askatik<sup>(3)</sup> egin ebenagaz.

II In Isabelen erregetzan, errilantetan egin ziran alegiñak, nai buru askorekin egin barik eginda be, aundiak ziran: bideen egikerarako egin ziran antolaketak, mendien alboetatik errekek aldatzeko zubiak, eta itsas-ertzeko bideak euren kokamenakaz egitea, gaiztoak ziralako.

1.858-1.863ko urte bitartean, II In Isabelen atzerrirako politikea, oso artega edo eziñ egonekoa biurtu jakien, euken Liberal Batzangoen gobernuagaz.

Afrikako gudan eta bere Iparraldean, eureganatu egin ebazalako Marrokuen lurraldeak, Ifni ta Tetuan bezelakoak. Eta XIXn gizaldian edo ta 1.843ko urtetik, jabetasun barik egon ziran Ginearen ur-kolkoko Fernando Poo, ta Annoboneko ugarteakaz geratzeko.

1.858ko urtean, atzerrian egon ziran espainitarrai, gobernari edo agintari bat bialdu eutsoen, eta Afrikako Ginearen ugarte orreikaz batera, Afrikaren Beko-Sajararen lurraldeekin be jabetu ziran, 1.960ko amarkadararte iraun ebena, lotsabageko ongunde bategaz, bereztasunezko jabetasunekoai emon barik, marrokotarrari emonda, laterritasunen arteko lege-lapur eta fazizta bitartez.

Kontxixinan edo gaurko Bietnan´en bertoko giza-semeak, espainitarren lurraldeetatik bialdutako *mixiolari*, *eleiz-izlari* edo ta *predikari batzuk il ebezan*, Frantzia ta espainitarrek gudalozteakaz erantzun ebena, eta *Kontxintxinan*, *Frantzia ta espainitarren guda* izenagaz ezagutu zana, Saigon menperatu eben.

Espainitarrek, Filipinaseko gudariakaz borrokatu ziran, eta guda sari lez: Tuloj, Balaj, eta Kuanjan´eko kai´en salerosketako eskubideak artu ebazan, gudarako erabi-

(1) Gaiezko eta Ekanduzko gauzatan arduratuko zana = que se preocuparia de las cosas materiales y morales. (2) II In Isabelen ur-askatik asita = comenzando por el canal de Isabel II. (3) II In Isabelen ur-askatik = canal de Isabel II.

li ebezanak gastu-kontuen ordaiketak egiteko, eta erlijioaren arloetarako, elizkizunen askatasunak baiño besterik ez eutsen emon. Frantzezari, iru lurraldeen jabetasuna<sup>(1)</sup> emonda, gero, Indotxinagaz jabetzeko, aukerea emon eutsena.

1.858ko urtean eta erdiugarte onetan, etorkizun illuna ikusten zan ikasteko maillatan, bigarren maillako ikasketetan, 53 ikastegi egon ziralako bakarrik, danetan 10.000 ikasle eukinda. (Frantziak, erdiugarte onek baiño, erdi erritar baiño gutxiago euki zituzenarekin, 5 bider ikastegi geiagoko kopurua euki eban).

Espainitar goi maillako 10 ikastegietan 6.104ko ikasle euki zituzen: Oviedo-Salaman-ka 100, euren lau ikas-sailletan. 3.472ko erdiak baiño geiago lege-jakintza ikasten egon ziran.

Ikasleak ikasteko euki zituzen jendekuntzazko tresneriak beargorritasunezkoak ziran.

Ikasteko egin ziran alegiñak, Julian Sanz del Rioko esanetan, Krausismoaren zentzuz<sup>(2)</sup> asmatuta egon ziran ikasketak, debekatu ebazan.

1.859ko urte inguruak, zorigaiztoko urteak izan ziran Jendekuntz maillan, espainitarren lurraldean 56 erriko liburutegi egon ziralako bakarrik: Bilboko 854 idatzitako liburuekin; Santanderrekoa 610 liburuekin; Segobiakoa, 194 liburuekin; eta Uelbakoak 60 liburuekin.

1.859ko urtean egin zan Tudela-Bilboko su-gurdi bidea.

1.859ko urtean ainbat alegiñ egiten dira, atzerritik karlistaren gudal nagusiak matxinatu zitezen, eta 1.860ko urterako epetu zan erabagi au.

1.959ko urtean, Afrikako gudan, Marruekosek, Melilla ta Zeuta erasotzen ebazalako, O'Donell'tar Leopoldok, espainitar gudalozteko agintariai geldirik egon zitezen esanda, ainbat igon ebazan euren gudalozteko agintari maillan, beste ainbat zingolatu<sup>(3)</sup>, aundiki izenakaz saritu<sup>(4)</sup>, eta abar.

Espainitar gudalozteak, txarto jantzi ta tresnatuta egon ziran, eta gudarako izkillu ta eukezan tresneri guztiak txarrak euki ebazalako esku artean, txarto ikasitakoak ziran.

Emoten eutsoen janari txarragaitik, 8.000 gudarrien kopurutik, 5.000tik gora il ziran, beazun edo gibel-ur beltz<sup>(5)</sup> eta ugari agertzen jakiezan gaixoakaz.

Gudalozteko agintarien artean be, ez ebelako ezagutzen ango lurraldeen denborako gora-berak, ainbat anka sartzea euki eben. A ta guzti, garaille urten eban.

1.860ko urtearen asieran Bilbok, 20.000 biztanle euki ebazan, eta amarkada ori amaitu orduko 28.000.

1.860ko urtean Boluetan, Santa Anaren burdiñolan, 2 eta 3garren labak eraikiten dira.

1.860ko Otsaillan Elio karlista zarrak, alperrezko lanak egin ebazalako naparrak ostera mantxinatu zitezen, 1.860ko Epaillan, Urangatar Koronela izendatu eben, Nafarroako gudal nagusi lez.

1.860ko Jorraillan VIIn Karlosek, porrot aundia euki eban *San Karlos de la Rapidako* legorreratzean<sup>(6)</sup>, eta espetxeratu eben.

(1)Iru lurraldearen jabetasuna = el dominio de tres provincias, que dió comienzo a la consolidación francesa en Indotxina. (2) Krausismo = corriente filosófica que se desarrolló en la segunda mitad del S.XIX tomada del pensamiento de F. Krause. Con J. Sanz del Riogaz se construyó un comportamiento ilustrado. Que resurgió con Giner de los Rios, y terminó con la fundación de la institución Libre de Enseñanza. (3) Zingolaztatu = condecorar. (4) Aundiki izen = títulos nobiliarios. (5) Beazun edo gibel-ur beltz, eta beste gaisotasunakaz = Enfermedad del cólera y otras enfermedades. (6) San Karlos de la Rapida'ko legorreratzea = la toma de tierra en San Karlos de la Rapida.

Eta 1.860an Jorraillaren 23an VI In Karlos Monte-Molineko Konde oneri, espainitarren gortekoak, espainiar erregetzagaz euki ebazan eskubide guztxiari uko egitea galazo eutsen.

*1.860ko Lorailaren 22an, "Euskalduna" aldizkariko 62n zenbakia agertu zan.*

1.860an Uztaillaren 7ko erregearen agindu batek, guda-jaurlariaren baimena bear ebela esaten eban, Euskalerriko Foru Aldundikoak batzartu zitezzen.

1.860ko urtean espainitarrak, lege bat atara eban, itsas-gudarako bear ebezan itsas-ontziak ugaritzeko, eta oraindar edo denbora orretako lurrin-indarragaz<sup>(1)</sup> indartutako guda-ontzidi antzeko bat egitea lortuta, geienak, zurezko azalagaz eginda egon ba ziran be, zortzi korbet-ontzi<sup>(2)</sup>: *Tetuan, Almansa, Gerona, Numancia, Vitoria, Zaragoza, Arapiles eta Sagunto* izenak euki ebazan itsas-ontziak egin ebazan.

Geroago, burdiñezko azala euki eben gudarako itsas-ontzi nagusiak edo kurtzer-ontziak<sup>(3)</sup> egin ebezan: Fernando el católico, Santzez Barkaiztegi, eta Jorge Juan'en izena euki ebenak.

1.861eko urtean Urtarrillaren 13an Austriako Brouseen il zan izurri gaixotasunagaz<sup>(4)</sup>, VI In Karlosen izenagaz ezagutu zan Borbon eta Braganzatar Karlos Luis.

Ekintza onegaz, bere anai Juanek liberal eritzikoa agertuta, euren aldetik espainitar erregetzagaz euki ebazan eskubide guztxiak bertan itzi ondoren, karlisten itxaropen guztxiak pikutara joan ziran, karlistaren eskubide guztxiak noraezeko bide barik geratu ziralako.

*Emen amaitu zan, edestilari batzuk esaten daben, karlistaren bigarren guda zana.*

*1.841eko urtetik 1.875eko urte bitartekoak, Euskalerriko aberatsen buruz aipatu bear dogu zeozer, euskaldun gordetzailleak ainbat diru egin ebelako aldi orreitan.*

*Diru orregaz, Euskalerraren lantegi ta langintzako tresnerien iraulketa egin ebalako, bigarren karlista guda amaitu zanetik aurrera.*

1.823ko urtean, Ibarrek euki ebazan Itsasontziak egiteko lantegi txikerrak, Andaluziara zabaldu ebazan, zeregiñ orretan.

1.841eko urtean, Boluetako "Santa Ana" irasi zan, 1.848ko urtean bere leen laba nagusia eginda.

1.848ko urtetik aurrera, eta espainitar gobernuaren laguntzagaz 1.859ko urterarte, bultzakada aundia artu eben Bizkaiko itsasontziren lantegiak, Nerbioi Itsas-ontziren lantegiak bera bakarrik urtero, 12 itsasontzi eginda.

1.850-1.853ko urte bitartean, eta "Iparagirreri" esker, Euskalerrri osoan zabaldu zan gure Foruaren zaletasuna, bere "Gernikako Arbola" ta berak eukezan beste abesti bidez.

Eta Donostiko aberats batzuk ori ikusi ebenean alkartuz, arrisksutuko gauza izan zala ta, Iparagirre atxilotzeko salatu eban. Eta espetxetik atara ebenean, guarda zibillak alboetan eroan ebazala atara eban, Euskalerritik atzeritzeko.

1.854ko urtean, Barakaldon irasi zan, "Karmengo Amaren, bigarren laba nagusia".

1.855eko urtean "Ibarraren alkarteak" giputz tar aberats batzukaz batera, izen gabeko baltzu edo "Bera-Iraeta ko Burdiñ lantegiko elkargoa"<sup>(5)</sup> irasi eban.

1.856ko urterarte egin ziran, 1.848ko urtean asi zan Bartzelonatik Mataroraiñoiko su-gurdiaren trenbidea. Salamankako markesak egin ebana Aranjuezetik Madrillera. Eta Maria Kristina erregiñaren senar, Riansareseko dukeak egin ebazan Gijon Langreo, ta Balentzia Jatibako su-gurdiaren trenbideak, eta abar.

(1) Lurrin-indarragaz = barcos movidos por la fuerza del vapor. (2) Zortzi korbet-ontzi = escuadra de 8 fragatas ligeras. (3) kurtzer-ontzi aundiak = grandes cruceros. (4) Izurri = peste, epidemia. (5) Iraeta ko burdiñ lantegi alkargoa = fábrica de hierro Iraeta S.A.

Diru arloetan, ostuko okerkeriak egon arren, gauza guztien gaiñetik, bultzakada aundia emon eutson II In Isabelen jaurkintzari, aurrerakuntz aundia zalako.

1.857ko urtean, Ibarra, Epalza, Zabalburu eta beste dirudun kideakaz: “Bilboko Diru-Etxea” irasi eben, zortzi milloi lau-erlekoen diru kopuruagaz.

1.857ko urtean Euskalerriko Aldundien arduradunak, euren jazar aundiena aurkeztu eutsoen II In Isabeleri, Erritarrentzat Irakaskintzazko legea<sup>(1)</sup> atara ebalako, Irakaskintz orrek espainitar lurraldeakaz bardinduz, danak espainitar gobernu eragillearen<sup>(2)</sup> eskuetan ipinten ebazalako.

Gure Aldundiko arduradunak II In Isabeleri eskatzen eutsena: erritarrai euren euskerazko izkuntzan irakasteko, ez eutsela irakasle arrotzik ekarri, galbidezkoa izanez gain, erritarrak urrundu egiten ebazalako ikasketako bideetatik. II In Isabelek, edo beren aolkularitzazko eleiztar aberkide katolikoak baiña, ez eutsoen jaramonik egiñ.

1.859ko urtean Barakaldoko lantegian irasi ebazan zortzi laba, burdiñezko-belaki edo txuperazko burdiña egiteko<sup>(3)</sup>.

1.860ko urtean, “Ibarra anaien baltzuko edo aginkideko Elkarteak” “Karmengo Ama” lantegien ugazaba zirenak, andiagotu eben lantegia, Billalona, Murrieta eta Uribarren ´eko dirudun kide barriekaz.

1.860ko urtean Ibarra ´tar Jose Mariak, Sebillañ euken kokamena “Andaluzia-Euskal lantegia irasi eban, bere agintegiko arduradunak Bizkaian kokatuta egon zirala. Gero Ibarra ´ren semeak “Ibarra-Alkatea”ren izena ipiñi eutsen, eta izen orregaz “Lurrarteko-Itsasoaren”<sup>(4)</sup> itsas-bazterretan zabaldu eben euren zeregiñ ugaria.

Lenengo zabaldu eben su-gurdi bidea, Mataro Bartzelona arteko trenbideena izan zan.

Ortik aurrera, erdiugarte onetan egin ziran trenbide guztiak, jauntzuak aberastuteko egin ziran.

Adibidez: II In Isabelen ama Maria Kristinagaz, edo 1.853-1.854ko urte artean Malagako diru-etxe baten ugazaba izan zan Salamankako markesagaz sortu zan lez, errege ta lege biltzarraren baimenagaz ainbat mesede artean, 129 milloi diru laguntza gobernutik atara ta batera, Madrill-Aranjuezeko trenbidea gobernu berari saldu 60 milloi baiño geiagoagaitik, berak ostera trenbide ori enkante barik<sup>(5)</sup>, eta iñoiz ez eban ordainduko, urtean milloibat ta erdien maizterkuntzan edo akuran<sup>(6)</sup> artuta.

A ta guzti, II In Isabelen jaurkintzan egon zan salerosketako sukar orrek, ez eukan zer ikusirik Laterriaren egoeragaz.

1.861eko urtean Dominikako Errepublikeak ostera espainitarrakin elkartzea erabagita.

A ta guzti, Dominikar lengoratzaillearen aurka sortu ziran borroka ugarien bitetik, espainitarrentzat diruen ordainketa aundiak izanez gain, alperrezkoak ziralako, 1.865eko urtean II In Isabelek, indargabetu edo ezereztu eban Dominikarrekin euken jabetasuna, Aiti ta Dominikako erriekaz osotzen dan karibeko ugarte oneri, bere Dominikar Errepublikaren askatasuna emon, eta México, Peru, ta Txilerantza egin ziran urrengo gudaldiak.

(1) Erritarrentzat irakaskintzazko legea = ley de instrucción pública. (2) Gobernu eragillearen eskuetan = dejaba todo y a todos, a expensas del departamento de fomento Español. (3) Burdiñezko belaki edo txuperazko burdita egiteko = para fabricar esponja de hierro. (4) Lurrarteko Itsasoa = Mar Mediterráneo. (5) Enkante barik = sin licitación alguna. (6) Berak ostera artuta trenbide ori Maizterkuntza edo akuran = el mismo coger de nuevo en arrendamiento la línea del tren.

Espainitarrak ainbat lurraldeen jabetasunak itzi ondoren, aurrera begira ta Ameriketako lurraldean: Karibearen Kuba ta Aberats-Kaia<sup>(1)</sup>; Asian Filipinas, ta Mikronesiaren Karolinako ugarteak, bai ta Marianas'eko Ugarteetan, euki ebazan jabetzak sendotu ebazan.

1.861eko urtean Iraillaren 15ean Braganzatar Maria Teresa Beirako errege alaba, "Liberal karlistarekin ez ebalako jakin gura ezer", bere seme Juaneri eskatu eutsin: bere billoba VIIen Karlosen eskuetan itzi egiezala beren erregetzazko eskubideak. Juanek euki ebezan beste semeakaz, eztabaida gogorrek sortu ebena.

Eta emen asi ziran karlistak ostera, bidea aurkitzen.

### ***2. 13. (2).- 1.862ko urtean Dagonillaren 25ean jaio zan Arana ta Goiritar Koldobika, Arana ta Goiri'tar Sabinoren baiño iru urte zarragoa izan zana, eta abertzaletasunaren arloan Sabinori begiak zabaldu eutsoezanak.***

1.864ko urtean Dagonillaren 7an espainitar gorteko Santzez Silbaren bidez, zailtzan ipinten dira alegin gogorraz, gure "Foruen Legeak".

1.864ko urtean Iraillaren 29an Unamunotar Migel jaiotzen da Bilboko Txakur kalean, gaur 16garren zenbakia altxetan dan lekuan.

1.864ko urtean Vn Karlosen emaztea zan Braganzako Maria Teresa, Beirako erregearen alaba zana, arduratuko zan karlistak ostera bideratzen, eta bere illobaso edo billoba Borbon eta Ekialdeko Austriatar Karlos Maria de los Dolores, VIIen Karlos izenarekin ezagutuko zana, izendatu eban ondorengo karlisten agintaritzarako.

1.865eko urtean Urtarrillaren 1ean, Nobia Salzedo ta Kastañostar Pedro il zan Bilbaon.

1.865eko urtean be asi zan lan egiten "Triano"ko su-gurdia.

### ***2. 14. (3). - Arana eta Goiri'tar Sabino'ren jaiotza.***

*1.865eko urtean Urtarrillaren 25-26n eguneko bitartean, Aranatar Santiago ta Goiritar Paskualaren zortzigarrena ta euki eben azkeneko semea izango zanak, gabeko 12ak eta 25 minutuetan jaiotzen asi zan: Arana ta Goiri'tar Sabino Aundia izango zana.*

*Eta San Sabinoren jaia ospatzen zan lez Sabino ipiñi eutsoen lenengo izena, baiña 26ko egunaren lenengo minutuetan izan zan lez bizitzara agertu zanean, San Polikarporen eguna izanda, Polikarpo bigarren izen lez.*

*Gaba orretan, il zorian egon zan bere anai Koldobika gaisorik.*

*Sabino, Abandoko eleiz aldean, Ibañez kaleko 10n zenbakian (len Albiako etxea izan zana) eta 1.857ko urtean bere aitak egiteko agindua emon eban etxean jaio zan, 1.863ko urtean, Arana ta Goiritar sendia etxe ortara, bizitzen joanda.*

*Arana ta Goiritar Sabino jaio zan, gaur "SABIN ETXEA" dauan Bilboko Ibañez kalearen lekuan, aranatarrek euki eben etxe ederrean.*

*Kontuan artu bear da, Sabinoren aita, Arana ta Ansotegitar Santiagok, Ripan, La Salben, Allende Salazarrai alokatuteko lurretan, eta Zorrozan euki ebazala iru itxasontziren lantegi ederrak.*

(1) Aberats kaia = Puerto Rico.

*Arana eta Ansotegitar Santiago, Bizkaiko itsas ontziren egille andiena zan, eta bere aita ta anai Andresekin, euren biziko denbora ezberdiñetan, Gernikako Batzar nagusiaren ordezkariak be izan ziran, Abandoko Udaletxea, Gernikako Batzar Nagusira, ordezkari lez lotuta egon zalako.*

*Abandok, Gernikako Batzarraren ogeita amalau ezar lekuakin lotuta euki eban bere Udaleko alkatetza.*

*Arana ta Goiri tar Koldobika eta Sabino seme txikerraren abertzaletasunezko bizi kondaira ulertu daigun, sendiko laugarren alaba Paulina zanaren esanetatik labur artuko dogu:*

-*“Arana ta Goiri tar Santiago ta Goiri tar Paskualaren etxeko abertzaletasuna, oso sakona zan, Euskal Nortasun andiko ta sinismendun zintzoak izan zirelako”.*

-*“Karlístaren matxintasunerako asko lagundu eban nire aita Santiagok”.*

-*“Denbora gitxi barruan itzi eban itxas-ontziren egiteari”.*

-*“Uribarri gudal nagusia, bere etxean euki eban ostonduta”.*

-*“Aita, Ingalaterrara joan zan su-izkilluak erostera, eta bere zarpeletik 50.000 ogerleko ordaindu ebazan, karlista gudari gazteak izkilluz prestatuteko”.*

-*“Zelan zabaldu zan, gu atzerrira joanda egon giñela, etxetik urten barik egon giñelako, eta urtetan bagenuen, egun ospatsuetan bakarrik urtetan gendula, goizean, lenengo Meza Santuetan otoitz egitera”.*

-*Aita, Abandoko alkatea izan zan, eta Gernikako batzarretan eskubidedun bertatik”.*

*Sabinorentzat ikusten dan lez, etxean euki eban abertzaletasunezko giroen arnasa, obeagoa ezin izan, eta or berentzat erro zintzo ta sakonak, nai kristau ta nai abertzale lez.*

*Denbora oneitan Kantabroak, euskaldun eta bizkaitarrak senditzen ziran.*

*1.865eko urtean “Euskalduna” aldizkaria “K” itzarekin agertzen da.*

## **2. 15. 1.841eko urtetik 1.875eko urte bitartekoak aipatu bear doguz, Karlista alderdiaren era berritze edo antola barria lez.**

1.866ko urtean Prin eta Prast tar Juan espainitar gudal nagusia matxinatu zan, eta 66 mailla ezberdiñeko gudari, tiroz il ebazan.

1.866ko urtean Bilbaon, oikuntza lez ezarri zan, iraurri, saltzarri edo etxegintzarako kare-baltza<sup>(1)</sup>.

1.867ko urtean, Manuel Orobio Etxagüe ministruek, erakastegiko askatasunari ipiñi eutsezan oztopoagaitik, eta bai ta, mailla aundiko ikastegiren ikasleak erregiñaren alde egon zitezen, asko kanpora bota egin ebazanaean, katolikuaren eraso gogorra euki eben bidetik, eta bakeak lortzeko, IXn Pio Aita Santuen artekaritza bear izan eben, bere “*Syllabus*” eskutitzagaz bakeztu bear izan ebena.

1.867ko urtean Parisen egingo zan Munduko guztiaren Erakusketarako, del Balle tar Luzio injinierue ibili zan argi, berak arduratu ebezalako Jeant Laurent eta José Martinez Santzez, erdiugarte onen lurraldeko Uri ta gauza aurrerakoieri, argazkiak atara egioztiezian, Pariseko erakustoki aretan, Mundu zabaleko gizonak ikusi egien.

1.868ko urtean Epaillaren 16an, Bizkaian neurkintza lez, amarkadako metrika ezartzen da. Eta urte berean espainitarrak, pesetea sortzen dabe diru arloetan, “Erdi Ugarte au irudi lez, osotasunezko espainitar aberri lez agertu zedin”.

(1) Iraurri, saltzarri, edo karebaltza = cemento. Eta burnidun saltzarri = cemento armado.

1.868ko urtean Uztaillaren 7an, politikako gauzak txarto joan ziran II In Isabelentzat, eta beren aldeko gobernutik eskutitz bat artzen dau, bere sendiagaz Frantziara atzerriratu zedin.

1.868ko urtean Uztaillaren 24an Kabreratar Ramon gaisorik egon zalako, VII In Karlosek, onen Ingalaterrako etxean batzartu zan beste karlista gudal nagusiekin, eta Kabrerak bertan, ez eutson bere erregetza ontzat artu, areik eta ondorengo gauzak konpondu arte, batzar orreitan beren karlista ardurak itzita, euken gaixotasunagaz ezin ebalako ainbeste ardurazko lan andiagaz aurrera egin.

Batzar au izan zan VII In Karlosek egin ebana lenengo aldiz, karlistaren errege lez.

1.868ko urtean Iraillaren 17an, Kadizeko urgolkora urreratu ziran Prim, Serrano, Topete ta Karballotar Juan Bautista liberalen gudal nagusiak, Zaragoza deitzen zan itsas-guda ontzian, eta II In Isabel errege aulkitik kendu gura eban lez, iraultzazko agiri bat idatzi eben, 1.810-1.813ko urtetan Kadizeko jaurgu barriaren arauak argitaratu ziranakaz, zuzendu ta jaukitu egingo ebela espainitarren lurraldea. Iraillaren 19an aldarrikatuko ebena.

## 2. 16.- *II In Isabelen erbezteratzea.*

1.868ko urtean sortu zan “*la Gloriosa´ren Matxintasuna*” II In Isabeleri, Donostiako Urian, uda igaroten egon zan lekutik, Paris´era erbezteratuazo egin eutsona, III In Napoleon eta bere emazte Montijo´tar Eujeniaren babes artuta.

Eta espainitarren erregetza itzi ebanetik, bananduta bizi zan bere senarragaz, au Épina-sur-Seine´ra bizitzen aldatuta, 1.902ko urtean il zan arte.

1.870eko urtean Bagillaren 25ean izenpetu eban II In Isabel, bere erregeñazko utzieraren agiria, eukan ondorengo seme XII In Alfonso izango zanaren alde.

II In Isabel, Parisen bizi zan geratu jakon amaierarteko bizitza, eta bertatik jakin eban: leen Errepublikaren sortarazia; 1.885eko urtean, bere seme XII In Alfonsoren erregetza ta ilkera; bere errain Habsburgo-Lorena´tar Maria Kristinaren errege-ordegotza eukan seme XIII In Alfonsorekin; eta bai XIII In Alfonsoren errege asiera.

1.904ko urtean il san Paris´en II In Isabel, eta Eskorial´eko lekaidetxera ekarri eben, bere gizonen ilobi aurrean illobiratzeko.

## 2. 17. *Karlista alderdiaren era berritze edo antola barriari ostera ebatuta.*

1.868ko urtean Iraillaren 18an Prim ta Prast´tar Juan, Serrano ta Domingeztar Franzizko, eta Topetetar Juan Bautistaren iraulketa bidez, II In Isabel bere erregetzazko ezar lekutik kendu eta Frantziara erbesteratuazo ondoren, karlistek, parebako aukerea ikusi eben euren eskubideak ostera berrezkuratzeko, eta prestakuntza orrekaz asi ziran arduratzen.

Espainitarren gobernu, aldarrikapen auengandik indartu baiño, makaldu egin zan, naiz konstituzio barriaren sendotasunean, eta baita aberri edo naziño lez sendotu edo gogortzen ibili arren, gualoztearen indarragaz.

Demokrazizko jokuan emon gura ebezan askatasunezko itxurak, ez eukelako iñungo zentzun eta aukerarik, aberri-katolikoaren menpetasunezko txebera orreik ostonduteko.



Espainitar aldekoak aldi oneitan, politikaren eritzizko naste andiagotan asi ziran sartzen, adibidez: aurrerakoiezko jaurgo barriaren kide orreik, ezker eskuin alderditan banatzen asi ziralako.

Eta ezker aldekoak, errepublikako gobernu baten eritzira aldatzen asita, Saboyatar Amadeoren erregetza sakastatu edo ziligardatu<sup>(1)</sup> egingo eben, erregetzazko jaurkin-tzarik ostera, ez egian ezarri.

Euskaldunok, itxaropen andiegaz besarkatu genduzan, nai errepublikako eritziak, eta bai gizartekeri edo sozialismuaren arrazoiak, bide ortatik, gure erriaren askatasuna ikusten gendulako.

Eta erri lez lilluratuz, mogimendu orreik Giza ta Erri-eskubidera bidetu ginduzelakoan, ez gintzazan konturatu, egikera orreik, Europako liberal merkantilismu ta katolikosunaren eritzizko batzangoak, egokitzeko mogimenduak zirela, eurak be ez ebelako jakin, ain guzur andi orreik, zelan “Egi” biurtu.

Gitxiago, erkaldar edo errepublikanu ta errigizarte zale edo sozialistak, erri ta gizaren eskubideko aldekoak zirela esaten ebelako, nortasunbageko espainitar katolikoan batzango zaleak izango zirela, gure Euskalerriko gizarteetan, nortasunezko arrazoiaren eritzizko zentzuak, zoritxarreko naspiltasun geiagotan sartuta.

Euskaldunok, bereztasunaren zentzunezko aztura bidetik, egi lez baituta daukaguzan askatasun demokratikoak, eta beste erriak espainitarrak bezela oldozmen bardiñean ezarrita dagozelakoan, sarritan gertatu jakuz alango anka sartzeak, euskal zentzuzko gizarte eritzian naaste sakonetan sartzen gaituena, eta larregi kosta egiten jakuzenak zuzentzen.

Gure euskal gogoetan egizkoak izanda, ez gendulako ulertzen, eta gitxiago sinistu eta orregaitik konturatu, Jainkoaren izenean, zelan katoliko, bai sozialista edo ta errepublikano demokratik izanda, ibiliko zirela alango maltzur, guzur, lapurti ta menperatzailetasunezko jokuakaz.

Jainkoak bizitz oneri oiñarritu Eutsoezan legeen bidetik, bereztasunezko oiturean azi ta ezitako jokabidez bete bear dabez bere seme-alabak lege orreik, nortasun eta zentzunezko baitan ulermenduz, bereztasunezko ezaubidean ezarri egiezen.

Oso ezberdiñak dira baiña, Jainkoaren Legeari kanpotik, gizonaren norkerizko gogo legean bakanduz, sasiarrazoietan baitu gure egitea, mundu onetako faziztek, dirua ta agintaritzta sasijainkotzazko maillan ipiñi ebazanetik, Goiko Jainko Irazaleak bereztutako legeak, ez dabezelako ikusi nai. Orregaitik euren arlo guztietan, guzurragaz jokatu bear dabe beti.

*Ez dodaz nire gogoan oraindiño aiztuten, abertzale zar batek gure askeneko gudagaitik esaten eustena: “Ez gogoratu Paulo, borroka au sozialistak edo ta errepublikanoak irabazi ba eben, gure erriaren askatasuna ortik agertuko zala”.*

*Ondoren, gu menperatzeko asmoa euki ebelako, gaur ikusten dan lez.*

1.868ko urtean Iraillaren 19an Lekeition egoala arrapatu eutson IIIn Isabeleri, ospagarri<sup>(2)</sup> izenagaz deitu eutsoen mantxintasun orrek.

1.868ko urtean Iraillaren 28an, Kordobatik 11 kilometrura egon zan Alkoleako zubian, liberalak irabazi eutsen gobernuko gudalozteai, eta 29an IIIn Isabelek Frantzira atzerriratu zan.

(1) Sakastatu edo ziligardatu = echar aperder, malograr chapucear, deteriorar, estropear. (2) Deituko zan Ospagarriko matxintasun orrek = gloriosa, glorificable revolución.

1.868ko urtean Iraillaren 30ean II In Isabel Frantziko atzerritasunera urten ebentik, 1.904rarte edo beren eriotzararte iraungo eban atzerritasun orrek.

1.868ko urtean Urrillaren 3an, Borbon ta Braganzatar Juan, Parisen egon zan egun orreitan, eta jakinda bere seme VII In Karlos an egoala be, beragana urbildu zan, jakin gurean egon zalako bere semeak ainbeste urtetan ikusi barik, zelako itxura euki eban, eta baita errege gai lez, egin ebazan aurrerakuntzak.

Arrituta geratu zan Borbontar Juan, bere semean ikusi ebazanean, alango gorpuzkeraren itxurak, askatasunezko ausardian euken zentzutasunezko burubide, ta kemenagaz, eta bertan emon eutsoezan erregetzaren eskubide guztiak, ararte bera liberalaren eritzizkoa izatearren, ainbeste bider ukatu edo ezeztu eutsolako.

1.868ko urtean Urrillaren 8an espainitarrak, bitarteko gobernu bat antolatzen dabe.

1.868ko urtean Urrillaren 10ean Kuban, Zespedestar Karlos Manuel matxinatu zan “Yara” erri izenaren irrintziagaz espainitarren aurka, 1.878ko urtean Otsaillaren 10eraño iraun ebena.

1.868ko urtearen Urrillan, espainitarren politikako nasteak, eta Kuba matxinatu egin zala ikusi ondoren, karlistaren alderdia bizkortu ta atonduten asten da, bere barnetik alderdi bi sortuta: bata, lege zalea, Aparisi, Gijarro ta Nozedaltar Kandidok bideratzen ebena; eta bestea, espainitarren artean geientsuak guda zale sutsu ta barkagaitzezkoak<sup>(1)</sup> ziranak.

Araban: “El Escudo Católico” eta “La Buena Causa”ren aldizkariak sortzen dira.

Nafarroan: “La Voz de España”ren aldizkaria.

Gipuzkoan: “Boina Blanca” aldizkaria. Len Bilboko “Euskalduna” eta Gazteizen “Seminario Vasco Navarro” egon ziran aldizkariakin ezarri ziranak.

1.868ko urtean Urrillaren 22an VII In Karlosek, Europako errege guztiai deitzen dautse esaten, bera prest egoala espainitarren jaurkintza aurrera eroateko, eta betirako ezarri eban, orokorrezko gorteakaz, askatasunezko legeak aukeratuko ebazala.

Inguruko denbora oneitan, espainitar gorteakoak guda nagusiakaz batera, kendu gura ebazan Borboiak erregetzatik, eurekaz ezin ebelako 1.810/1.812ko urte bitartean Kadizen irasi ebezan batzangotasunaren menpeko legeak ezarri, ta leen Montpensier-tar Felipe Louis Orleanseko dukea, Potugaleko errege I Fernando, ta Esparterotar Baldomero garaipeneko dukearen atzean ibili ziran, espainitar errege izan zedin.

1.869ko urtean Epailaren 22an Ranzes espainitar ministrua, Prusiako erregearen-gana joan zan bere urte beteratzean zorionduteko, eta Bismarktar Otto, Eduard Leopold kondea, eta Prusiako ministru izan zanagaz egonda, onek lenengoz esan eutson, espainitar erregeen ezar aulkian, Hohenzollerntar Leopoldo printzea ezarri bear ebela.

1.869ko urtean Loraillaren 1ean Tafallan, liberal eta karlistaren arteko eztabaida gogor bidez, borrokan asteko prest agertu ziran.

1.869ko urtean Bagillaren 1ean karlistak, ariñauko urtean Kabrerazen aolku bidez eta Londreseko batzarrean erabagita, espainitar orokorrezko araudi batzarrrak aukeratzeko egon ziran auteskundeak, Bagillaren 6ra aldatu ziran.

Orokorrezko auteskunde orretan, Euskalerrriaren lau lurraldeko ordezkari karlistek, irabazi eben.

Espainitarren lurraldeetan ez zan gertatu bardiñ, eta II In Isabelekin ministrua izandako Nozedalek, Epailleko antolamenduetan zeozer lortu ba eban gitxiengo taldeakaz,

(1) Barkagaitzezkoak = imperdonables, o que no tenian costumbre de perdonar nada.

bide ori ez zalako izan VIIIn Karloseri espainitarren erregetzan ezarriko ebena, ostera asi ziran prestuten guda zaleak.

1.869ko urtean Bagillaren 30ean VIIIn Karlosek, Kataluña, Balentzia eta Aragoiko karlistai argi ezarri eutsen idatzitako agirian, beren gogoak: “menpeko batzangotasunaren aurkakoak zirala”.

1.869ko urteen inguru oneitan, alegiñ asko egin eben espainitarrek, gure meaztegi ta euki genduzan legeak, euskal jabetzatik aienatu, ta bai ta berezko ardurapetik egokitzen jakuzan eskubideak be, suntsitu zitezen<sup>(1)</sup>.

Eta ekintza orreik egiztatzeko, ez da begitu baiño bear, urte onetan espainitarren gortekoak, zergaitik atara ebazan ainbeste lege, zergak, askatasunezko aldaketa osoan ibili zitezen<sup>(2)</sup>, 1.868ko urtean Epaillaren 14an ezarrita euki ebezan oñarrizko legeakaz alkartu ziranean, gure meaztegiak, ia betiko geratu jakiezalako atzerritarrezko aberritarrai.

Figerola ta Ballestertar Laureano ministruak, 1.836, 1.855 eta 1.856koaren urteen-tzako, Erdiugarte onen meatzezko ondasun aberatsak eskaiñi eutsezanean atzerritar merkantilistai, espainitar gorteko auk agindu ebezan legeakaz, erriaren lurak salgai ipiniaz batera, ta euskal jabetzatik ondasun guztiak kenduz gaiñ, lapurketaren leiazko ariñeketa baten asi ziran danak, zeñiek ariñago ostu ta ustu, egon ziran burdiñezko meaztegi guztiak ainbeste atzerritar elkarte barri sortarazita.

*Edozein motako menperatzailleak daukien diru-zalekeriagaz, egundo ez dira izan gai ezer sortarazteko, eta euren bete ezinean, beti joan dira guda-indarrekin gauza guztiak lapurtzera, gure euskal lurak saldu ta euki genduzan meagunezko aberastasunak lapurtu egin eban lez.*

*Mundu onen aberastasuna baiña, ez dago bereztutako gai onetan, gai'a Jainkoaren aginduz, beti egongo dalako, egon bear dauan lekuan.*

*Gure gaitutako arimak dira aberastu bear doguzenak, bizitzeko bear dabezan gauzak, gaiak orokorrezko aukerean eskeintzen dauskun almenarekin, mundu onetan egin bear doguzanak, demokraziaren ekanduzko askatasunean bete dagiguzan.*

*Nor ote da FAZIZTA, mundu onetan ?.*

## 2. 18. **Oarpena:**

Emendik aurrera, Antonio Pidalak idatzitako liburuetatik: “*Historia contemporánea*” *segunda parte de la guerra civil española*, *anales desde 1.843 hasta el fallecimiento de Alfonso XII*, eta Labairuk idatzitako “*Bizkaiaren Orokorrezko Edestitik*” ta *Ikas Mailla Nausienetik artuko dodaz, geien bear dodazan zeaztasunak*.

Bigarren atalean, 297ko orrialdetik aurrera, eta Auñamendiko enziklopeditik, artuko dodaz Euskalerriko guda au argitzeko bear dodazan osagarrizko zeaztasunak, Euskalerriko karlistadaren edestiko kondaira au, al dodan zentzu aundienean ezartzeko.

## 2. 19. **Ostera, karlisten 1.841-1.875eko urteen arteko berriztearen aria berrezkuratuta:**

1.869an Uztaillaren 14an Berlingo diru etxeko buru batek, eskutitz bat idatzi eutsen Serrano espainitar ministru ta gudal nagusiari esaten, Hohenzollerntar Leopoldo printzea izan zala egokiena, espainitar errege aulkian ezartzeko.

(1) Suntsitu zitezen = para que desaparezcán. (2) Zergak, askatasunezko aldaketa osoan ibili zitezen = aranceles librecambistas.

1.869ko urte berean Prim gudal nagusia, Antonia errege alabagaz ezkondata egon zan Hohenzollerntar Leopoldo aleman printzearengana joan zan erregetzaren eskein-tza egiten, Zorrillak, dana ezereztu eban asken baten baiña, bear zan denbora baiño ariñago emon ebalako ezagutzera, errege barria izango zanaren izena.

1.869ko urtean Urrillaren 4an IIIn Isabelek Frantziatik, erregetzazko arduratik kanpo egonda, Lersundi gudal nagusiari eskutitz baten bidez eskatzen dautso, bakeztu ta menderatu egiezala itxas-aindiko kolonien matxintasunak.

1.869ko urtearen denborak, oso naas denborak izan ziran, Itsas-osteko Kolonita-rren askatasunezko alegiñagaitik.

Bestetik, espainitarren gobernuan sortu ziran eztabaidakaz, batzango edo ta aurrerakoi liberalak eta errepublikano edo demokrazizko zaleen arteko atondukeran, errepublikano eta liberal, edo ta progresista eta unionistas taldeetan bananduta geratu ziran.

-Karlisten antolakuntzazko zirikitazun gogorrekaz, liberal eta errepublikanoen ar-tean, zentzuzko gobernu bat atondu ezinik ibili ziran.

-Eta eleizak, liburu ta apain gauzatan euki ebezan aberastasunak, liburutegi ta era-kus tokietan gorde gurean, eta abar.

1.869ko urtean errepublikanoen artean osotasunezko barritasun bat sortu naian, Errepublikaren alde egon ziran taldeen banaketak batu, eta leenengo oinkadak emon ziran, sozialismu edo gizartearen antolakuntzazko talde barri bat sortzeko.

Europa guztian bardin antzekoa izan zan egoera larri au, gogorrek izan ziralako aginduten ebezanak, menperatzaillen aldetik.

1.869ko urtean Urrillaren 4an Kabreratar Ramonek, naita oso gaisorik egon arren, baietza emon eutson VIIIn Karloseri, onek antolatzailezko erabagietan aurkeztu eut-soen, gudaloztearen orokorrezko agintaritzza eroan egien, VIIIn Karlos ´en besteko neu-rrri maillara igonda.

1.869ko urtean Azaroaren 7an Ingalaterrako Wentworth erritxotik, Kabreratar Ramo-nek, ostera baiestatzen dautso VIIIn Karloseri, onek arduratu gura eutson agintaritzzagaz.

1.869ko urtean Azaroaren 29an Iruñako liberalak, karlisten matxinadako azpi joko bat ezereztuten dabe, eta orokorrezko gudal nagusien kapitaiñak Allende Zalazartar Jo-sek, bere aldarrikapenean esaten dautse erritarrai: “karlistak, Foruaren gora beran esaten ebezanak, kontu bat baiño ez zala izan, Foruak ez ziralako egon zemakuntzatuta”<sup>(1)</sup>.

1.869ko urte inguru onetan, VIIIn Karlosen benetako laguntzaile andiena, Biana-ko Nabarro ta Billosladatar Franzizko, euskaltzale sutua izan zan.

1.869/1.870 urte onetan IXn Pio Aita Santuak, Batikanoko lenengo Eleiz Batza-rra egin eban, siniskai edo ta oituraren gora beran berba egiten ebenean, Aita Santua-ren “uts ezintasuna”<sup>(2)</sup> adierazteko.

1.870eko urtean Urtarrillaren 16an Madrillen, asteroko aldizkari bat sortu eben iru euskal lurralde eta Nafartarrai eskaiñita, “El Pais Vasco Nabarro” deitu eutsoenai.

1.870eko urtearen Otsaillan, Kabrera karlista gudal nagusiak VIIIn Karloseri, euren artean egon ziran eztabadagaitik, gudal agintaritzaren uztziera aurkeztu eutson.

1.870eko urtean Jorriallaren 18an, VIIIn Karlosek Kabreraren ezetza artu ebenean, Suizako Bebey errian, karlistaren orokorrezko batzarra egin eban, eta bera arduratu zan alderdiaren zuzendaritzagaz.

(1) Zemaitu, larderiatu, meatxatu, ukabillea jaso = amenazar. Zemankutzatuta = amenazados. (2) Uts-ezintasuna adierazteko = explicar la infalibilidad del papa.

1.870eko urtean Epaillaren 31n Kabreratar Ramon Morellako kondeak, Wentworth'eko erritik oso nekatzu, euki eban gaisotasun ta egiten eban atsedebako lanagaitik alde batetik.

-Bestetik, karlista gudal nagusien artean ez zalako egon bekaizkeria eta zelataritza baiño, Madrilltarrak ondo oartu zitezen euren artean gertatzen zanagaitik.

-Eta gudaloztearen antolakuntzarako diru arloetan, bear zan iturria, ez zalako agertzen iñundik.

-Kabrerak, bere agintaritzaren uztea aurkeztu eutson VIIIn Karloseri, eta onek, Suizako Bebey erritxoan karlistak batzar nagusian batuta, berak artu eban karlisten agintaritzazko ardura nagusi ori.

1.870eko urtean Loraillaren 9an Ebroko Mirandan, karlisten matxindutasunezko talde bat sortzen egoala jakin eben liberalak, eta auek, Uztaillaren askenean Oskabarte<sup>(1)</sup> ta Aroko erasoarekin atxilotu ebazan karlistak, ez ebazan askatu, arik eta Dagonillaren 16an parkamena agertu zan arte.

1.870eko urtean Loraillaren 13an Madoztar Paskualek, eskutitz bat bialdu eutson Esparterotar Baldomero gudal nagusi ta garaipenaren dukeari, espainitarren errege izan zedin.

1.870eko urtean Loraillaren 20an, Esparterotar Baldomero beste eskutitz bategaz erantzun eutson esaten, beragaz ez zitezela gogoratu geiago, adiñ asko eukinez gain, oso gaisorik egoalako.

-Eta Esparterok beste eskutitz bategaz aolku au emon eutson, "Aostako I Amedeotar Saboyako dukea eta Italiako printzea artu egiela, espainiar erregetzaren aulkirako".

1.870eko urtean Bagillaren 25ean IIIn Isabelek, bere ondorengo seme XIIIn Alfonsoen eskuetan izten dauz espainitarren erregetzazko eskubide guztiak.

1.870eko urtean Uztaillaren 13an Bilbaon, *Bizkaiko Goi Ikastetxe Katolikoa* sortzen da.

1.870eko urtean Iraillaren 1ean espainitar gobernuak, gudaren egokitasuna aldarrikatzen dau.

1.870eko urtean Iraillaren 5ean Rada ta Diaztar Eustakio karlista nagusiak, Erdiugarte onen karlista guztiei matxinatzeko agindua emon eutsen.

1.870eko urtean Iraillaren 4an Aldundiko ertzaiñak: "antziñaren zaletasunezko, edo tradizionalistak eta liberalaren artean, gero ta amurratuagoak izan zirela euren arteko arazo ta erasoak, indar gitxirekin bakezteko" adierazi eben.

1.870eko urtearen Irailla ta Urrillako illaren artean, espainitar jaurkintzazkoak Prim buru zala, Hohenzollerntar Leopoldo alemanaren billa ibili ziran, "Hispano Prusiano" itun edo ongunde bat egiteko, bera aukeratu gura ebelako, espainitarren errege lez.

Eta denbora orretan Esparterotar Baldomero bere adiskideakaz, Ingalaterran 25 urtegaz ikasten egoala, Saboyatar Amadeo Aostako dukea aurkitzen ibili ziran, espainitarren errege izan zedin.

1.870eko urtean Urrillaren 10ean, on artu eban I Saboyako Amadeok, espainitarren errege izatea.

1.870eko urtean Urrillaren 19an, 16 urtegaz Ingalaterran ikasten egon zan Jenobako dukearen billa be ibili ziran, baiña ezerezean geratu ziran egin ebezan egipide guztiak.

(1) Oskabarte = Nombre primitivo de Santo Domingo de la Calzada "en Euskera".

1.870eko urtean Urrillaren 31n eldu zan espainitarren gortera, zelan onartu ebalá I Amadeok, espainitarren errege izatea.

1.870eko urtean Azaroaren 3an Prim eta Prastar Juan espainitarren gobernuko lenengo ministruak, jaurlariko arduradunai jakin arazi eutsoen, berak, zelan eukela aurkítuta erregea, espainitarren errege aulkian ezartzeko.

1.870eko urtean Azaroaren 16an egon ziran autespenak espainitar gortean, erregea aukeratzeko: I Amadeok, 191 autarki artuta; 60 autarki alkartasunezko errepublikeak<sup>(1)</sup>; 27 Montpensierreko dukeak; Espartero zarrak 8; 2 batu zaleen errepublikeak<sup>(2)</sup>; 2 Borbontar XIIIn Alfonsok; 1 Errepublikako elkartearen jaurkintza bategaitik<sup>(3)</sup>; eta 1, Montpensierreko Dukesa Maria Luisa Fernanda, IIIn Isabelen aizta zanak.

1.870eko urtean Azaroaren 16an Esparterok, espainitar errege izateari emon eutsón ezetzagaitik, Saboyako Amadeo aukeratu eben espainitarren errege lez.

Eta espainitarrak, IIIn Isabel eta karlistak aurkezten eutsezán konponketari ezetza emon ondoren, karlistak aurka egiteko prest agertu ziran.

1.870eko urtean Azaroaren 19an espainitarren gortekoak, I Saboyatar Amadeo, Aostako dukea aukeratu eben errege lez.

*XVIII-XIX- ta XXko gizaldi onetan argi ikusten dogu, orduko eta gaurko Europaren liberalak euki eben burubidea<sup>(4)</sup>, Europako lurralde guztien giza, menperatasunezko leterritasunaren aberri katolikoan batzangotuta ezartzea zala, Europaren katoliko liberalen arteko laguntza, diru, ta gudarako bear ziran indarrak, erabagi orren serbitzura daukiezelako.*

*Europa edo ta Mundu osoa, katolikuaren erlijiozko aberrian batzangotzeko, laterritzea ezin lortu, eta aberri katoliko zatiketetan batzangotzeko, norberizko zoraldi bardiña izan arren, espainitar liberalen laterritasunezko asmo-gogoak ikusi ta kontuan euki bear doguz, zelango jaurgo<sup>(5)</sup> edo ta jaurkintzagaz<sup>(6)</sup> lortu gura eben, argi ikusi dagigun, esku-joku ori.*

*-Samaraiño daukagun guzurrezko maltzurkeri edo kakanaste oneri, gure azterraldi bidetik, argitzeko zeaztuz, eta zentzunezko adierazpen bat emonda:*

*IVn gizaldian Erroma-godo menperatzaillé eta merkantil'ar auké, Kristau eleiztarrakin, bereztasunezko legeak kontuan euki barik, eta asmatu eben, katolikotasunezko aberritar erlijioan batzangotzeko.*

*Jaungoikuak irasitako Ludi onen gai'a beti, aberasgarri edo mozkin-egille lez artu ta biurtu dabe, ostein, giza guztien kontrola eukiteko.*

*Orregaitik Norberkerizko geikerien alegiñekaz ibili bear izan dabe beti, euren atzerrizko erriak menperatzeko edo kolonizetako asmoan, lurra emoten dauazan obari guztiakaz geratuz.*

*-Jaungoikuak bialduta, orretarako ote gara etorri, lur onetara ?.*

*-“Omosapiens garela esaten dabe jakintsu batzuk”. Uste dot ez garela eldu mailla orretara oraindiño, “abereak erakusten dabenagaitik, EKANDUZ, gure aurretik doazela erakusten daukuelako”. Guk, asmakeri orreikaz, gezurra irakatsi nai edo ziñeskintzatu<sup>(7)</sup> egin arren.*

*-Eta menpe edo euren kolonizaziozko alegiñetan, ibili bear daben jokoa jaun lez agertzeko: “Berezko atzerritar orreik daukien jendekuntzazko barnetik atara, eta eurak eroaten dabezan guzurrezko sasijendekuntza ori indarkeriz, sartu bear dabe euren buruetan”.*

(1) Alkartasunezko errepublikeak = República Federal. (2) Batu zaleen Errepublikeak = República Unitaria. (3) Errepublikako Alkarteen jaurkintza bategaitik = una república sin definir. (4) Burubidea = decisión, resolución. La idea que venía del año 325 en que se celebró el concilio de Nicea. (5) Jaurgoaren = modo de gobierno. (6) Jaurkintza = gobierno, acción de gobernar. (7) Guk, gezurra irakatsi edo ziñeskintzatu egin arren = aunque nosotros lo dogmaticemos las enseñanzas.

Bai lurrak eukezan aberats mozkin ta baliozko gauzaren kontrola euki, atzerritar giza-ren kontrola eukiteko, eta lur aiek zaintzeko bear eben tresneri eta gudari gazteakaz, ostuta-ko urre guztiak baiño geiago balio izan arren, atzerriko erritar orreik, zorigaitz edo ondore txar bateko menpean euki, eurak sasijainko lez agertu egiezan”.

-“Bereztasunaren kanpoko aberastasun ori, ameskeri uts bat baiño besterik ez da, jaiota-koak daukaguzan ardurak, zor-eskubidearen Ekanduarenak diralako”.

-“Legezko erregiña atzerriratuta eukinez gain, ondoriozko guda karlistarekin, eta gu-dal nagusiak ezarri gura eben batzangotasunezko jaurgo barri orren erasoakaz, Europatik asi ziran erregea aurkitzen, erdiugarte au, liberalen aberri katoliko orretan jaurkitzeko”.

-“Euskalerra eta Kataluñaren lurraldeak, euren ametsezko kaisargo barruan euki gu-rean ibili dira beti, bereztasunezko erritarren eskubideak kontuan artu barik”.

-Eurak, arrazoi bakarrekoak izan ba ziran lez, eta Erdiugarte au 1.823ko urte ezkeroz-tik, espainitar jaurkintza lez, euren jabetzazko erki gobernu<sup>(1)</sup> antzeko baten biurtu gurean ibili dira beti, Galicia, Kataluña, ta Euskalerraaren nortasunezko eskubideak ostonduteko.

-“1.839ko urtean Iraillaren 25ean, espainitar gudal nagusiak Bergaran, azpikerizko besarkada zikin baten ostean, Euskal Nortasunezko Izatasunari egin eutsoen lez.

-Eta aundiena, euren erritarrai mundu onetan esan leikezan guzur aundienakaz, eta bakezko egillearen itxuraz gain, orduko Europaren fazizten ardatzagaz kide, eta guda in-darka, Frankok egin eban gurutzada sakratu ta santuagaz, “Nacional Catolicismo” eritzian ezarri gura izan dabe beti, gure bereztasunaren askatasunezko demokraziak.

Gaur be aurrera egiten dauana, ameskerizko Erroma ta Godotar legeakin katoliko ta merkantileriarene batzangotasunean mundu au bideratzeko, or daukiezelako oraindiño bizi bizi lege orreik, indarrezko ekintzan eroaten dabezanak, ezerezko eten bage.

Orregaitik, guzur utsaren adierazpeneko aldarriketetan, eta gudaloztearen indarragaz eragozpidetuta daukiez peninsula onen lurraldean bizi diran, euskaldun, katalan, ta gali-ziarrak, euren Nortasunezko izatasunean daukiezan eskubideko arrazoiak zapalduz.

Zer geiago jakin edo ta ikusi gura dogu, gaur, 1643 urte geroago Europa ta Mundu osoan, aiek batu zaleen antolamenduzko erabagi txarrak artu ziran bidetik, katietuta ager-tzen garanean, antolakuntza orreik goitik bera “diru zaleentzat eginda egonez gain, sasika-toliko jainkotasunaren serbitzura” IVn gizalditik eginda dagozenean ?.

Antolakuntza orreik ikusita, ez gara arritu bear, gaur diru arloetan zer sortzen da-nagaz, kopuru guztia esku gitxitan geratzen bada be, norkerizko asmakuntza orreik euren sasiko legeen arrazoikaz, lan bikaiñean erantzunda beteta agertzen diralako.

Bereztasundutako mundu Fisiko onetan, Egiñak, EGILLEA daukielako len, sortzen dira gauza oneik.

Sekula ez da sortuko maltzurrezko guzurrik, aurretiko oiñarriak egizkoak izaten ba dira, “EGIAK, EGIA BAKARRIK EKARRI LEIKELAKO”.

Izadi edo Bizi onek daukan egi aundiena: “Fisiko´ki ta Jaungoikuaren Berezko lege bi-dean, gizatu ta baitazko azturan Jendekuntzatuta jaioten diran oldozmenak daukiela baka-rrik “Aberri, Abertzale, edo Aberkoizko Izen-Buru orren Jabetza”, baita Goiko Jaungoikua-ren Lege Bidez, egiten diran, eta egin bear diran Gizaren Asmamenak.

Leenengoak: Eurak diralako jaioten diranak ezerezko asmamen barik.

Eta Bigarren: “Jaungoikuaren Lege bidez oldozmenduta dagozelako, Jendekuntzazko oituran egiten doguzan asmamen guzti orreik.

(1) Erki gobernu = sistema de gobierno político que aspira a dividir el estado en cantones con cierta independencia.

Zer egin ?.

*Berezko Errigizartearen Eskubideak, ardura andiagoagaz elkarteko lanean ordezkatu, Jainkoak gu Gai-Ludi onetara bereztuta bialtzen gaitueneko, zor dautzagun egia dalako.*

## 2. 20. *Saboyatar I Amadeo Aostako dukearen bizi kondaira laburra.*

1.845eko urtean Loraillaren 30ean Turiñen jaio zan, Aostako duke Saboyatar I Amadeo printze au.

Italiako II In Bitor Manuel eta bere emazte Austriako Raniero artxidukearen alaba, Maria Adelaida Franzizkaren semea izan zan.

1.867ko urtean, 20 urte euki eban del Pozo de la Zisternatar Maria Biktoria printzeagaz ezkondu zan.

1.870eko urtean Abenduaren 4an espainiar gortekoak aukeratu eben errege lez.

1.872an Uztaillaren 18an gabaz bere emazteagaz doiala, bera ilteko eraso gogor bat euki eben Madrilleko Arenal kalean.

1.873ko urtean Otsaillaren 14an espainitarren gobernuan asko euki ebazan aurka, eta bertan itzi eban espainitar errege izateari.

1.890eko urtean il zan Saboyatar I Amadeo au Turiñen.

## 2. 21. *I Amadeo' ren erregetzak euki eban aurkaritza.*

Espainitar andikiak eta eleiztar-nagusiak, ez eben onartu I Amadeoren erregetza.

Leen, eurak ondo baiño obeto ibilita II In Isabelen jaurkintz ganorabakoagaz, ez ebalako ontzat artzen 1.868ko iraultzak ezereztu eban II In Isabelen erregetza, eta batera bildur ziralako, politika barri orrekin euren erakundeak ezereztutea, Aberri katolikoen Laterri<sup>(1)</sup> ta jabetzaren aurkari ziran errepublika ta gizarterkerizko politikari, jaurkintzazko ate guztiak zabaldu ondoren.

Eleiza ta andiki oneik, euren alegiñ guztiak II In Isabel leiñuaren alde eginda, I Amadeoren aurka kokatu ziran.

Gertakizun aundienetariko bat, bur-estalkiren matxintasun<sup>(2)</sup> edo iraultza izan zan, Koloma'tar Luis apaizak idatzi ebana, "Txikartasunezko" liburutxoan<sup>(3)</sup>.

## 2. 22. *Saboyako I Amadeo dukeak, emon ebazan lenengo pausoak espainitar erregetzan ezartzeko.*

*Serrano gudal nagusiaren jaurbidea, eta "Adiskidetasunezko ongundearen" porrot edo uts egitea.*

Prin jenerala il ebenetik, Topete almirantea saiatu zan, Prin bera il zorian egon zanean berari eskatuta, sortu eben "alkartezko" jaurkintza aurrera eroan egian.

Eta I Amadeo era berdiñean, Serrano jeneral batu zalea, aurkeztu eutsoen gortekoari, ministru batzarraren lendakaria izateko, eta bai "alkartezko" gobernu bat irasi egian, 1.869ko konstituzioa ezarri ebenetik I Amadeo errege izendu arte, bera izan zalako erregearen ordezeko ardurea eroan ebena.

Serranok, ondo bete eban espainitar I Amadeo erregeak agindu eutsona, barri sortu zan demokrazizko errege-zaleen talderako: Praxedes'tar Mateo "Sagasta"ren izenagaz

(1) Aberri katolikuen Laterria = Estado y su confesionalidad con el nacional catolicismo. (2) Bur-estalkia = mantilla, toca. Revolución de las mantillas. (3) "Txikartasunezko" liburua = la novela "Pequeñeces".



ezagutu zana, aurrera zaleen aldetik, jaurpidearen ministeritzarako; eta Ruiz Zorrilla´tar Manuel, pizkortzearen<sup>(1)</sup> politikarako ipinteagaz. Bai ta Itsas-osterako, Kristino´tar Markos “Zinbrio”, ta Lopez de Ayala´tar Abelardo batzango zaleak, aukeratu ziranakaz.

Leen egin ebena, erregetza barriaren lenengo auteskundeak, lurralde nagusien legean izan barik, erri-alde edo auzunaren<sup>(2)</sup> lege zarrarekin antolatzea zan, gobernua euren alde egokitzeko.

1.869ko konstituzioa sortu edo irasi ebenetik, lege orrekaz egin ebazalako auteskunde guztiak.

Alan lortu eben autarki geienak, naita alkar-zaleko errepublikanoak eta karlistak, diputadu asko lortu.

235eko ezar leku lortu ebazan gobernuko elkarteak; 130 aurrera-zaleenak; 80 batu zale, ta muga edo Aosta´tar aldekoak; 20 errege-demokrataren aldekoak; 52 errepublikanoak; 51 karlistak; eta 18 burudun edo zentzuzkoarenak; De los Rios eta Rosas´tar Antonioren aurkako eritzi berrikoak, Montpensier dukearen errege-naia zaintzen ebezanak, 7 autarki lortu eben; eta Kanobas del Castillo´tar Antoniorenak, II In Isabele´en seme XII In Alfonsoren alde egon ziranak 9 autarki.

Serrano beren gobernu ta gorteagaz, 1.869ko konstituzioaren lege aginteak zabaldu bear izan ebazanean, “Eleiza ta Laterriaren baneketa” bezala, “gudarien lerrotzea” ezereztu, edo Kubako borroka eta ainbeste diru emoten eban gizakien joputza ezereztuteakaz<sup>(3)</sup>, iskanbil asko sortu ebazan langille ta beargilleen artean<sup>(4)</sup>.

Muga aldeko batu zale, eta Sagastatar aurrera zaleak, oldozten eben: 1.869ko konstituzioa orekatu ondoren, I Amadeo Saboyako leiñuagaz, jaurri maillan, iraun-arazle edo euslarien<sup>(5)</sup> politikea egin bear zala, lortu ziranari zurkaiztu edo eutsiteko.

Ruiz Zorrillaren aldekoak alderantziz, lortu zanari eutsiteko, bereala asi bear zala gizarteko, diru edo erri-aberaskiaren, eta politikazko arazoak eraberritzen.

*Dana dala, eta baliteke eurak konturatu barik, artu ziran erabagi geienak, Errromata Godo´tar menperatzaile aberri katoliko batzangoaren alde artu ziralako, eta or langilleen eskubide gain, berezko erritarren naigabe edo atsekabeak agertzen ziran, artu ziran neurri guztiak, giza ta errigizarte ezberdiñaren eskubideen gainetik ezarri ziralako. Gaur bertan sortzen jakun lez, tak edo ta arrasta bat kendu barik.*

1.870eko urtean Abenduaren 4an Italiako gortekoak, on artu eben I Amadeo espainitar errege aulkian ezartzea.

1.870eko urtean Abenduaren 27an Martinez Pedragosa, eta Angulotar Jose Paulek, beste batzuen laguntzarekin, Prim eta Prats´tar Juan gudal nagusiaren aurka egin eben tentuzko<sup>(6)</sup> gaiztakeriagaz, Prim oso txarto zaurituta, lupuak<sup>(7)</sup> jota itzi eben, eta 30ean gabeko 9etan il zan, I Amadeo erregea Kartajenako itxas portura eldu zan egunean.

*Espainitarren jaurri edo jaurpidea urte oneitan eta 1.936ko urterarte, erdiugarte onen errigizarteko jaurkintza, berezitasunezko legearen kanpo edo guzur aundi beten gainean ipiñi gura ebelako, konstituziozko guzur andi ori egistuteko ekingintza ezarrita, euren gauzeza erakutsiz gain, zoroetxe baten biurtu eben gauza baiño besterik ez zan izan, gudal na-*

(1) Pizkortzearen politikarako = Fomento. (2) Lurralde Nagusienak izan barik, Erri-alde edo auzunaren lege zarrarekin egiteko = Votaciones que en vez de realizarlas con las circunscripciones provinciales, realaizarlas con las antiguas leyes electorales de distritos. (3) Joputza ezereztu = abolición de esclavitud. (4) Langille eta beargilleen artean = fricciones entre obreros y jornaleros. (5) Iraunzale edo euslarien politika = que tenían que llevar una política conservadora o sustentativa de lo logrado. (6) Tentuzko astakeriagaz = prudencial, hecho con tiento. Astakeria = animalada, asnada. (7) Lupuak jota itxi eben = herido de muerte. Lupu, lupus = ponzoña, veneno.

*gusi guztiak bata bestearen aurka, gualoztearen keiñada edo meatxuarekin ibiltzen ziralako, aberkide katolikotasunaren aurka ta alde, ezer lortu ezinik.*

*Orregaitik antolatu eben orduko Europaren erlijiozko-guda au eztabaida onetan, eta Europaren ardatzak izan ziranakaz: Hitler, Mussolini, Batikanoko Eleiztar Katolikuak, eta Erdiugarte onen gual nagusiekaz, Franko eta Molak bideratu eben “Gurutzadaren Sa-kratuzko guda, Aberrri Katolikoaren izenagaz”.*

*Erdiugarte onen bereztasunaren jendekuntzazko eta benetan Goiko Jainkoaren Egi Bi-detik egizko aberrien jabedunak diran Euskal, Katalan eta Galleguak bezela, gorri ta inper-nuko diabru lez, ager-araziazota edo salatu ondoren, gero ezereen begirun barik tiroso ilteko, gauza txarrak izan ba ziran lez.*

*Noren eskuetan ote dago “Urregaz-Zekortutako-Sasi-Jainko Ori ?.*

*Eta ez dagiezala inor guzurtu: “Erdiugarte oneri espainitar izena ipinteko, eurak egin da-ben guztia, demokrazizko egian egin dabela esaten dabenean, guzur utsa dalako”. Egin daben guztia, gualozte eta izkilluaren meatxuagaz egin dabelako beti, eta bada ez badan, 1.936ko katoliko aberkidearen sakratuzko gurutzadaren guda, eredu lez ipiñita, ez gaitzean aaztu.*

1.870eko Abenduaren 30ean eldu zan Kartajenara Saboyatar I Amadeo Aostako dukea, eta egun berean gaueko 9etan il zan Prim eta Prast´tar Juan, espainitar gual nagusia. I Amadeori esanda, zelan iru egun ariñago gaiztakeri<sup>(1)</sup> bat euki ondoren il zala.

1.871ko urtean Urtarrillaren 2an eldu zan Madrillera Saboyatar I Amadeo, espainitar erregetzako zuzendaritza artzeko. Eta egun berean ziñ egin eutson 1.869ko konstituzioari.

Geroago Atotxako Amabirjiñaren eleizara joan zan, Prin´en gorputzari agurra emoteko.

Eta espainitarren politikazko eztabaida oneitan, Saboyatar I Amadeo aukeratuta euren erregea izan zedin, II In Isabel eta beren loba Borbon ta Ekialdeko Austriatar Karlos Maria de los Dolores, VII In Karlos izenagaz ezagutuko zana aurkari agertu ziran, eta jaramonik ez eutsielako egiten, VII In Karlosek indarrezko jazarraldiz, gud aurkeztu eutsoen, bere Borbon leiñuaren erregezko eskubideak barriz ezarri gurean.

Aurkari guztiak batu ziran I Amadeoren aurka, eta Kastelar ta Ripoll´tar Emiliok, I Amadeo erregea batzarrean egoala esan eutsoena, au izan zan: “Eritzizko egoera onetan ikusten dogunagaitik, obe izando litzake espainitar erregetzatik alde egingo ba zenun, Hohenzollern-Sigmaringen´tar Leopoldo Beljikako erregeak espainitar errege izan bazan, egingo eban lez, ez badozu asken baragarri bat euki, Mexikon I Maximilinok euki eben antzera...”.

1.870, 1.871ko urte oneitan, karlistak matxinatzeko alegiñetan ibili ziran beti, baiña antolamenduzko gorputzan beti agertzen ziran zeozeren utsaldi baten.

## **2.23 (3) 1.871ko urte onetan, Arana ta Ansotegitar Santiago, Arana ta Goiritar Sabinoren aitak, beren itsas ontziko lantegia zaintzen eban yagole etxean, Uribarritar Franzizko karlistaren gual nagusia euki eban ostonduta, guda azten zanerako bere gual taldeakaz arduratu zedin.**

*Sabino denbora onetan, Errepublikako eskoletan asi zan bere lenengo ikasketarekin.*

*1.871ko urtean karlistak euren gobernurako egin ebexan auteskundetan: Nobia de Salzedotar Alejo, Aranatar Santiago, Oruetar Juan E., Garrotar Jose, Basozabaltar Juan, Ingunzatar Tomas ta Praderatar Gregorio, Aranatar Santiagoren garazkideagaz<sup>(2)</sup> batera, guda izkillu edo guda tresnaren eta erribabesaren batzar nagusiko kideak izendatu ebexan.*

(1) Gaiztakeri bat = un atentado contra su vida. (2) Garazkideagaz = accionista, cointeresado.

## 24. *I Amadeoren aria ostera artuta.*

Arazo larregi euki ebazan, politika arloa aldakor edo alaberakoa zalako, adibidez: “Juan Prin´ek alkartu eban gobernu, bere il ostetik apurtu zalako; Serrano´tar Franzizko izan ezik, Liberalaren Batasunezkoak, Borboi´tar leiñuaren alde kokatu ziralako; aurrekoiak, Zorrillatar Ruizegaitik bideratuta; eta konstituzionalen Sagasta buru zala, eskubi-ertzekoen taldean biurtu ziralako.

Sei ministeritza aldatu ziran I Amadeoren urte biko-jaurri labur denboran, autapenetan gero ta andiagoa izanda euki eban utziera edo gabetasunezkoa.

1.871ko urtean Uztaillaren 15ean Zorrilla ta Ruiz´tar Manuelen leenengo gobernu sortu zan, I Amadeo erregeak ez ebelako beste aukerarik. Aurrekoiak ziran Martos, Zorrilla ta Ruiz´tar Manuel, Berenger eta Moret´ek eukezan ardurai uko egin eutsoean, Serranogaz euki eben adiskideko gobernuagaz bakarrik geratzen zalako.

1.871eko urtean Urrillaren 5etik, Abenduko 21erarte iraun eban almirante ordearen aurreko almirante<sup>(1)</sup> Malkanpo´en gobernu.

Erregeak, Espartero´tar Baldomeroen ezetza artu ondoren, bera zarra zalako gobernu osotzeko, eta Zorrillak ez ebalako gura beren eritzitik urten nai, Sagastari eskatu eutson gobernuaren antolamendua, eta onek be, ez ebelako gura, Zorrillak oldoztu egian berari aurkaritzarik egiten eutsela, beste bat aukeratu egiala esan eutson, eta erregeak orduan, 1.868ko iraultzan Topetek eukun gobernuaren kide arteko Malkanpori emon eutson ardura ori, denbora gitzi euki ebana, ezer egiteko.

1.871ko urtean Azillaren 10eko ingurutan “Erriarteko Langillearen Alkartea” apurtzeko alegiñean ibili ziran euren indar guztiagaz, eta urte onen gorteko auteskunduetan lortu eben ezereztutea, batzango zale, aurrerakoi “sagastinoak” ta karlistak, 192 autarki lortu ebenean, alkartuko errepublikanoak lortu eben 38ren aurka.

A ta guzti, “Erriarteko Langillearen Elkartea” ori, ez zan debekatu, Goiko Epaitegiaren salatariak<sup>(2)</sup>, 1.869ko konstituzioak, baliatu edo babespetu egiten ba ebazan bal-tzu edo lagundi orreik, “Erriarteko Langillearen Elkartea” ori be legeztu egiten ebalako.

Eta Erriarteko Langillearen Elkartea orrek bere zeregiñakin aurrera egin eban 1.872ko urtearen Jorraillan Kataluña, Andaluzia, Balentzia eta Murtxiako esku-langilleak, orokorrezko langilleakaz, Zaragozako bigarren biltzarra egin eben arte. Gero Kordubako biltzarrean baieztu zana 1.872ko urtean Abenduaren 25etik, 1.873ko urtean Urtarillako 3´en bitartean.

1.871ko urtean Abenduaren 21ean artu eban Sagastak aurrekoiezko gobernu ori, zati bitan laster apurtu zana: Praxedez´tar Mateo Sagastak bideratzen eban gordetzailleen “Liberal Batasuna”, ta ori baiña aurrerakoi ziran gordetzailleen arloetan “Demokrazizko Aurrerakoiak” deitzen ziranak, Ruiz eta Zorrilla´tar Manuel´ek bideratzen ebana alde batetik, eta bestetik, “Sustraiko alderdi<sup>(3)</sup>” edo errege aldeko Demokrazizko Monarkikoak “Zinbri” edo deituz, Martos´tar Kristino eta Maria Ribero´tar Nikolasek bideratzen ebana.

Amaika alegiñ egin ebazan, danak baiña, ezerezean geratu ziran.

1.872ko urtean Uztaillaren 19an I Amadeok, gaiztakeri bat euki eban bere aurka, eta berba auek esan ebazan aukera orretan: “Ezer ez dot aituten”, *au baiña*, “Kirkir edo txirritegi baten antzekoa da”<sup>(4)</sup>.

(1) Almirante ordearen aurreko almirante Malkanpo = contraalmirante Malcampo. Vicealmirante anterior al almirantazgo. Y anterior a vicealmirante = contraalmirante. (2) Goiko Epaitegiaren salatariak = fiscal del tribunal supremo. (3) Sustraiko Alberdi = partido radical. (4) Kirkir edo txirritegi baten antzekoa da = más parecido a una jaula de grillos.

Gauzak, gero ta okerragoak biurtu ziran Karlisten irugarren borroka eta Kubako 10 urteko borrokeagaz.

Eta jazar edo etsaitasun orreitan, 1.872ko urtean asten da irugarreneko karlisten guda.

1.873ko urte asieran gaiñera, euren artean egon ziran eztabaidagaitik, Jaurkintza-aren alkartea banandu egin zan, itxura orregaz aurkeztuta euki ebazan autespenetan.

Eta opil-garratz orren gaiñ ipiñi zan ginda, Zorrilla´tar Ruizek aukeratu eban, kañoidun taldeakin euki eban eztabidakaz, ezereztu gura ebalako kañoilarien taldea, bere ardurazko zeregiñak itzi edo ukatukoen keiñadagaz.

Eta guzti au ikusita, gudalozteen agintariak I Amadeori eskatu eutsoen, “*gortek albora itzita, Nagusikeriz jaurritu egiala espainitarren erregetza*”.

## 2. 25. *Erregeak, ertzerakoiezkoakin euki eban estutasuna.*

1.873ko urtean Urtarrillaren 29an I Amadeo erregeak, bere emaztearen aurgintza oso gogorra zalako eta egun bat atzeratu ebelako bere ondorengo semeen bataio edo izena ezartzea, ondo jantzita eta ainbeste denboran zutik egon ziran gobernukoak, narda antzeko baten sartuta, txartxat artu edo, ertzerakoiezko-geikerizkoak erregeagaz eztabaidakatzeko, asarre antzeko bat asmatu eben, erregeak gobernuko agintariak kendu gura ebazalakoen aitzakiagaz, konstituzioaren zaleak ipinteko alegiñean.

Bide orretatik iraunda, gobernuko ertzerazkoiak jakin eben, erregea, Serrano gudar agintari nagusiagaz alkartu edo egon zala jauretxean, au, bere semearen bataiora joan zediñ.

Erregeak baiña, bere konstituziozko talde agintariakaz egonda, ta jakinda zer gertatzen zan, Serranori egin eutson deia, eukan gaisoa ezereztu ebalakoen aitzakiagaz, eta aurkariari bildur euki eutsolakoen surmurrezko asmo orreik itxur-gabetzeko, gorteen ardurazkoak etenbageko kidetasun edo egokitasunezko<sup>(1)</sup> batzarraldian batu dagiezan erabagi eben.

Gobernuak egin eban ariñezko agerkereagaz bakarrik, geratu al ebana.

Gortekoak baiña, jakin-arazi eban, eurak guztiz jakitun egon zirala errege semearen jaiotzagaz, eta ezeren itzaldi ta solasaldibage ospatu zan, errege-seme orren agerkera.

Erregeak, Zorrilla´tar Ruizeri, berak gerta zan guztiagaitik euken atsekabetasunezko egoera aurkeztuta: “ez ebalartuko iñoren menpekotasunik, ta gertu egoala bere aolkuzko baitan, agertzen ziran gauza guztien gora berarako” esan eutson.

1.873ko urtean Otsaillaren 10ean aurkeztu eban I Amadeok bere agiri-uztea espainitarren gortean.

Madrilarren esanetan ziurtatzen dana baiña: 1.873ko urtean Otsaillaren 11ko eguerdian esan eutsoela I Amadeo erregeari, “erregetza utzi bear ebela”, eta bazkaria eskatuta eukelako Fornoseko Kafetegian, eskatuta eukena ez atarateko agindu ostean, *Grappa* eskatu ebalartuko gauzea jatearren, eta bere sendi edo etxeakoak batu ondoren, yeregin edo uko egin eutson bere erregezko zeregiñari, Italiako arduradunen ordezkartizan babespetuta.

Eta bere espainitarren errege legezko amaiera aurkezteko, eskutitz bat idatzi eban, bere emazteak irakurri eutsena espainitar ordezkoari. Bere luzeragaitik ez dodana argitzen.

(1) Kidetasun edo egokitasunezko batzarraldian batu zitezen = que se reunieran en convención de sesión permanente.

1.873ko urtean Otsaillaren 11 orretan, Zorrilla´tar Ruizek egin ebazan alegiñak, erregea ostera itzuli egian bere zeregiñetara, alperrezkoak ziran, Errepublikatarren arteko alkarte batek, ontzat artu ebalako I Amadeoren uztea. Eta bertan aldarrikatu edo oiztatu zan espainitarren Igo Errepublikoa.

Au izan zan espainitarrek egin eben leenengo saioa *Konstituzioaren biltzarrezko errege ipinteko*, edo *Demokraziazko-erregetza*, bere osteko denboratan esan jakon lez.

## 26. (4) *Sabinoren leen ikasketak.*

*Sabinok, bere ikasketak Abandon bertan asi arren, 1.873ko urtean 8 urte euki eba-la, Lapurdiko euskal lurraldeetan eta Donibane Loitzunaren kantonamenduko Getari erritxora joan zan bere ama ta anai bigaz, aita aurretik Ingalaterra aldera karlisten gudarako izkilla ta bear ziran tresneriak eroatera joanda, bera Laburdiko euskal Iparrean atzerrituta egon zan lekuan, ostera agertzen zanean beragaz aurkitzeko.*

*1.873-1.874ko urtetan, Baionan bete zituzen urte onen arteko ikasketak.*

*1.875-76 urte arteko denboran barriz, Donibane Loitzuneneko ikasketak osotu, azken azterketak, Ondarribin osotuaz.*

## 2. 27. *Ostera edestiaren ariari ebatuta:*

1.873ko urtean Otsaillaren 11tik, 258ko autarki, 32 autarkiren aurka irabazita, 1.874ko urtearen Urtarrillako 3an Pabia gudal nagusiak laterrizko matxinada egin arte iraun ebena, eta Abenduaren 29an Kanpos´tar Martinezek, Borboien erregetza berrezkuratzeko agindua emon eban arte.

Zortzi jaurbide aldatu ziran: 1.873ko urtean Otsaillaren 11tik, 1.874ko urtean Urtarrillaren 3rarte, bost jaurbide aldatuz. Eta 1.874ko urtean Urtarrillaren 4ko egunetik, 1.874ko urtean Abenduaren 29rarte beste iru aldatuta.

1.874ko urtean Urtarrillaren 3ko egunerarte, Pabiatarrak matxinatu ziran bitartean, lau lendakari aldatu ziran, leenengo elkartasunezko errepublika labur orretan: leena, Serrano gudal nagusiaren agindupean, konstituzionalen alderdiko buru zana, eta iru gauza onengaitik porrot egin ebana: “irugarren karlistaren guda”, “erki-zaleen<sup>(1)</sup> matxintasuna”, eta “Kuban sortu zan 10 urteko gudagaitik”. Kanpos´tar Martinezek Sagunton egin eben aldarriketaz amaituta.

Gero 1.873ko urtean Otsaillaren 11tik, Bagillaren 11karaiño Figeras´tar Estanislao´ren jaurkintzazko lendakaritzara aldatuz.

1.873ko urtean Bagillaren 1ean “Elkartasunezko Errepublikaren Aldarrikapena”, eta Figeras´tar Estanislaoen iges edo ies-egitea.

Pi ta Margall´tar Franzizko´ren, Errepublikako 2garren lendakaritza, bere jaurkintzazko egitarauagaz ezagutu zan: “Karlisten guda amaitu”, “Eleiza ta Laterrien arteko berezketa”, eta “Gizaren joputza ta menpekotasunak ezereztuteagaz”, 1.873ko urtean Bagillaren 11tik, Uztaillaren 18rarte iraun ebena.

Erki-zaleen matxintasuna eta Pi ta Margal´tar Franzizkoren utziera.

1.873ko urtean Salmeron´tar Nikolasen jaurkintza eta erki-zaleei egin eutson ertsaldi edo atxikidura<sup>(2)</sup>. Uztaillaren 18tik, Iraillaren 7raiño iraun ebena.

(1) Erki zaleen = comarca, región, país, provincia. (2) Ertzaldi edo atxikidura = represión.

1.873ko urtean Kastelar´tar Emilio´ren jaurkintzazko lendakaritza, Irailaren 3tik, 1.874ko urtean Urtarrillaren 3rarte.

Eta 1.874ko urtean Urtarrillaren 3an Pabia gudal nagusiak egin eban Laterrizko matxintasuna.



*Borbon ta Austria-Este´tar Karlos Maria.  
VIIIn Karlos´en izenakin ezagutu zana.*

1.848ko urtean Epaillaren 30ean, Vn Karlosen birseme, Madrilleko duke ta Di-kastilloko kondea, VIIIn Karlos onek: len Austria antziñeko Lenbatx, gaur Yugoslabia-ko Liubliana Uri zorionsuan jaio zan.

## 2. 28. *VIIIn Karlos erregenai onen bizi kondaira.*

Beren gurasoak: Borbon ta Braganzatar Juan, eta Ekialdeko Austriatar Beatrizen semea izan zan.

1.859ko urtean: Italiako gudaltegi baten lerrokatu zan kañodun taldeko kapitain ordezko edo teniente maillagaz.

1.864ko urtean, Bere aita Juanek: naita espainiarren erregetzari uzkundea egin arren, bere amama Beirako erregearen alabea izan zanak, 1.864an agiri bat argitaratu eban bere billobaren alde, “Carta a los españoles”, Juan bere aitak 1.868rarte ez ebena onartu.

1.867ko urtean Otsaillaren 4an: Biena inguruko Frohsdrffeko Urian, Borbon ta Parmatar Margarita Parmako dukearen alabeagaz ezkondu zan.

1.868ko urtean Irailaren 7an Grazt Urian, bere lenengo alaba “Blanca de Castilla” jaio jakon.

1.868ko urtean Urrillaren 3an bere aitak IIIIn Juan liberal eritzikoa zalako, eta karlisten leiñuzko eskubideak ukatzen ebazalako, askenean VIIIn Karlosen eskuetan itzi ebazan, espainiarren errege izateko euki ebezan eskubide guztiak.

1.869eko urtean Bagillaren 3an, 1.868ko urtean espainiarren gizarteko gudatik<sup>(1)</sup> berentzat onura atara gurean, karlistaren aldeko agiri bat aldarrikatu edo zabaldu eban, denbora onetan berak Madrilleko dukearen izena artuta.

(1) Espainiarren gizarteko guda oneri, la “gloriosa” esan eutsoen.

1.870eko urtean Jorrailaren 18an, VI In Karlos bere osabaren karlista eskubidea eskuratu, eta karlisten gobernuko zuzendaritza artu eban.

1.870eko urtean Bagillaren 27an Suizako Bebey urian, bere bigarren seme III In Jaime jaio zan, bere aitaren ondorengo eskubidekoa izanda.

1.871ko Uztaillaren 28an Jinebran, bere irugarren alaba Elbira jaio zan.

1.872ko urtean Loraillaren 2an Auñamendiak igaro ta Larruneko Egoaldean *Txapatar Karlos* en baserrian lo eginda, Beratik sartu zan garaitsuki Nafarroara, sasigudan ibili ziran 1.500 gudari txarto izkillotutako taldearen zuzendaritza berak eroateko.

1.874ko urtean Epailaren 21ean Frantziako Pau Urian, bere laugarren alaba Beatriz jaio zan.

1.876ko urtean Otsailaren 27an, gudako ekintzan alfonsinoak menperatuta, ostera igaro bear izan ebazan Auñamendiak, Frantziko lurraldeetara iges egiteko.

1.876ko urtean Bagillaren 29an Frantziako Pau Urian, bere bostgarren alaba Alizia jaio zan.

1.880ko urtean, espainitarrak euren zentzuzko jaurgoa lortu ebenean alde batetik, eta bestetik, Kanobasen politikagaz apur apurka, bere politikaren oiñarrizko zentzuan azpiratutena edo menderatuta geratzen asi zalako, VII In Karlos frantzitik be, alde egin bear izan eban.

1.893ko urtean Urtarrillaren 21ean, Biaregion il jakon bere emazte Margarita.

1.894ko urtean Jorailaren 28an Pragan, Rohaneko Urian bigarrenez, M<sup>a</sup> Bertagaz ezkondu zan.

1.900ko urtean, ostera alegintzen da Badalonan beste iraultzaren ekintza bategaz.

1.909ko urtean Uztaillaren 18an, Italiako Barese urian il zan VII In Karlos, 61 urte euki ebazala. Beren erregetzazko naikundeak, bere seme Borbon eta Parmatar III In Jaime Txalbeteko dukeak eskuratuta.

## 2. 29. 1.872ko matxintasuna.

1.872ko urtean Jorraillaren 2an egin ziran auteskundetana, espainitar jaurlaritzaren gobernuko ministruak euren norkeriaren maltzur naikeriagaz liberalaren alde geiegi ibili ebena, euskaldunak ostera artegatu ziran, eta ixil jokoaren sasigudak antolatzen asi ziran.

Ez zan arritzekoa euskaldunen asarrea, auteskunde orreitan ministruaren maltzurrezko eragintasunagaitik, ainbat ilda egon ziran gizonak, bozka edo autarkia emon ebalako.

Espainitar gorte orreri "Lazaroen" gorteko izena ipiñi eutsoen.

Euskaldunak ariñautik jakin eben ministru orreik, norkerizko maltzurkeriaren jo-koagaz zer gura eben, 79 ordezkartik 10 edo 12 bakarrik joan ziralako.

Karlistak, ille orretan amaitu ebazan matxintasunaren prestakuntzak.

1.872ko urtean Jorraillaren 8an VII In Karlosen idazkari Arjonatar Emiliok, oldoztu edo asmatu ebazan matxinadaren arauzko aginduak emon ebazan:

- a) Jerona, Figeras, Seoko Urjel, eta Iruñako gudaltegietan orokorrezko matxintasuna.
- b) Denbora bardin orreitan, Bilbao erasotu.
- d) Euskalerriko lau lurralde, eta Kataluñako lau lurraldearen orokorrezko matxintasuna.
- e) Donosti, inguratuko erasoan ezarri.

Eta Euskalerriaren lurraldeko agintaritzan, Nafarroa be kontuan artuta, Diaz de Radatar Eustakio, gudal nugasitasunezko arduratan ipintea.

1.872ko urtean Jorraillaren 15ean VII In Karlosek Jinebratik, Nafarroa, Aragoi, eta Kataluñaren mugako agintaritzan egon zan Diaz de Rada gudal nagusiari agindu au emon eutson: Jorraillaren 21eko egunean, espainitarren lurralde guztian matxinatu zitezela aldarrikapen onegaz, “Abajo el Extranjero” “Viva España” eta “Dios, Patria y Rey” karlistaren ikurragaz.

1.872ko urtean Jorrailaren 21ean espainitar liberalak be, gudaren aldarrikapena sortuz.

## 2. 30. (5) *Sabino´ren bizitza artuta.*

*1.872ko urtean Arana ta Goiritar Sabino 7 urte euki ebazala, Errepublikako etxean egon ziran Abandoko Udalaren mutil nesKaren eskoletako batean asi ebazan bere ikasketak.*

*1.872ko urtean Jorraillaren 21ean Arana ta Ansotegitar Santiago, Arana ta Goiriar Sabinoren aita izan zanak, aurregunean sendia agurtuta eta iges egiten atzerrira joan bear izan bazan lez, lenengo Sukarrieta eta gero Mundakara joan zan ostonduten, lurralde ori jakinda, Goiriena Josu lagun apaiza euskal abertzalea eta berak aginduten eban taldearengaitik kontrolatuta egoala.*

## 2. 31. *1.872ko matxintasunaren aria oster berrezkuratuz.*

1.872ko urtean Jorraillaren 21erako gertatu zan matxintasuna baiño ariñago, VII In Karlosek Europako kantzillergokoari mezu au bialtzea erabagi eban, bertan esanda: “berak ezin ebal norkerizko guzur, maltzur, eta legegabekeri geiago onartu, auteskundesetan egiz aukeratuak ziranak, gorteko aulkietan ezarri zitezen”.

1.872ko urtean Jorraillaren 21eko egun orreitan, Radatar Eustakio karlistaren gudal nagusia, Beratik sartu zan Nafarroara.

Olotar Nikolas, matxinada onetan indartsuena izango zanak, Etxaurin eun bat gazte batu ebazan, VII In Karlos, errege lez aldarrikatuz.

Karasatar Fulgenziok, Nafarroako Iguzkitzaren ibarrean, eta Jurramendi mendiarren ondoan dagoeneko Morentin errian, bardiñ egiten dau 1.000 gazteekin.

Nafarroako matxinada osotzeko ibili ziranen artean, Zunzarren, Perula ta Miranda izan ziran.

Bizkaian: Abadiño, Arratia, Markina, Gernika, Bilbao, Enkarterria, Mungia, Berriatua, eta Ondarroan, askeneko erri au Udaleko alkatearen aginduan egon zana, matxinatuta egon ziran erriko gazteakaz, eta gero jende geiagorekin indar orreik andia-gotuta, Bizkaia izan zan lau euskal lurraldetatik, Euskal Foru edo “Lege Zaarraren” sinismenakin bere baitan ardura aundienean agertu zana.

*Begitu bestela, zelango alegiñakin ibili ziran dirua euki eben Bizkaitarrak, Sabino Aranaren aita Aranatar Santiago bezala, bere itsas ontziak VII In Karlosen agindutara ipiniz gain bere zarpeletik 50.000 ogerleko ordaindu izkilluak erosteko.*

*Eta gainera tresneri orreik ekarten arduratu, karlisten gazteak izkilluz tresnatzeko.*

Araban: Kareagatar Ezekiel, Kalle, eta Martinez de Belasko, Aldundiko miñoiak eta bidekariakin batera, euki eben tresneri guztiakaz aldatu ziran karlisten aldera.



Gipuzkoako Ataunen: Rekondo matxinatuen buru zanak, 800 gizon inguru bagaz osotu eban gudu talde bat, Dorronsorotar Migel politikari karlista eta Santa kurtz'ar Manuel apaiza artean zirala.

Ordizian: Aiaituiren agintaritzan, eta Zaldibia ta Lazkaoko apaizakaz lagun zala, 400 gizoneko talde bat atondu zan.

Azpeitian: Amilibiaren taldea, Izarraitz menditik asi zan sasigudan 500 gizonekin.

Eta Saboiatar Amadeo, espainitar errege barria izan zanagaz, bakean egon ba ziran peninsula onen lurraldeak, Kataluñakoak izan ezik, karlistek, espainitar lurraldeentzako atondu eban egitarauari, iñork ez eutsolako jaramon eginik, izan zan.

Karlistak egin eben egitarauzko burupidetik, ez ziralako matxinatu agindu ziran Aragon, Balentzia, Guadalajara, Kuenka eta Andaluziaren gualtegiak, txinparta malkatzukaz izan ezik, asi ziran.

Baiña alderantziz Fernandez ta Almagrotar Meltxorrek esan eban lez, Foru Legezko errien erritarrak emon ebela garrantzizko erantzun aundi ta ederrena karlistaren alde, euren askatasunezko Foru Legeak ardura andiz berrezkuratu gura ebazalako.

1.872ko urtean Jorraillaren 22an Basozabalek, Urkiolan euki eben gudaren lenengo borroka, euren 30 guardia zibillaren taldeagaz liberalaren aurka, astintasun ederra artuta.

1.872ko urtean Jorraillaren 22an Bilbaon: Laguntzaillearen gual talde bat antolatzan da, lenengo edo 1.832-1.839ren artean egin zan, zazpi urteko gudaren gizonakin.

1.872ko urtean Jorraillaren 23 ta 24ko egunetan, karlista gazteen lenengo garaipenean, Gueñeseko Kuebillasen taldeak, 23 erriko-mutillak<sup>(1)</sup> menperatu ebazan.

Nafarroan, Lizarra ta Tafallako erri aldetik joanda, Abarzuzako erritxoan batuta egon ziran 2.500 gudariak, Amadeo erregearen gualozteari, Arizalararte atzeratuazo eutsoen.

Askenean, VIIIn Karlosek, garaipenak lortzeko euki eban artegatasunean, beragaz batera gudariak izkilluakaz tresnatzeko, amaiezko ezean aurkezten zan lez, baldintza orreik izando ziran lardazkatu edo lorrindu egingo ebezanak, karlistak, Nafarroako lurraldeetan lortzen ebazan garaipen txiki orreik zaindu edo eutsiteko, baita ondoren Euskalerrri osoan.

1.872ko urtean Jorraillaren 27an, Diaz de Radatar Eustakio karlistaren gual nagusiak, kontuan eukiten ebalako VIIIn Karlosen egoera, eskutitz bat idatzi eutson: "Añamendiak ez egiazala aldatu peninsulan sartzeko" esaten eutsona.

1.872ko urtean Lorailaren 1erako Uribarritar Franzizko karlistaren gual nagusiak, denbora gitxian, 400 guda mutilleko 7 talde sort arazi ebazan, Gernikan egon ziranak, Guda Aldundia irasteko.

1.872ko urtean Lorailaren 1eko inguruetan, Diaz de Rada bera, ibili zan zai, eta beren gualozteakaz begira Mendebaleko Añamendietatik, ia VIIIn Karlosek Añamendiko mendiak aldatzen ba ebazan.

1.872ko urtean Lorailaren 1ean VIIIn Karlosek baiña: Añamendiak igaro ta Larruneko Ego aldean "Txapatar Karlos"en baserrian lo egin eban.

1.872ko urtean Lorailaren 2an, Beratik sartu zan VIIIn Karlos garaitsuki Nafarroara, 1.500 gudari txarto jantzi ta izkillotutako sasigudan ibili ziran taldearen zuzendaritza bere agindupean artzeko, eta agiri bat zabaldu eban euskal ta espainitar jendeari esaten, bera euren artean egongo zala borroka ori irabazteko.

(1) Erriko-mutillak = para los españoles la guardia civil. Euskaldunentzat = Ertzaiñak, edo Udalekoak izaten ba dira, Udalzaiñak.

Eta 1.872ko urtean Lorailaen 2an asten dira espainiar liberal gudalozteak, Lesaka, Artikutza, eta Labaieneko mendietatik karlistaren aurka, eraso amorratu baten.

1.872ko urtean Lorailaren 4an Morionesen liberal guda indarrak, ustekabeen arapatu ebazan izkillu ta araubide barik guztiz nekatuta egon ziran karlisten gudariak, Orokieta eta bere inguruetan edozein modutara ibili ziranak.

VIIIn Karlos bera be, larritasun aundiagaz iges egin bear izanda, Ultzamatik Kinto Realera igarotzeko, eta Lorailaren 5ean Frantziko lurraldetan sartzeko.

Borroka onetan, 700 gudari karlistatik gora atxilotu, 38 il eta 49 itsas ostera atzeritu ondoren, espainiar liberalaren Gortekoak, Moriones guda nagusia, jeneralaren ordezeko eta Orokietako markes izenagaz dotoretuz, ondo jantzi eben.

Nafarroako matxinadaren lenengo porrota, eta bereala Arabakoa gertatu zanean, Karasa ta Perula liberalen guda nagusiak, Aranako San Bizenteraño sartu ziran.

Eta zentzun orretan porrokatuta, edo azken gaizto orretan amaitu zan Nafarroan lenengo matxintasuna.

Ortik denbora gitxi barru Arabako lurraldean, Perusa ta Karasa karlista guda nagusiak, Aranako San Bizenteraño sartu ziran.

*Eta izendun aundiak izan ziralako, Dorronsorotar Migel, Santa Kurtz apaiza, Lizarragatar Antonio, eta Dorregarairen bizi kondairak aurkeztuko dautsuedaz.*

## 2. 32. *Dorronsorotar Migelen bizi kondaira laburra:*

Ataunen, 1.812ko urtean jaio zan Gipuzkoako euskal politikari karlista entzutetsu au, eta Oñatin bete ebazan bere zuzenbiderako ikasketak.

1.854-56-62-1.864ko urteetan izan zan Gipuzkoako Aldundiaren ordezkaria.

1.873ko urtean Oiartzunen, itzaldi aipagarria emon eutsen gipuztarrai.

1.862ko urtean “San Martin de la Ascensión con Martin Loinaz”en liburua argitaratu eban.

1.896ko urtean, “Amunabarro” Beasaingo semearen liburua.

Eta berea da, “Lo que fueron los reyes de España y lo que ha sido y es el liberalismo para con los fueros de Gipuzkoa” izeneko idazlana.

## 2. 33. *Santa Kurtz apaizaren bizi kondaira:*

1.842ko urtean Epaillaren 23an jaio zan Santa Kurtz eta Loiditar Manuel Inazio apaiza, Gipuzkoako Leizaran ibaiaren ondoan dauan, Elduaien errikkako sendi apal baten.

Oso gazte zala umezurtz geratuta, bere osaba Sasiain eta Santa Kurtz´tar Patxi lekaideak artu eban bere ardurapean, lenengo latin eta Gizatasunaren ikasketak berak emonda.

Gazteizeko apaizgaitegian sartu zan gero, eta ikasketaren azteraldietan, azter-agiri aundienak ataraten ebazan ikasgai guztietan.

1.866ko urtean apaiztu zan, eta urte bi geroago, Tolosaren urbil dagoan Ernialdeko parrokian ipiñi eben zuzendari.

Denbora orreik, bigarrenko karlistadaren antolakuntzazko denborak ziran, eta berak ez eban ostondu karlisten aldekoa zala, karlista gudariak izkillutzeko, berak izkiliuaren mugausteko lanetan ibilita<sup>(1)</sup>.

1.870eko neguan edo udazkenean, bera Errialden goizetik, Meza Santua emoten egoala agertu jakozan espainiarren gudariak atxilotzen, eta Meza Santua amaitu eban, gudari orreik maitakortasun edo begiramen aundienean artu ondoren, eurekatz joan baiño len gosari txiki bat artzea eskatu eutsen.

Eta gudariak kanpoko atean ezarrita itxaroten egon ziran bitartean, berak gosaldubarik, bere abade jantziak erantzi, baserriarrenak jantzi, eta eleizgelako leiotik iges egin eban.

1.872ko urtean, berak 30 urte euki ebala asi zan basa gerlariko lanetan.

-Lenengo, Gipuzkoako karlista gudarien kapellau. Eta alango borroka baten, karlisten guda indar orreik porrokatuta, Segura erritik alde eginda, iges egiten egon ziran mendi barrenetik, Santa Kurtz apaizak, liberalen gudu indarrak zirikatzen ibili zan Segurako erria ostera berrezkuratzeko.

-Karlisten guda nagusiak, zentzugabekeri bat lez artzen ebazan Santa Kurtz apaizak egiten ebazanak.

-Ekañan baiña, bera saminduta egoan espainitarrakin bere arreba il ebelako<sup>(2)</sup>, eta Azkoitiko odol aitorle edo martirien tokian 24 karlista gudari gazte ta bioztsuakin topo eginda, eta eurak bideratzeko eskatu eutsoenean, basa gudan asi zan, talde orren buru zala.

Ille bi beranduago, beren belarrira eldu zan, Arrasateko bidetik, guda jarraigo edo su-burdi luze bat, izkiliu, eurentzako tiroiñak, eta aldean eroateko larruzko tiroin ontziz beterik joan zala.

Sarearte edo zelata bat antolatuta, guda jarraigo aberats ori, oso osoan arrapatu eban, eta bereala ostondu ziran mendietatik Aramaxora lepoan eroanda, laguntzen joan ziran liberal gudariak agertu baiño len.

Izkilluak aztertzen ibili ziran baiña, izkiliu batek tiro eginda, gazte bateri eskuan zauritu eutsen, eta Santa Kurtz berak baserri ezagun batera eroan eban zauritu ori osagille batek sendatu egian, eta ostera itzultzen egoala, liberal gudari batzuekatz topo eginda atxilotu eban.

Aramayonako Udalaren espetxean sartu eben ainbat salaketakaz leporatuta, urrengo goizean tiroz iltzeko asmoz, baiña jatekoak egotzi edo motxalak botateko ainbat bider goranai alegiñean, txarto egoala itxura aundiak emonda, gabaz botaka egin eban batean balkoiaren sapailotik beren lepoko estalkia lotuta, urrengo botaka egin ebenean eskegita egoan lepo estalkitik beratu ta igez egin eban, eta bertoko errekan guztiz sartuta agoa eta sudurra ezin ezik arnasa artzeko, bere billa joan ziran guariak ez eben aurkitu.

-Denborak aurrera doazela, lenengo ekitaldearen porrotari begituta, karlistak ostera gura eben, galdu ebezanak berrezkuratu, eta Zornotza edo Amorebietako elkargo edo egiunegaz amaitu zan.

1.872ko urtean Lorailaren 24an siñatu zan egiune au, VIIIn Karlos eta karlistaren guda nagusiakaz Santa Kurtz apaiza artean egoala, eta auek ez ebelako sinatu gura antolatu zan elkargoa, Aldundiko ordezkariak bakarrik sinatu eben.

1.872ko urtean Abenduaren 1ean Santa Kurtz apaiza batu zan bere basaguda taldeagaz, eta bere kontura asi zan liberalak zirikitzen Gipuzkoako lurraldean.

(1) Mugausteko lanetan = trabajo de contrabandista. (2) Beren borrokako zaletasuna, Liberalak, beren arreba tiros il ebelako izan zala ?. Ez da egia ori, ariñautik arduratuta egon zalako.

-Santa Kurtzen irudi ingurua, ospe ta surmur aundiko entzuera asi zan artzen, bere taldeagaz liberalaren aurka, iñork igerri barik, ostondu, agertu, iges eta sasigudan lortu ta egiten ebazanak, danentzat gauargi, zomorro edo ta kilimarroen gauzak izaten ziralako.

*Beren borrokaren zaletasuna, liberalak beren arreba tiros il ebelako saminduta izan zala ? Ez da egia ori, ariñautik arduratuta egon zalako.*

-Eta berak ikusten ebenean bere taldeko mutillak atsedean bat bear ebela, uste oso-ko errietara eroaten ebazan, jan eta geldialdi orregaz mutillaren buruak argitu ta indartu eigiezen.

-Bere soiñeko jantziak, txamarra ta barneko motx<sup>(1)</sup> baltzak, berna erdiko urdinabar praka illunak, zangozorro edo galtzerdi motz abarketakin, saman zapia eta buruan txapela baltzagaz ibiltzen zan.

-Sekula tiro bat ez ebala jaurti esaten dabe, naita berak 500 edo 600 guda mutilla- ren aginduan ibili.

-Beren izkillu bakarrak, makilla bat, ibiltzeko asko laguntzen eutsona, apaizaren otoi egiteko liburua, eta berak agintzen ebazan mutillak, beragaitik euki eben sinisme- na ta arritasun itsuak ziran.

-Berak antolatutako gudaren erestalde guztia, txistua ta tanboliña izan ziran, errietan sartzen ziranean eta mendietatik ibiltzen ziranean, berak atsegintasunean euki eban Oriamendiko abestiaren doiñuagaz alai ibilteko.

Berak, basagerlari lez ibili zan bederatzi illabete inguruetan, oge baten, sekula lo egin barik, bere gorputza beti longaiña edo jantzigaiñekoagaz bilduta, zelaian lo egiten eban, eta askotan jarleku baten ezarrita arri astun bat eskuetan eukiten ebala, loak ar- tzen ebenean eta arria eskuetatik zelaira jausi, itzartu egian.

-Bere zuzentasuna lar gogorra izanda, ez eban edaten ardorik, ez eta kebelarrik erre, taldean ezin zan ernegurik egin, ez berba txarrik esan, eta errietara joaten zira- nean, bere gazteak ezin eben neskatillakaz jantzan eta gitxiago txantxetan ibili.

## 2. 34. (6) *Arana ta Goiri´tar Sabino:*

*Arana ta Goiri´tar Sabino bere ama eta anai bigaz, karlisten guda asi zala eta bere aitak iges egin bear izanda, Ingalaterran karlistentzako izkilluak erosteko joanda, La- burdiko Getarira joan ziran 1.873-1.874ko urtearen ikasketak, Baionako San Luis Gonzagaren ikastetxean osotzeko.*

## 2. 35. *Ostera, Santa Kurtz apaizaren aria artuta:*

-1.873ko urtean Urtarrillaren 19an Lizarraga karlista gudal nagusia Bergaran aur- kezten da, Moriones eta Primo Ribera, liberalen gudal nagusiek euki ebezan indarrak, berak eukazanakaz neurtzeko.

-1.873ko urtean Urtarrillaren 19an, Santa Kurtz apaizaren ekintzari esker, sartu zan Frantzitik Gipuzkoara Lizarragatar Antonio Gipuzkoako gudal nagusia, eta onek azken gaizto batetik, bai ta bestetik txarto urtetan ebalako, eukiten ebazan borroka geienetietatik, karlistaren aldeko gudari eta erritar guztiak esaten eben: “Santa Kurtz, gudal agintari nagusia izan bear zala, ta Lizarraga apaiz”.

(1) Barneko motx = chaleco.

1.873ko Epaillan Lizarragatar Antoniok, Santa Kurtzek egiten ebazan ausartasunezko gauza guztiagaitik, ondamu, eziñ ikusi, iñartsi edo ta bekaitz euki ebalako, matxino lez salatu eban, eta tiros ilteko agindua emon eban, topetan zan lekuan. Lizarraga gudal nagusiak agindu orregaz, karlista gudariak artegatu ebazan ezin beste, bide batez liberalak bizkortuta, eta egoera orretan aurrera begira, almenean murriztuta agertzen zan lez, ez eban egokiro, aukerazko biderik zuzendu.

-1.873ko urtean Epaillaren 12an karlisten gudal nagusiak, Santa Kurtz apaizagaz, Ezkuruneko bordan batzartu ziran, ia biak adizkiditzen ba ziran, elkar izketaren ostean, ondoren, Santa Kurtz apaiza Lizarragaren agindupean ipiñita.

1.873ko urtean Lorailaren 11n Lizarragak baiña, ez eban ezereztu Santa Kurtzen aurka ariñago agindu eben zigorra, eta euki eben lengo arazo bardiñetara itzuli ziran biak.

1.873ko urtean Lorailaren lenengo egunetan, karlistaren gudalozteak atonduta egon ziran borrokan asteko.

-1.873ko Uztaillaren erdirako, Eraul, Udabe, Beramendi, eta beste inguruetako mendiak, lenengo borroketatik karlistaren aldekoak izanda, bideak zabalik egon ziran VIIIn Karlosek Dantzarineatik, Nafarroan sartu zedin.

-Santa Kurtz apaizak, guda onen bere gora berako lenengo ekiñaldiakaz, liberal etsaien artean bildur apur bat sartuta eukelako, alegiñ andiak egin ebazan karlistaren arteko adore, kemena, ta biotzeko berotasunak biztuta euki egiezen.

-Bere bare aldi ta ekiñaldiko ausartasunak euki eban bildurrezagaz bezela, arrigarritzkoak izan ziran.

-Zeaztasunezko salatarien sare zabala ta bizkorra antolatuta euki eban, bere argi-bideakaz gudaloztearen izkutuko mugialdian eraso gogorrek egiteko, eta liberalaren txeberetatik iges egiteko.

-Santa Kurtz apaiza, bere borondate guztiagaz borrokatzen ibili zan, karlistaren aldeko borrokabide orretatik, Euskal Foru ta Erlijioaren babes alde ebillela ziñesten ebalako, eta bere gudariak beti esan eben: “eurei sekula ez eutsela itzi VIIIn Karlos izena goralduten, “Erljioa eta Fuegoaren” aipamenetik kanpo.

1.873ko urtean Urtarrillaren 14an Gipuzkoako liberal Aldundien orokorrezko ardura euki eban Agirretar Maximo Manuelek, Santa Kurtz apaiza, ezin ebalako arrapau, Tolosan agindu baten bidez, 10.000 pesta agindu edo eskeiñi ebazan ilda edo ta bizirik arrapatuta beragana eroaten ebanai, Azpeitiatik bide batez, Iturriotzar Lojendioren batalloi taldeko 40 mikelete Bidaniara, ta beste erdia Aiara´ra bialduta, Santa Kurtz apaiza arrapatzeko.

-1.873ko urtean Bagillaren 3an Santa Kurtzek, Enderlazako bidean egon zan mikeleteen gudaltegia artzen dau, eta bide batez egon zan zubia ezereztu.

Mikeleten gudaltegi orrek, Iruneko karlistaren agindupean egon zan, eta euki eban aginduzko lana, karlistaren gaulana edo zamaritzazko<sup>(1)</sup> ekintzak ezereztutea zan, bide batez Nafarroakin artu emoneko bidea zabalik eukiteko.

-1.873ko urtean Bagillaren 7an Santa Kurtzek, bere erlijiozko ustean espainitar lurralde osotik, bide galduko emakumeak kanporatu egin bear zirala, agindu gogor bat aldarrikatu eban.

Erdiugarte edo peninsula onen lurralde osoan, bai ta Ingalaterra ta Frantzia Enderlazako gudaltegian egin ebanagaz be, euki eban oiartzun andia Santa Kurtzek, Lizarraga gudal nagusia bekaitz<sup>(2)</sup>, salatari agertu jakon, apaizak egiten ebazan eriotzezko epaiketagaitik, VIIIn Karloseri esanda.

(1) Zamari, patari, mugausle = contrabandista, gau-lan, muga uste, zimardika = contrabando. (2) Bekaitz = envidioso.

VIIIn Karlosek, ez eban onartzen ezertako zigorrik Santa Kurtzen aurka, eta Lizarragak bere agintaritzazko ardura uztea aurkeztuta VIIIn Karloseri, onek, ez eutson onartu.

Lizarragak, Santa Kurtzeri egiten eutsozan zalataren aurka, Xabalok, Santa Kurtzek euki eban ertzei baltzaren kide, eta bere uste osoko laguntzaille izan zanak, esaten eban: “Zelatariak iltzen genduzela?. Bearkoa !! Bestela danok garbituko ginduzan ?”.

“Ezin gendun atsedetik artu, gudalozte ta mikeleteak<sup>(1)</sup> denbora guztian atzetik euki genduzelako, zelata orren emaitzak liberal gudal nagusieri emoteko, eta bearrezkoa biurtu jakun zentzaldi<sup>(2)</sup> orreik artzea”.

1.873ko urtean Uztaillaren 9an, Baldespinoko Markesa Orbetar Juan Nepomuzeno, Ermuko semea eta karlistaren gudal nagusiak, Santa Kurtz apaizaren billa joan zan bere gudari taldeagaz, Santa Kurtzek eukezan guda indarraren agintaritzta ta guda tresneriak emon eiotsezan.

Eta Santa Kurtzek, etsaien bekaizkeriko eragipenak, oiartzunezko indar andia artu eban lez, bere gudaloztearen agintaritzta, ta euki ebazan kañoi tresneriak emon bear izan ebazan, bera Frantzira atzerriratuta, VIIIn Karlosek egin eutson zemankuntzagaz<sup>(3)</sup>.

A ta guzti, beren aurkako zalakuntzaz gain, jente askok, gizandi lez eta maitasun andian euki eban Santa Kurtz abadea, eta beste gauzen artean, beren taldean ibilitako gizonak karlista agintariak tiros iltzen ebazalako, ostera aldatzen da Ego Euskalerrira.

Santa Kurtz'ek muga aldatuta, izkutuki, Lizarraga gudal nagusiaren agintaritzan egon ziran Gipuzko taldearen karlista gudariak matxinatzen alegintzen da, eta lortu be lenengo gudari taldea bere agindupean geratzea, bai eta 2<sup>a</sup>, 3<sup>a</sup>, eta 5n gudari taldekoak.

Guda indar onekaz saiatzen da gure Santa Kurtz jauna, Lizarragaren aurka joateko.

-Lizarraga aurrean euki ebanean baiña, onek bere gudariak euskeraz berba batzuk esanda geldirik geratu ziran, eta Lizarragak aukera orren egoerean, bere leialtasuneko gudariak bialdu ebazan Santa Kurtzek euki ebazan agintariak arrapatzeko, eta bere aurrean egon ziranai banan banan lerrotuta, joateko agindu ta euki ebezan guda izkilluak orma ondoan itxiazio eutsezan.

Santa Kurtz apaiza ori ikusi ondoren arrituta, lenengo taldearen gudariak eta beste gogoko taldeak artuta Zeztoara joan zan, mendi bidez ostera itzultzean, mugako mendiak igarotzeko.

1.873ko urtearen Abenduan amaitu ebazan Santa Kurtz apaizak basako gudak, azkeneko atzerritasunaren bidea artuta.

1.874ko Irailan, Frantziaren Iparraldean Lilleko erritxoan Josulagunaren lekaretxean zokoratu zan, eta andik egin ebazan egipide guztiak, bere apaiz bizitzan ostera jarraitzeko.

1.875eko urtean Bagillaren 9an emon eban ostera bere lenengo Mezea, guda ostein.

## 2. 36. (7). *Arana ta Goiri'tar Sabino'ren bizitzari ostera oratuta.*

*-Eta jakin naian, Arana eta Goiri'tarren etxeko abertsaletasunaren giroa nolakoa izan zan, euren seme alabak ain arnas sakona artzeko euskal abertsaletasunaren arlo orretan, joan gaitexan ia zer esaten dauan bere arreba Paulinak, idatziz ebazan oroime-nezko idatz lanetan, iru lau gauza artuaz:*

(1) Mikelete = Miguelete, antiguo fusilero de montaña en Cataluña, de Miquelet del prast, que luchó contra los franceses en 1.647. Individuo de la milicia foral de Giouzkoa. (2) Zentzaldi = escarmiento. (3) Zemakuntza = amenaza.

*“Nire aitak karlisten matxinadarako, asko lagundu eban, bere lanez gain, euken zarpeletik ainbat diru emonda”.*

*“Denbora gitxi barruan itzi eban itsas-untzien egiteari”.*

*“Uribar tar jenerala, bere etxean euki eban ostonduta”.*

*“Aita bera, joan zan Ingalaterrara izkilluak eta gudarako bear zana erostera, bere zarpeletik 50.000 ogerleko ordainduta karlisten borrokarako”.*

*“Zelan zabaldu zan, danok atzerrira joan giñela, etxetik urten barik egon giñelako”.*

*“Esan bear dot<sup>(1)</sup>; nire aita Abandoko alkatea izan zala, eta Gernikako batzarretan eskubidedun bertatik”.*

*Ikusten dogun lez, etxeko arnasa obeagoa ezin izan, eta or berarentzat erro zintzo ta sakonak, nai kristau, nai abertzale lez.*

*1.875-76ko urte bitartean Arana ta Goiritar Sabino bere anaiakaz, Donibane Loitzun'en egin ebazan bere ikasketak, azken azterketak Ondarribi'n osotuaz.*

*Amaika urtedun Bilboratu eta 1.876'garren urteko ikastaroa, Orduña'ko Jesuitetan asten dau, batxillerrezko arloetan egin bear ebazan bost ikastaldiak<sup>(2)</sup> beteteko.*

*Eta emen, 1.881'an azkeneko ikastaroa amaitzen egolarik, oso txarto gertatu zan osasunez, azkeneko sakramentuak artuta, il-zorian egon zalako.*

*Emengo azterketak, ogean dauela egin bear zituzen.*

*Eta urrengo urte bietan ez eban ezertxo be ikasi, bere sorterrria maitatzen eta ume-tatik ez ekian euskerea ikasten jardun baiño.*

*Eta 1.882ko urtean, berak amazapi urte eukezala, aita ta anai bat il jakozan.*

## 2. 37. *Santa Kurtz'en aria ostera artuz:*

1.876ko Urtarrillan Londresera joan zan eta karmeldarren lekaretxean bizi zan.

Bertan egonda, VIIIn Karlos agertu jakon bigarren guda karlista galdu ondoren, eta espainitar erregetzan XIIIn Alfonso izan zala errege, berak emoneko Meza Santuan Karlos eta onek eroan ebazan guda nagusiak Jauna artu ondoren, biok barriketan egon zirala, Karlosek au esan eutson: *“Badakit nire onenatariko morroi bat izan zarela”*. Eta Santa Kurtzen erantzuna: *“Ba orain, ez dauka zuzenbiderik”*.

-Jamaikara joan zan Josulagunaren babespean, eta bertan egin ebazan 15 urte.

1.891ko urtearen askenetan, Kolonbiako Pasto Urian, Josulagunak euki eben mi-xio errira joan zan, eta erri txiki bat irasi eben gure Iñaki Deunaren izenagaz, Pasto Uriaren 6/7 leko<sup>(3)</sup> edo 39 kilometru ingurura egon zan lurretan.

Pastoko umiari eskola emoten ebanerako, oso ospatsu zan ezitako loro berritxu antzeko txori bat euki eban, umeak berbetan asten ziranean, mokoakin buruan pikokatu egiten ebazanak izildu zitezen.

Eta errira joaten zanean, turuta bategaz oartzen ebazan erritarrak, Meza Santua eta errosario edo agurtza, otoizketara joaten zanean.

Turuta orren ekintza, espainitar errege XIIIIn Alfonsoren belarrietara be eldu zan, eta turuta bat bialdu eutson, Santa Kurtz il da gero eldu zana.

(1) Esan bear dot = lo que dice Paulina. (2) Bost ikastaldiak = cinco cursos de bachiller. (3) 7/6 leko = 6/7 leguas equivaliendo cada legua itineraria a = 5.572'7 ms.. Legua de posta, la que tiene 4 km. Y la legua marina o maritima, equivalente a = 5555'55ms.

Eta Santa Kurtz´ek bere azkeneko basa gudaldia, Mata´tar Jose Felix galbidetsu matxinzaleak bere taldeagaz, Tukerreseko errira, eraso egiten joan zanean, egin eban.

Tukerres erriko agintariak, ez eben ezer euki matxinatu orrei aurka egiteko, eta Santa Kurtzek ango nagusiari, bide ondoan egon ziran zuaitzak bota eta bidean zabaldu egiezala agindu eutsonean, Matatar matxinzale gogor orrek, txebera txar bat zalakoan, bertan itzi eban erri orren erasotzeari.

Amerikako mixiñoetan, Aita Loidi lez ezagutzen eben danak, bere amaren abizenagaz aurkezten zalako, eta iñork ez eben jakin ia bere eriotzerarte, buru-ukazale<sup>(1)</sup>, umil ta apaiz ixil ura izango zanik, leku guztietan aipatzen eben euskal basa gertari andia.

Urte askotan ibili zan eskatzen Josulagunaren lekaidetzan sartzeko, eta lortu eban bera il baño lau urte ariñago.

Bera, irasitako San Inazio errian egon zanean, larritasun andian gaisotu zan, eta erritar batzuk anda, edo bideko oe baten ipiñi eben Pastoko Urira eroateko. 1.926ko urtean Dagonillaren 10ean eta 84 urte eukazanean, mendiko leku txarrenetik joan zirananean baiña, azken arnasa emon eban.

## 2. 38. *Lizarraga ta Eskiroz´tar Antonioren bizi kondaira.*

1.817ko urtean Urtarrillaren 22an, Iruñan jaio zan.

1.833ko urtean Abenduaren 27an, karlisten gudaloztetan lerrokatzen da oiñezko gudari lez.

1.834ko urtearen lenengo illetan, karlistek, Amezkoako ibarrean egon ziran liberal gudariai izkilluak kendu eutsezanean, Orbaizetako erria artu ta beste borroka batzuetan be egonda, bigarren lerro buru lez izendatu eben.

1.834ko urtean Bagillaren 18an, Gunillako karlistaren garaipenean be egon zan, eta bertan zaurituz, lenengo lerro buru<sup>(2)</sup> lez izendatu eban.

1.834ko urtean Uztaillaren 31an, Artezan zauritu eben, eta bigarren sarjentu lez izendatu eban.

1.835eko urtean Urtarrillaren 13an lenengo sarjentu karlista lez izendatu ondoren, Maeztuko ingurutasunean, Arrijas, ta Larragako zubien borroketan, Ziga inguratu ebenean, Etxarri Aranaz inguratutako garaipenean, Arroniz, Billafranka, Bilbao inguratu ebenean, eta beste borroka batzuetan be ibili zan.

1.835eko urtean Iraillaren 2an teniente ordezeko izendatzen dabe.

1.836ko urtean, Garzia, karlisten guda nagusiaren gudaloztean be borrokatzen ibili zan, erasoko ekintza guztietan egonda.

1.837ko urtean Lorailaren 24an, Ueskako ekitaldean egin ebanagaitik teniente maillakoa izendatzen dabe, ta urtea amaitzeko geratzen ziran illeak Barbastro ta Gisonako borroketan egonda, askeneko erri onetan larri zauritu bazan be, Abenduan Torrezilla artzeko ibili ziranen artean be egon zan.

1.838ko urtean, Abarisketa<sup>(3)</sup>, Allo, Dikastillo, Biurrun, Arroniz, eta Belaskoaineko borroketan ibili zan.

1.839ko urtean, Ramales eta Guardamino, Arratia, eta Arabako Billarrealen borroketan egon zan, Bergarako egiunean teniente lez egonda.

(1) Buru ukazale = abnegado, sacrificado, mortificado. (2) Lenengo lerro buru lez izendatuta = cabo primero, en la milicia. (3) Abarisketa = carrascal.



1.840-1.842ko urteetan, Aragoi ta Kataluñako bekoaldean, abere ta tresnerien arduradun lez ibili zan.

1.843ko urtean, Tarragonako alkarteak egin eben matxintasunagaz alkartu zan, eta Bagillan, ango lurraldea, lapurrengandik garbitzeko agindu eutsoen.

1.843ko urtean Iraillaren 17an, batuzaleen aurka ibili zanean, isekatu<sup>(1)</sup> ebezan, sare artekoa antolatu eutsenai.

1.843ko urtean Urrillaren 6an, Eskoda liberal taldeari irabazi eutson, orren ekiñagaitik zingola<sup>(2)</sup> ezarri ta kapitan maillakoa izendatu eban.

1.844ko urtean Jorraillaren 7an, Madrillera aldatuta, gobernuak teniente maillan baieztu eban.

1.847/1.848ko urteetan Maestrazgo ta Kataluñan ibili zan montemolinistaren aurka, eta onen ekintzagaitik, lenengo maillako San Fernandoren gurutzeagaz zingolatu eban.

1.853ko urtean, San Ermenejildoren gurutzerako urte bateko diru kopurua ordaindu eutsoen, II In Isabelek alaba bat euki ebalako, eta zarrenetariko lerrotik kontuan artuta, kapitaiñezko maillara igon eban.

1.854ko urtearen Jorraillan, gudari ordaingoz Sebillara aldatu zan, eta bertan komandate agintari maillara igon eban, Urrillan Asturiasen, oiñezko gudarien agintaritzan ipiñita.

1.855eko urtean Malagan gudari ordain egon zan.

1.856ko urtean, Granadan sortu eben Antekeraseko eiztarien talde barrira bialdu eben.

1.857ko urtearen Abenduan, Zeutara bialdu eben, eta bertan egoala San Ermenejildoren urte biko soldata ordaindu eutsoen, XII In Alfonso errege izango zana jaiio zalako.

1.861eko urtean, espainiar gortekoak komandate agintarizko maillan baieztu eban.

1.862ko urtearen Loraillatik Iraillararte, Arapileseko eiztarien taldean egon zan agintari lez.

1.866ko urtean Madrillen egon zanean, Tajo ibaiaren ekintzatan be egon zan Etxaugen agindutara, Prim gudal nagusia arrapetako.

1.866ko urtean Bagillaren 22an, Madrillen sortu zan matxintasuna bakezten bialdu eban, eta koronel ordezeko maillara igon eban.

Bertan ordezeko lez geratuta, Urrillan, Murtziara bialdu eban, andik ostera Madrillera bialduta, Arapiles guda taldea zuzentzeko.

1.867ko urtean Kataluñara bialdu eben, Lerida ta Tarragonan matxinatu ziranai erasotzeko, emen ostera be zingolatuta, bigarren maillako gurutzeagaz.

1.868ko urtean Iraillaren 29ko aldarriketagitik, koronel maillara igon eban, eta Urrillaren 23an espainitar gorteko aginduarekin, Iruñara aldatu eban ordezeko lez.

1.868ko urtean, bera baiño gudal agintari nagusien alkarrizketa bat entzun ebalako, bada ez bako 24 orduren atxilotasuna euki eban, gualtegiko zain gelan.

Aurrerantzean, eta bere izatasun ta sinismenak karlistaren aldekoak ziralak, Madrilleko alkartasuneko batzarrera aurreratu zan, eta VII In Karlosek, Logroñoeko lurraldeen agintari nagusi lez izendatu eban, Uri nagusi ori matxinatzeko aginduagaz.

Ez eban lortu matxintasun ori, eta Euskalerrira etorri zan bere idazkari Perez ta Najeratar Juan, eta Rokes laguntzailleagaz.

(1) Isekatu = burlarse. (2) Zingolatu = condecorar.

Karasaren taldean sartuta, Abalos eta Urbasaren mendikateetako ekintzatan egon zan, eta Bagillaren amaieran basa gudarien talde orreik ezereztuta, Frantzira aldatu zan.

1.873ko urtean Urtarrillaren 1ean Irun eta Frantziko Euskalerritik aldatu zan, erdi ugarte edo peninsula onen Iparraldeko Euskalerrira, Imaz eta Perez ta Najeratar Juanen laguntzan. Ille orren 6an Dorregaraiak karlistaren guda nagusiak agindu eutson lez, trenbidearen aurkako aldarrikapena zabalduz.

1.873-74ko urteetan, Gipuzkoako guda agintari nagusia izan zan.

1.874ko urtean Aragoi eta Kataluñako guda agintari nagusia izanda, Martinez Kanposek Seo de Urgeleri gogorrezko ingurutasuna egin eutson, liberalak garaipena lortu eben, eta Lizarraga bera atxilotuta geratu zan.

1.875eko urtean karlistek guda galduta, Karloseri lagundu eutson erbesteratzen.

1.877ko urtean, Erroman il zan gure Lizarraga ta Eskiroztar Antonio.

## 2. 39. *Dorregarai eta Domingertar Antonioren bizi kondaira laburra:*

1.823ko urtean Uztaillaren 11n, Zeutan jaio zan Dorregarai ta Domingertar Antonio au.

1.835eko urtean V.n Karlosen gudaletzetan lerrokatu zan oiñezko gudari lez, eta Gebara ta Arlabaneko borrokaren ostean, teniente ordezkoa egin eben.

1.839ko urtean Bergaran egin zan saldukeri ostean, espainitar gudaletzetan lerrokatu zan, euen tenientearen ordezkoi maillagaz.

1.840ko urtean espainitar gudaletzetak, Kastellote ta Morella menperatu ebezanean egon zan, baita Kataluñan be, eta Bergako gatzeluak ta leen ondorengo borrokak amaitzeko egin ziran ekintza guztietan.

1.843ko urtean, Seoane espainitar gudaletzearen gudaletzetan egon zan Torrejon de Ardoz bakeztu ebenean, eta Abenduko illean teniente maillakoa egin eben.

1.845eko urtean, egiztu eben teniente mailla orretan.

1.849/1.853ko urte bitartean, Madril eta Donostian egon zan gudaletze agintari lez.

1.854ko urtean espainitar gudaletzearen gudaletzetan zabaldu eben aldarrikapenagaz alkartu zan, eta O'Donnell agindutara, Bikalbaroko erasoan lenengo, eta Sebilla ta Madrilletik ibilita, lenengo kapitana egin eben, gero komandante gudaletzerira igonda, Madrillen geratu zan bere ordezkoi zerbitzuan.

1.856ko urtean Uztaillako matxintasunean egin ebenagaitik, leen maillako San Fernando zingola emon eutsoen, Murziako gudaletzetara aldatuz.

1.858ko urtean Uztaillaren 1ean, Dorregarai, Euskalerriko lurraldean VI.n Karlos Montemolin kondearen aurka, guda amaituarke ibili zalako, espainitar gudaletzearen gudaletzetan maillara igon eban, eta Murtzian egoala, itxasontzietan igonda Melillara eroan eban ango lurraldeak bakezten.

1.858ko urtean Dagonillaren 25ean, bere taldeko 34 gudari eta atxilotuta egon ziran beste 20 gudariekin urten eban moruen zelaietara, eta lortu be, moruen karabo<sup>(1)</sup> bat eta gordetegi baten eukezan lergailluak arapatzea.

1.858ko urtean Iraillaren 5ean Zeballosar Franzizkoren agindutara, moruen zelai bertara urten da, lortu eben euen kañoi bat kentzea.

1.859ko urtean Urtarrillaren 13an, Malagara aldatu eben oster, Bagillan Alkantara eiztariren taldera aldatuta, eta beragaz Afrikako gudaletzetan igonda, infernuko mendi bitarte eta Angherako

(1) Karabo = moruak itasontzi txiker bateri esaten dautsoe, baita eizako txakur bateri, eta autillo deitzen jakon arapakoi edo lapur txoriari.

sarbide estueneko ekintzatan be egon zan, iru marrauzko<sup>(1)</sup> eraso gogorrek eginda, moruek igesean ipinteko.

Bertan, lepo giblean<sup>(2)</sup> zauritu ta ekintza orren gaitik, ordezeko komandate lez arduratuta.

Kastillejoseko borrokan, ta inguruetan egin ziran beste ekitaldian be egon zan, eta bere gudu taldea itxi barik, atxilotutako gudarien taldeko agintaritzza eskatu eban.

Ille bi barru, Lasaussaye guda nagusiaren agindutara, zelaiko laguntzaille lez egon zan.

Eta 1.860ko urtean Epaillaren 10ean, 11 egun orretan egin ebenagaitik koronel ordezeko mailla emon eutsoen.

Wad-Raseko borrokatan egonda egin ebazanagaitik, jeneral ordezeko izendatu eben, eta ostean, Madrillen egon zan guda agintarien ordezeko.

1.862ko urtean, Santiagoren soñeko ordenaren saria emon eutsoen, eta orren ostean bigarrenez, zelaiko laguntzaille izanetik, bere taldera bialdu eban.

1.866ko urtean, Asturiaseko taldera aldatu eban, eta urte orren Jorraillean, atzerriko guda-lozteetara bialdu eban, koronel ordezeko guda maillakin.

1.868ko urtean, denbora guzti au Lersundiren agindutara egonda, Frantzira aldatu zan, eta bertan VIIIn Karlosegaz egonda, onek bere zelaiko laguntzaille lez izendatu eban, eta Radika edo Diaz de Radarekin Eskodako borrokan uts galanta egin ondoren, Frantzira aldatu zan.

1.871ko urtean Urtarillaren 2an ostonduta egon zan lekura VIIIn Karlosek deituta, Balentziako erreñuaren guda agintari nagusia egin eban, eta Uri ortara joanda, egon ziran arrizkuko arazoari aurre egin ostean, ainbat denboran ostonduta egon bear izan eban.

1.833-1.839, 1.872/1.876 urte bitartekoak izan ziran espainitarren ondorengotasunaren borroka gogorrak.

1.874ko urtean Karlisten guda nagusia izanda, Murumendi edo Abarzuzako borrokan, dannon gaitetik nabarmendu zan. Borroka orretan il zan, espainitar Kontxa guda nagusia.

1.876ko urtean guda amaitu zanean VIIIn Karloseri lagundu eutson Ingalaterrara, eta orren ostean beragandik, iñork ez daki ezer.

1.882ko urtean Zalduban<sup>(3)</sup> il zan, Dorregarai ta Domingear Antonio.

## 2. 40. *Euskalerriko edesti onetan, karlistaren guda oster artuz.*

1.872ko urtean Loraillaren 7ko egun onetan, Urribarritar Franzizkok, Zeberion euki eban bere guda-tegian kokatuta, eta liberal guda-loztearen talde bateri aurre eginda, ia Bilboko ateetara-raiño eroan ebezan erasoka, ortik, Mañarirantza joan da.

1.872ko urtean Loraillaren 7an karlistek, Orokietan artu eben astiñ alditik iru egun barru, bizkaitar karlistek, liberalak bota ebezan Arrigorriagatik, Bilboko Uria babesten joatea beartuazota, Arratia ta Bilboko karlista taldearen eraso bidez.

Eraso orren ostean karlistek, Billaron ipinten dabe guda-tegi nagusia, eta ikusita Gipuzkoako lurraldeetan ez zala piztuten gudarik, guda-tegi ori, Gipuzkoara eroatea erabagitzen dabe.

Arabako lurraldean, De Belaskotar Martinez karlisten guda nagusiak, Nazarrera bideratzen dauz bere mutillak, gero Bizkaira joateko, lurralde orreitan jokatzen zalako gudaren geroko bizia.

Eta alan izan zan, Serrano liberal guda nagusia, erdi ugarte edo euren ustean espainitar Iparraldeko euskal lurraekin arduratzen zanak, Durangoko ibarrean sartu zalako.

1.872an Loraillaren 14an Serrano espainiar guda nagusiari, Urribarritar Franzizko guda nagusi karlistak urten eutson Mañariko atxartetara, karlistak astindu ederra artuta.

(1) Marrauzko iru eraso gogorrek eginda = tres cargas durisimas a la bayoneta. (2) Lepo-giblean zaurituta = herido en la parte posterior del cuello, pescuezo, occipucio, nuca. (3) Zalduba = Zaragozak euki eben leenengo euskal izena.

Asko galdu eben Bizkaitar karlistak borroka orretan, ildako askoren artean Ayastui ta Altu-betar Manuel be egon ziralako.

1.872ko urtean Loraillaren 16an, 14n eguneko borroka orren ostean karlistak, Mondragoira joan ziran, eta egun onetan Oñate erasotu eben.

## 2. 41. (8) *Sabino'ren Aita Santiago.*

*Emen Uribarritar Franzizko Bizkaiko Jauntzaren gudar nagusi agintaria, Aranatar Santiago, Sabinoren aitak, bere itxaso ontziren lantegiko zaintzalearen etxean ostonduta euki eban, eta egun batzuk geroago, borroka orretan artu ebazan zauri larriakaz, il zan.*

Borroka bi oneitan, karlista gazteak asierako prestakuntza gitxi euki ebelako, eta gure anai artearen berezko etsai ekintzagaz gipuzkoako "txapelgorri"ak espainitar gudariai laguntzen eutsielako, alde andiak egon ziran bata ta besteen indarren joku artean.

1.872ko urtean Loraillaren 20an, Orokietako porrotaren gora beran karlistek, errudun bat aurkezten ibili ziran, eta begirada guztiak, Diaz de Radatar Eustakioarentzat izan ziran.

Radatar onek, bere arduraren egipidezko ekintzan egin ebazan gauza guztiaren agiriak agertuz gain, beste karlista gudar nagusiai aurpegira bota eutsen, eurak erdi kilikolo ibili ziralako borrokan, oraindiño euretatik iñork ez ebelako egiztu Karloseri emoneko zin itza.

1.872ko urtean Loraillaren 20an txikiagotasun ori ikusita karlistak, Orozkoren Zaloako apaiz etxean batzartzen dira, euki eben egoera larriagaitik berba egiteko, eta euren eziña ikusita ondoren, Dorreko duke Serrano espainiar gudar nagusiagaz berba egitea erabagi eben, euren menpetasunezko eskeintza egiteko, barkamenaren ordez.

1.872ko urtean Loraillaren 24an Bizkaian matxinatutako karlistak Jorraillaren askenetan, guda izkillu ta gudarako euken tresneri gitxigaz Gernikan batuta, Urkiza, Orue ta Arginzoniz Aldundiaren arduradunak, Amorebieta edo Zornontzako Belaustegiren etxera bialdu ebazan, espainiar gudar nagusiekaz batzartzeko.

Eta bertan sinatu zan Amorebietako egiune ori, espainiar aldetik Serranotar Franzizko Dorreko dukea, eta karlistaren aldetik, Arginzoniztar Antonio, Urkizutar Fausto, eta Orue ta Artiñanoko Aristidestar Juan B.

Itun orren bidetik karlista guztieri parkamena emoten eutsoen, eta gure ebanarentzat, gudar agintarien baimena espainitar gudozotetan lerrokatzeko euki eben guda maillakin.

Bizkaiko Aldundiari be baimena emon eutsoen, Foruak agintzen eban legera batzartu zitezten, gudaren arloa bakarrik aipatuta baiña, egin ziran zorren ordaintzak bakarrik aipatu ziralako.

Olan amaitu bazan Loraillaren 21eko egunean asitako matxintasun au, VIIIn Karlosetik asita, Baldespinako Markesa, Kareagatar Ezekiel, Kubillas gudar nagusia, Santa Kurtz apaiza eta beste gudar nagusi batzuk, aurka egon ziran.

Eta euskal lurraldeko asken karlista guztien taldeak Dagonillako illean amaituta egon ba ziran, karlista guda, Kataluñako lurraldeetan iraun eban bizi bizirik.

Alde bietatik baiña, iñork ez eban zalantzarik euki, egiune ori borrokaren eten bat baiño besterik ez zala izan, eta lenengo borroka baiño gogorragoa izango zala urrengoan egingo zana.

1.872ko urtean Bagillaren 1ean Zumarragako Billarrealen, erdiugarte edo peninsula onen Iparraldeko gudozotek Etxaguetar Rafaelen<sup>(1)</sup> agindutara geratu ziran.

1.872ko urtean Bagillaren 3an, Serrano espainiar gudar agintari nagusiak Zornotzako itzarmen orren erabagia, naita jarraian egin zan orduan, Loraillaren 24an Madrillera bialdu, ez

(1)Etxague ta Berminghantar Rafael = 1.815-1.887, Donostin jaiotakoa eta Madrillen il.

zan eldu ministruen etxera, Madrilleko gobernukoak bakarrik jakinda ongunde ori egin zala, Serrano bera, ministeritzara eldu zanean.

Madrillera egun berean eldu zana baiña, 26an birridatzi zan ongunde orren agiri bat. Serranoren etsai baten eskuetara eldu zana zan.

Asarre andiak egon ziran liberalaren artean, eurak gure eben menpetasuna ez ebelako ezartzen, eta erdi Ugarte edo peninsula onetarako gura ebezan menpekotasunezko batzangoak lortzeko, lenengoko gudaren antzera, beste guda gogor bat ikusten eben, aurrerantza begituten ebenean.

Karlistaren agintariak, ostera asi ziran antolatzen euki ebezan tresneri ta indarrak gudal nagusietatik asita, Diaz de Radatar Eustakio kendu eta Dorregarai lau euskal lurraldeko gudal buru nagusia izendatuta.

Dorregarai, Ollo izendatu eban Nafarroako gudal nagusi lez, Gipuzkoarako Lizarraga, Bizkaiarako Martinez de Belasko, eta Arabarako Llorentetar Eustakio, Baldespinako markesa aintzindariaren<sup>(1)</sup> agintari nagusiaren agindupean ipiñi ebazanak.

Zornotzako egune onek, sei illabeteko bakea ekarri eban Erdi Ugarte onen Iparraldeko gudalozteetan, eta urrezko denbora karlistai, gaztearen gertaera ta gudarako tresneriak ondo prestutzeko, edozein erataro borrokan urten barik lenengo tentaldian egin eben lez.

Gaiñera I Amadeoren gobernuan sortzen ziran arazozen eragozpenetatik, ostera ekarten dituz Frantzian atzerrituta egon ziran gudal nagusi ta agintari liberalak, gudako zelaietan borrokatzeko.

Eta era orreitan asi ziran osotuten karlistaren aurkako gudalozteak Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroan.

Or amaitu zan, edestilariak, bigarren borroka izango zenik ez dabena onartzen, eta emendik aurrera ostera asten dira karlistak antolatzen, espainitarren ondoriozko eztaibada ori askeneko borrokan erabakitzeko.

*Aldi onetako edestilari geienak, espainitar aberri edo nazioa esaten dautse oraiñ 195 urtetik ona, espainia lez laterritutako Erdi Ugarte oneri, bera baiño millaka urte zarragoak diran beste izkuntz ta erriak kontuan artu barik.*

*Jakin leike baiña, ze aberriaren gandik berbetan gabiltz ?. Laterriarena ?. katolikoena ?. Espainitarrena ?.*

*A la berezkotasunez eta bai ta jendekuntza lez jaiok diran Euskaldun, Katalan, eta Galiziarenak ?. Onek direlako jaiokaren izena zentzuz eta eskubidez, eroan leikenak bakarrik.*

*Espainitar zaleak, nundik nora daukie baimena, "Laterritasuna" (egoera mugatzen dauan itzak), eta "katolikotasuna" (euren alderdikidetasunean batzangotzeko dan itza), bai batak eta besteak, zentzumik ez daukiezanak, jaiotasunezkoak adierazteko itz bi oiek: "bereztasunaren azturazko itzak "euren esangurearen mugatzeko daukan zentzuzko egitik, aldentzeko ?".*

*Ez da arritzekoa ba, Frankok bere menpearen eritzizko zaletasunean eta eleiztarren laguntzagaz, peninsula onen lurraldea "Nacional Catolicismo laterritasun lez mugatzea", zalantzarik ez egian egon euren sasijaintasunagaz, Goiko Jainkoak gaiezko mundu oneri oiñarritu Eutsoezan Legearen aurka.*

## 2. 42. **Ondorio labur bat.**

Zati onen amaieran esan dogunagaitik, argi ikusten doguna, kolonigilletasunezko edo menperatzailezko erri irasle barri oneik, ez zirala joan bake billa, berezko erriakaz batera, gizarteak bizitzeko bear ebezan mozkin ta tresneri guztien kontrola, euren eskuetan gure ebalako.

(1) Aintzindariak = estado mayor militar.

Noren ametsak beteteko ?.

Euren norkeriarenak, zalantza barik.

Leen: IVn gizaldian Nizeako eleiz batzarrean I Konstatino erromatar kaizerra, eta I San Silbestre Aita Santuak, mundu guztia, aberri katolikotasunezko erlijioan batzangotuta bizi gindezan ezarri ondoren, eta Zeruko Jainko ta gizon emakume bitartean, Jainkoaren ordezkoko Aita Santuaren uts ezintasuna eta kaisarraren agintaritza baliozko solaskide bakar lez ipiñi ta ziñeskintzatu<sup>(1)</sup> egin euskuen, “txiztik egin barik” Aita Santuaren agindupean bizi gindezan.

Benetako JAUNGOIKO Iraslea aipatu barik, eta Berak Izadi onen bereztasundutako gai eta gizakiai, ekanduzko arloetan, zor-eskubidearen ardurean biak bizi egiezen, kontuan artu barik, edo Beren agindu guztien gainetik, menperatu euskuen.

Zeri, edo nori gurtzeko ?.

Bigarren: leenengoko gauza guzti orreik lortzeko, eta munduko gizarte guztia kontrolpean eukiteko, gizakiai euren berezko zor eskubidearen ardurak ordezkatzeko sortu bear dan diru edo urrearen jabetasuna, euren kontrolpean ipiñi dabe, Izadi onen mozkin guztiak lez.

Eta kontrol bi orreik alkartuz, gualoztearen indarrezko ekintzan artu eben indar guztia, edesti osoan, gaurko denborararte indartsu etorri dana.

Jainkoaren Legeak mundu onetan baiña, gaitasun eta gizakien eskubideetan oiñari lez sustraituz egonda, ezin da beste gauzarik egin, nortasunaren zor-eskubideko ordezkokoan jokatu baiño, mundu guztia ezin dalako beartuzko batzango baten batu, Jainkoaren arrazoizko legetik kanpo, ta bai ulermen bategaz jokatu eskubidearen ordezkoko jokuan, Beren Legetik kanpo ibili ezker, edesti guztian ikusten dogu: *“oiñaze, negarra, borroka, eta nekagi ro gorrietan sartzen gaitue-la”* zer dan ez jakiteko.

Daukaguzan laterrietan batzangotu gura gaitue, agertu eben norkerizko nazioaren itz barri *“Sacro Nacional Catolicismo”* orregaz, eta iraun egiten dogu etenbako borroka baten, nortasunaren eskubideak ezin diralako ezkondu, euren norkerizko asmoakaz.

Ez da txarrena ori, aberri katolikotasunak, Jaungoikuaren legetik kanpo jokatutearren, galdu daualako, ekarri eban latiñezko izkuntzatik asi ta, euki eben siñezmen guztia, berezko erriakaz egiten dauan guztia, Jainkoaren Legetik kanpo egiten dauan egikera orregaz, zikindu baiño besterik ez dabelako egiten, Jaungoikuak Ludi oneri bereztu eutsezan legezko zentzu guztiak.

Bestetik, diruak ezin daualako jabetasunik euki, bereztasunezko giza-eskubideakaz batera joan bear diralako diruen zor-ordeak, ekanduzko ardurak lez, norkeriaren irabazkoiezko griñatsuin, sasikatoliko asmo orretan ipiñita euren siniskera guztiak, Goiko Jaungoikoagan galdu dabe berezko sinismen guztia<sup>(2)</sup>, eta bide orretatik diru guztiak, lau salerosketaren eskuetan gera tu diralako, Ludi onetan ordezkatzeko bear dogun diru guztia, ankaz gora ipiñi dabe.

Orregaitik, argi ikusten doguz oraiñ, diruagaz egiten dabezan izkutuzko aruntz onutzko esku joku orreik, munduko gizarteak guztiz artega ta nora ezean, faziztaren sasikatoliko asmo orreitan batzangotzea onartu degun.

Gaur argi ikusten dogu, asmakizun orreik ezin dirala eroan aurrerantza, baiña begitu zer egin eben, erdi aroko aldiak atzean itzita, karlistadako gudak amaitu ta lenengo guda nagusiakin, Frankoren anai arteko gudakin eta munduko bigarren guda nagusiarekin, bai ta gaurko zentzunbageko borrokakin.

Iñork ez eben siñestuko aiñ urrun joango zirenik, baiña or dagoz emaitzak.

(1) Ziñeskintzatu = Dogmatizar. (2) Jaungoikua ta Bereztasunean norkeriaren irabazkoiezko griñatsuki galduta = perdidada fé en el Dios Creador y las leyes de la Naturalización por intereses personalistas y egoismos interesadísimos, poniendo sus creencias interesadas, en ese sacro nacional catolicismo, que les permite robar todo lo que puedan para controlar el Mundo.

Zeruko Jainkoarengan siñestuko ote dabe ?.

Ez !!.

Bestela, ez gendun egingo iñungo norkeriaren asmo legerik, Izadiak erperatuta daukazan legeditik atarakoakaz ibili baiño besterik.

## 2. 43. *Karlisten gudako aria ostera berreskuratuta.*

Amorebieta edo Zornotzan ospatu zan ongunde edo ta elkargo orrek, arnas apur bat artzeko epea emon eutsen karlistai, ikusi doguzan borrokatan euki eben asiera txarragaitik, bereala asi ziralako atonduten, eta karlista gudariak izkilluz tresnatzen:

-Nafarroan, Peraltatar Serapio.

-Gipuzkoan, Zurbanotar Esteban.

**-Bizkaian, Aranatar Santiago.**

-Eta Araban, Rotaetxetar Pablo arduratuz.

1.872ko urtean Uztaillaren 16an VIIIn Karlosek bere erregezko eskubideakaz, argi ezarri eban Frantziko mugatik, karlista guztiai esanda, bera batzangotasunezko konstituzio barri orren aurkakoa zala, eta eurei galdetu barik, ez ebal egingo ezeren aldarrikapenik, 1.869ko urtean Bagillaren 30ean egin eban antzera.

Espainitar karlista batzuen artean, Zeballostar Ermenejildorekin<sup>(1)</sup> bezela, ez zana on artu, eta edestia bere gogamen alde adierazpenduta idatzi eban antzera: “VIIIn Karlosek, zelan apurtuko eban beren aurreko erregeak, Vn Karlos, IIIn Felipe, ta Vn Felipek katolikotasunean batzangotuta aberritzeko ´en alde egin ebena ?” itanduten eban.

Nik dakitenagaitik, iru errege orreik eta artean egon ziranak, Euskalerrria ta Kataluña katolikotasunean aberrituz batzangotzeko ez eban egin ezeren indarririk<sup>(2)</sup>, eurak be nai ta beste nortasunezkoak izan arren, katolikuak izan zirelako, eta errege orreik begirun aundia euki ebelako eurakaz, emoten eutsoen arlo guztietako laguntzagaitik, errege orreik eurekaz bildur edo ondo bizi ziralako<sup>(3)</sup>, era orreitan gauzak ederto joan jakiezan, beti jokatu ebelako alde baktzak, euki zituzen nortasunezko jabetasunak ondo zainduta.

Euskalerrriarena, ardura andiz gaiñera, naita Vn Felipek Kataluñari, 1.700/1.704ko ondorengo gudan Austriako Karlosen alde jokatu ebalako, guda indarrez Foruak kendu arren.

1.872ko urtean Uztaillaren 16ko egun onetan VIIIn Karlosek, Kataluñako gudarien borondate onak indartu gurean, katalanaren Foruai ziñez itz emon eutsen, eta bere anai Alfonsok Kataluñako guda agintari nagusiak, elburu onekaz: “*!!Catalanes !! Por Dios, por la Patria y por el Rey*”, bere askeneko berbak, *¡Viva la religión ! ¡Viva España; ¡Vivan los fueros de Cataluña! Eta ¡Viva Carlos VIIIn !* aldarrikapendu ebazan.

1.872ko urtean Uztaillaren 18an gabeko amaikkak ziranean, I Amadeo espainitarren erregea bere emazteagaz doielra, eurak ilteko eraso gogor bat euki eben, Madrilleko Arenal kalean.

1.872ko urtean Dagonillaren 18an VIIIn Karlosek, borrokan asi gura eban, gudariak baiña, oraindiño prestakuntza gitxi euki ebelako, guda nagusiaren batzarretan, prestakuntza orreik lortu arte, itxaropenezko eritziagaz agertzen ziran ezker, Urrillaren 2an Euskalerrriko guda nagusiaren batzarreko agintaritzza kendu eban, eta Dorregaraitar Antonio guda nagusiaren ardura-pean ezarri eban, orokorrezko agintaritzza ori.

(1) Zeballostar Hermenegildo = 1.814ko Uztaillaren 13an Sebillan jaiotako. Ordezko koronoel baten semea izan zan.  
 (2) Ez ebelako ezeren indarririk egin = arrik eta 1.714ko urtean Vn Felipek bere “Nueva Planta”ko eritziagaz, guda bidez menperatu arte.  
 (3) Ondo bizi ziralako = porque vivian respetándose por la colaboración con que trabajaban.

1.872ko urtean Azaroaren 5ean liberalaren aldetik, euskal lurralde osoaren kapitan guda nagusia Riberatar Primok, espainitar gudaizteetan, gudarien arau gabea<sup>(1)</sup>, jazargo<sup>(2)</sup>, biurrukeria edo ta menik<sup>(3)</sup> ezaren lasaikeria ta gordinkeriak<sup>(4)</sup> ainbesteko neurri aundira eldu ziralako, bere agintaritzaren uztea aurkeztu eutsen espainitar gortekoari, eta oneik arazo orreri bidera urteteko, lenengo borrokan egin eben antzera, guda nagusiak sarri aldatuagaz konpondu eben, Etxague, Moriones, Pabia, Nobillas, Santxez Breguarekin eta abar.

1.872ko urtean Abenduaren 1ean Santa Kurtz apaiza batu zan bere basaguda taldeagaz, eta bere kontura asi zan liberalak zirikitzen, Gipuzkoako lurraldean.

Bizkaian Baldespinako Markesa, Lizarran Argonz ta Olo matxinatzen dira, eta Perula karlista guda nagusia Sesman liberalaren gogozko mutillai izkilluak kenduta, Baltierra, Kaparroso, eta Billafrankan sartzen da.

1.872ko urtean Abenduaren 18rako aukeratu zan eguna, matxintasun barri au ostera azteko, eta oraingoan, Dorregaraitar Antoniok ez ebalako asi gura karlisten guda au, Diaz de Radatar Eustakiok Jorraillan ezeren antolaketa barik, asi eben antzera ez urteteko, oraingoan, ondo presutatuko gaztekin urten eban borrokara.

Eta ostera agertu ziran basa gudari talde karlistak: Mundaka ta Bermeo artean, Goiriena Josulagun lekaideak bideratuta; Nafarroan, Olo, Radika, eta Argonz; Trebiñon, Sobrontar Kandido; Gipuzkoan, Santa Kurtz apaiza eta abar.

Santa Kurtz apaiza eta Soroeta<sup>(5)</sup> 24 urteko mutil gaztea, mutil gazteak lerrokatuten ibili ziran, euren basa gerlaritza sendotzeko.

1.872ko urtean Abenduaren 26an Bizkaiko Foru Aldundiak “Bakea ta Foru”aren idazpurua aldarrikatzen dau Bizkaitarrentzat.

1.873ko Urtarrillan Bilboko Foru Aldundiak, mutil gazteak karlisten zirikatuegandik kanpo geratu zitezen, Uri barruan geldi egoteko agindu bat zabaltzen dau, eurak bear ebazanetarako pezeta bat Bizkaiko Jauntzaren diru kutxatik ordainduta.

## 2. 44. (9). *Arana ta Goiri´tar Sabin´en aita Arana´tar Santiago.*

*1.873ko urte onen asieran, Arana ta Ansotegitar Santiago ostera itzuli zan Bilbora, baiña osterera joan zan Baionara, karlistak oster matxinatu ziralako eta gudari gazteak izkilluz eta gudarako bear ziran tresneriekin, jantzi egin bear ziralako.*

## 2. 45. *Karlisten gudako aria oster berreskuratuz.*

1.873ko urtean Urtarrillaren 7an VIIIn Karlosek, atzerrian egon ziran karlista guda nagusi guztiari, karlistaren gudaizteak antolatzeko, peninsulan sartzeko agindua emon eutsen, gero Dorregarai guda nagusitik asi ta, danari eskutitz bat bialduta.

1.873ko urtean Urtarrillaren 7an Moriones liberalak, ez eban onartzen bere guda agintari nagusiak euren gudaizteetan, sortzen ebazan maltzurrezko jokoakaz, espainitar gortekoak guzur orreik, egiak ziralakoan artzen ebazalako, eta bere guda nagusi Etxaguetar Rafael kenduta gudaizteetan agintaritzatik, berak artu eban guda zuzendari nagusitasun ori.

1.873ko urtean Urtarrillaren 13an VIIIn Karlosek Dorregarairi idatzi eutson eskutitzan esaten eban: “geiegizko lan gogorra izango zala gudarien antolakuntzazko lanak aurrera eroatea, guda nagusien artean, bekaizkeria, zelata, zalantza, salakuntza, eta murmurikari asko egon zalako, eurok biok jakiten eban lez”.

(1) Arau-gabea = indisciplina. (2) Jazargo, jazarkeria = oposición, rebelión, indisciplina. (3) Biurrukeria edo ta menik-eza = insumisión, indocilidad, desobediencia. (4) Lasaikeriak eta gordinkeriak = libertinaje deshonestidad, obscenidad, lujuria. (5) Soroeta, mutil gazte au = Aretxulegiko mendietan il zan 24 urte eukezala.



Eta VII In Karlosek, Lizarraga, Belasko, ta Dorronsorogaz lan egiela eskatzen eutson Dorregarairi, Ollo, Argontz, Perula, Diaz eta Radatar Klaudiogaz alkartzeko, oneik euken benetako sinismenean ezarri zitezten.

Gauza onen bitartez izan ziran gudalozte bietan sortzen ziran egoera larriak, alde bietan bardin sortuta, aurrean euken guda, oso gogorra etorrela usten ebalako.

1.873ko urte onen asieran asi ziran Euskalerriko lau lurraldetan karlisten gudal agintari nagusiak, eukezan talde txiakaz sasi gudan lez, gudariak gudu antolakuntzazko ezarpenean egokitzeke, eukingo ebezan borroka nausieri begira.

Geiago, Lizarraga oraindiño atzerrian antolako lanetan egon zan bitartean, Santa Kurtz apaiza ainbat gudamarru ta trebetasunezko sasi gudatan ibili zan, Gipuzkoa ta Nafarroako liberal gudariak zoratuz.

Asken baten espainitar gortetik, Santa Kurtzen buruagaitik diruzko saria ipiñi eben, Aretxulegi, ta Aiako atxarteetatik Soroeta gazteagaz alkartuta, Oiartzun, Erreenteri, Usurbil, Lizarrako mendietatik, Lasarteko ibarrean eta Astigarragatik egiten ebezanagaitik.

1.873ko urtean Urtarrillaren 19an Bergaran, Lizarraga karlisten gudal nagusia aurkezten da, Moriones ta Primo Ribera liberalen gudal nagusiak euki ebezan indarren aurrean, berak eukazanakaz neurtzeko.

1.873ko urtean Otsaillaren 11n, Saboiatar I Amadeo erregeak, lege batzarreko eta senatore batzar aurrean, ondo idatzitako agiri baten bidez, espainitarren erregetza uztea erabagitzen dau, eta lege etxe bi oneik lenengo errepublikako gobernua sortu edo irasiko eban, egin eben autaldiaz, 256 autarki, 32ren aurka irabazita.

Pi ta Margal' tar Franzizko bideratu eban gobernu au, eta konstituzioa aldatuz, ezker aldera bideratu eban, peninsula edo beren eritziz espainitar lurralde au, elkarzaletasunezko 15 errialdetan, euren udaleko lurraldeakaz banatzeko itxaropenean, autonomi edo askatasun gitxigaz oraindiño.

1.789ko urtearen ezkeroztik espainitarren betiko gorteak, eta gaurko Zapaterok euskaldun ta katalanarentzat gura dabenagaitik, daukaguzan izaerazko nortasunak ezerezko kontuan artu barik bizi gindezan gure dabe, munduko Uritarrak izan bagiñan lez<sup>(1)</sup>.

1.873ko urtean Otsaillaren 11n aberkide katoliko liberalai, geiago naastu egin jakiezan gauzak, espainitar gortekoak errepublika aldarrikatu ebalako baiezteko 258 bozka edo autarkiekin, 32ren aurka, eta errepublika ori aldarrikatuta be, ez eben zergaitik damu aundirik euki bear, motel jaio zalako jaurbide barri ori.

Gudal nagusi batzuk, XII In Alfonso gura eben errege lez aldarrikatzea, baiña bakean itzi eben, arik eta bera, jakiturian obeto atondu arte.

## 2. 46. *Ondorengo oarkizun txiki bat.*

*Baten batek esango daust orain, nolako ekanduzko motan edo eritzian egon ziran sinismenduta, orduko liberal politikari aiek, Erdi Ugarte edo peninsula onetan ezarri gure ba eben gaur daukagun menperatzaillaren konstituziozko laterri barri orreik?.*

*Argi dago espainitar lengo gudal politiko aietan, eta gaur daukaguzenaren artean lez, ez dauksiela balio, Goiko-Jainkoagandik gai-Ludi oneri ipiñitako legerik, ez ezer, eurak esaten daben lez "Por el destino en lo Universal" euren naiezko "Nacional Catolico" lapur sakratu ori izan ezik.*

(1) Munduaren uritar lez = ciudadanos del mundo. "Zer sa bizi au eurentzat ?". Ori da euren buruak emoten dauan guztia ?.

*Eta begitu noraiño izango dan asmatu eben lapurtza orreri egiten dautsoen gurgintza<sup>(1)</sup>, Jainkoaren Lege gainetik, gudarako daukien tresneri-endar guztiakaz, prest dagozelako berezko erri ta giza/semearen aurka erabilten. Nizeatik norkeriz erabagita daukien “aberri katolikoaren sasijainkotasunean batzangotzeko Europa ta Mundu osoa.*

## **2. 47. *Karlisten gudako aria ostera berreskuratuz.***

1.873ko urtean Otsaillaren 14an Liberalak, eupada edo erronka<sup>(2)</sup> lez artu eben Santa Kurtzen erasoak, eta Gipuzkoako Tolosaren Aldunditik, bere Agirre ordezkari nagusiak 10.000 pezeta agindu ebezan Santa Kurtz arrapau egiten ebanentzat.

Eta Santa Kurtzek, Lizarraga ta beste karlisten gudal nagusi esanetan, ez ebalako egiten, eurak aginduten eutsena baiño, karlistak 20.000 pezta agindu eben Aldundiko arduradun nagusi Agirre ordezkariaren buruagaitik.

1.873an Otsaillaren 14an I Amadeok, espainitarren gobernuan egiten ebanagaitik, eta beren aurka ainbat euki ebazalako, bertan itzi eutson espainitar errege izateari.

*Amadeoren utzitasun onen arrazoia, ez da urriñetik ibili bear aurkitzeko, bere ondoan ezartzzen ziran liberal demokratikoen artean egon ziralako etsai amorratu aundienak.*

*Bestela zelan ezkondu, Amadeo berak euki eben Europaren “erdi-demokraziaren sendimeneko izpi argia”, bera errege lez aukeratu ebenak euki eben “menperatzaille osoko sendimenduarekin?”.*

*Nere ustez, gertakizun orreik ez dabe bear adierazpenik, eritzi bi oiek orio ta ura lez, ez daukielako aukerarik nastekatu edo konpontzeko, egia ta guzurra nastekatu ezin diran lez.*

1.873ko urtean Otsaillaren 19an liberalak, euren gudal nagusia kendu ta Manuel Pabia ipiñi ondoren, onek “Bakea eta Foruak” eskaiñi eutsoezan euskaldunai, karlistak euren laguntzagaz indar asko asi ziralako artzen.

## **2. 48. *Oarpen txiker bat egin bear dogu emen, egoera au ulertu degun:***

*VIn Karlos, espainiarren erregetzagaitik borrokatzen ebala, “ez Foruen” gaitik.*

*Guk, borrokatzen genuen “Foruen Askatasunagaitik”, baiña atzerako erantzun edo ta igorritako argi<sup>(3)</sup> bat lez, Karloseri lagunduta.*

*Gure erriko elburuen sinismenean, banakatuta egon giñan, espainiar gudalozteak euken indarraren aurka bakarrik joateko.*

*Orregaitik egin zan Euskalerrian eta Kataluñan borroka guztiak, espainitarren guda bakarrik izanda, bide batez biak euren kontrolpean eukinda, menperatu gura ebazalako.*

*Gure orduko askatasunaren garaipena, edo ta Foru jabetzaren itxaropena, VIIIn Karloseri lagunduta euki gendun.*

*Europatik baiña, sasi-arrazoizko almen guztiak, Euskalerra ta Kataluñaren aurka egon ziran, lurralde nagusi onen “merkantilista, katoliko, liberal menperatzailleak” mundu osoa batzangotu ezinik, Europa erazko zati orretan menperatzea erabagi ebelako.*

*Berezkotasuna kontuan artu barik, gaur daukaguzan aberri barriko laterrietan egokitzeo erabagitu eben, Jainkoaren Lege ta gizaren eskubide guztien gainetik.*

*IVn gizaldian asmatu eben urrezko txekor ori, danok gura nai ez deguna, gurtu daigun.*

*Mundu onetan baiña, Jainkoaren Legetik kanpo, almenezko bide guztiak euren mugak daukiez, eta egoera larri orreitan agertzen gara gaur, gure eragilletasunezko bizitz au, lapurrezko bizi baten biurtuta daukagulako.*

(1) Gurgintza = culto, adoración. (2) Eupada edo Erronka lez = como una provocación. (3) Atzerako erantzun edo igorritako argi bat lez = respuesta refleja, o a través de.

## 2. 49. *Karlisten gudako aria ostera berreskuratzuz.*

1.873ko urtean Otsaillaren 19an karlisten basa gerlariak, apaizagaitik bideratu, ta euren kontrol-pean euki ondoren, euskal batzarreko antolamenduagaz bultzatuta, Otsaillaren 20an Santestebeneko erritik, 20/30 urte bitarteko gazteen bilketa agindu eben, karlisten guda taldeak, indarrezko itxura apurbat artu egien, eta Eliok karlisten guda nagusiak, lau euskal lurraldeetan bardiñ egiteko agindu eban.

1.873ko urtean Epaillaren 27ko debora onetan, Euskalerrian ez zan egon aurkako guda gogorrik, Kataluña aldean egon ziralako borroka latzetan, egun oneitan Barzelonaren lurraldean, Bergarako errian egin zan antzera.

1.873ko Jorraillaren asieran, Elio ta Dorregarai karlisten guda nagusiak, Bizkaitik ibili ziran, mutil gazteak euren guda taldeetan lerrokatu zitezzen.

Eta Loraillan, Elio guda karlista nagusiak, Euskalerriko beste lurraldeetara lerrokatze ori zabal-duta, sasi gudako taldeak ugaritu ta guda loztearen prestakuntz ona artzeko, etsaien indarrak pareko edo gitxiagoak ziran borrokatzen dira bakarrik, bien bitartez liberalaren aurkaritza, zirikatzeo bakarrik ibilita.

1.873ko urtean Loraillaren 5ean Dorregarai, Baldespinako markesa, Lizarraga, Ollo, eta Radika<sup>(1)</sup> karlisten guda nagusiak, Nafarroako Eraul errian egon ziran, eta Nafarroako 1º, 2º, eta 3º taldeak Azpeitiko taldeagaz euki ebezan 2000 gudariekin, Santxez Breguaren liberal guda loztea menperatu eben.

Eta kendu eutsien kañoia, aldatzen ziran erri guztietatik joan ziran erakusten, andrak kañoi ori, garbitu eta labaindu ondoren, dirdaitsu<sup>(2)</sup> apaintzen ebena.

1.873ko urtean Bagillaren 8an Lizarragatar Antonio karlista guda nagusiak, gudariak Santa Kurtz apaizaren aurka ipinteko, eskutitz bat zabaltzen dau keiñatzaile, eta 9an beste eskutitz bat VIIIn Karloseri esaten, berak artu dauazan erabagiak txarto artuta dagozela uste baeben, euken agintaritza bere eskuetan izten ebala, VIIIn Karlosek, ez ebena onartu.

1.873ko urtean Bagillaren 13an Lizarragak, Dorronsoro karlista guda nagusiari be, beste eskutitz bat bialtzen dautso: Santa Kurtzen asierako bizi kondairagaz, Gipuzkoan sortzen ziran eztabaidak errukari zala esaten.

Eta salaketa orreitan Lizarraga berak, Santa Kurtz ezarri ba eban, Santa Kurtzen aurka, eriotza-ren zigorra aginduteko zan.

Bitarte orretan, Breguak liberalaren guda nagusiak, Bizkaiko erri askotik alde eginda bere guda-lozteak batzen ibili zan.

1.873ko urtean Lorail/Bagillaren illak eta Uztaillaren lenengo egunak oso mubikorrak izan ziran liberalaren guda lozteetan, Noubilas eta Radolfs Ramonek, Iparralde onen orokorrezko guda nagusia-ren laguntza euki ebelako, a ta guzti karlistak baiña, zoratu ebazan liberalak, emendik eta andik euren atzetik zirikituten ibilita.

1.873ko urtean Bagillaren 6an gaiñera, Kataluñaiko liberal gudariak euki eben naigabeagaz, es-painiar gortekoak ez ebalako dirurik bialtzen guda loztearen ordainketarako, auek guztiz matxinatuta, guda nagusiak il ebezalakoen keiñada edo ta zemankuntzak in ibili ziran, guda nagusiaren agindutik kanpo, eleizetatik mezontziak lapurtzen, andrak, indarrez beartzen, eta Aldundietatik Kataluñaiko as-katasuna eskatzen espainitarrengandik bereiztu edo ta banatzeko.

1.873ko urtean Uztaillaren 9an VIIIn Karlosek aginduta, Baldespinako markesa Orbetar Juan Nepomuzeno, karlisten guda nagusia joan zan Santa Kurtz apaizarengana, gudu indar eta gudarako euki ebazan tresneri guztiak, Aritxulegiko gaztelua ta bere agindupean egon ziran beste gauza batzue-

(1) Radika = Diaz de Radatar Claudio guda nagusiaren izen-gaiztoa. (2) Dirdaitsu = Garbitu ta labainduz ondoren, dirdaitsu apaintzen ebena = que después de limpiar y alisar lo ponian brillante.

kaz batera emon eiotsezan, eta agiri baten siñatu eben zelan emoten eutsoezan gauza guzti orreik, Santa Kurtz apaiza Frantzira atzerrirata.

## 2. 50. *Karlistaren arteko gertaera oneik:*

*Antonio Pidalaren "Historia contemporánea" liburuko bigarren atalean 1.843tik XIIIn Alfonren eriotzararte, 1.011, 12, 13 ta 14garren orrialdetan aurkituko dozuez.*

## 2. 51. *Karlisten gudako aria ostera bereskuratuz.*

1.873ko urtean Uztaillaren 16an Eraulen, Dorregarai karlista gudal nagusiak, liberalaren guda-lozteari irabazten dautse, eta ekintza onegaitik VIIIn Karlosek Dorregarairi, Erauleko markesa izen-datu eutson.

1.873ko urtean Uztaillaren 16an VIIIn Karlos sartzen da Nafarroara Dantxarineatik, bertan Bal-despinako markesa eta Lizarraga gudal nagusiak itxaroten eukezala.

Eta garaipeneko ibilkera orreitan, Zugarramurdi, Baztan, Arizkun, Labayen, Leiza, Lekunberri eta Irurzunetik, karlistak Iruña ondoko Ibero erria berrezkuratu ebenean, bertan geratu ziran, gero Amezkoasetik, Araba ta Trebiño aldera igarota, Urduñatik Bizkaian sartu ziran, eta Gernikara Dagonillaren 2an eldu ziranean, VIIIn Karlosek bertan, gure Foruai ziñez itz emon eutsezan.

Denbora onetan, Gipuzkoan egon ziran basagerlari guztiak, apaizagaitik bideratuta egon ziran, eta Andoaíneko apaizak liberalari aurka egon odoren, 40 gudari Tolosara eroanda atxilotu ebezán.

Uda onetan, Euskalerriko erri geienak jausten dira karlistaren kontrolpean, ostera sortuta, 1.835eko urtean Zumalakarregigaz sortu zana:

- Bilbao eta Portugaleta izan ezik, Bizkaiko erri geienak.
- Gipuzko guztia, Tolosa, Donostia eta Irun izan ezik.
- Nafarroa guztia, Iruña, Estella eta ibaiondoko zati bat izan ezik.
- Eta Araba guztia, Gazteiz eta Biazterri<sup>(1)</sup> karlisten kontrolpean euki ezik, Euskalerrri osoa egon zan karlisten agindupean.
- Madrilletik etortzen ziran su-gurdiak ez ziran Ebroko Mirandatik aurrera joan 1.876ko urterarte.

1.873-1.876 urte auetan karlistak, euren aldera irabazten ebazan erriak, laster ipinten ebazan gure Foru Aldundiko batzarpean euskal politikako banakaritzan, euren erregezko gobernu antzeko bategaz.

Jaurkintza, nimiño errege<sup>(2)</sup> antola baten antzera, erregeari ta ministruaren batzari egokitzen ja-kon, eta Foru Aldundiakaz batera jaurkituta, Euskalerrri auek izan ziran benetako ordezkariak.

Goi Maillako Errege Batzar izenean Euskalerrriko epaikaritzá, Elio ta Ezpeleta gudal nagusiak zuzendu eben.

1.873ko Uztaillaren azken onetan Endetxagatar Kastor koronel ordezkioak, Enkarterri ta Me-nako ibarrekoak matxinatu ebazan, bera gudalozte orren agintari ipiñita, eta gudari talde nagusi bat lerrokatzea lortu eban.

1.873ko urtean Dagonillaren 2an, VIIIn Karlosek Zornotzatik Gernikara joanda, gure Foruari, ziñez itz emon eutson.

1.873ko urtearen Dagonillan, karlistak Eibarko erriagaz egiten dira, eta izkillu ta izkilluaren tiroi ta tresneri askogaz egin ziran.

## 2. 52. (10) *Arana eta Goiri tar Sabin.*

*1.873ko urtearen Dagonillan, Arana ta Goiritar Sabinok 8 urte eukezala, bere ama Paskuala, arreba Paulina, Sabino baiño sei urte zarragoa zana, eta Koldobikaekin batera, Ego Euskalerritik iges*

(1) Biazterri = La Guardia erria Arabako Errioxan. (2) Nimiño erregetza = monarquia en miniatura.

*egin bear izan eben Lapurdira, bere aita Santiago euki eban diruagaz, karlista gudari mutillak izkilluz tresnatzeko ibilita, iges egin bear ebalako.*

## 2. 53. *Karlisten guda ostera berreskuratuz.*

1.873ko urtean jaio eta 1.879ko urtean amaitu zan, “El Correo Vascongado” argitaratu zan aldizkaria, ta Delmas ta Truebak argitaratuko dabe “La Correspondencia Vascongada”.

1.873ko urtearen Dagonillaren 6an, 1.870ean autatu zan Aldundia ezarri zan barriro.

1.873ko urtean Dagonillaren 9an, karlisten “El Cuartel Real Aldizkaria” argitaratu zan, gudaren barriak emoteko:

-Moralestar Salbador, bere anai Pabloren laguntzagaz, Tolosa, Durango, Oñati edo ta Lizarran astebiko epean argitaratzeko aldizkaria eskaiñi eban, Zaragozako lurraldean Darokatik Aldundiko arduraduna izan zanaren, Gomeztar Balentinen zuzendaritzapean.

1.873ko urtean Dagonillaren 12an Andetxagatar Kastorrek, Bilbo irugarrenez inguratu gure dau, eta 1.836ko urtean sortu zana ez egian gertatu, Portugalete inguratuz, asten dau Bilboko eraso aldia.

1.873ko urtean Dagonillaren 13an Dugiols liberalaren guda nagusiak, Loma guda nagusiaren aginduz, bere gogozko mutillakaz eta errian liberalen alde itz emonda egon ziran erritarrekin urtetan dau Oñatitik, andik aurrera, VIIIn Karlosen gorrea izango zana, Durango, Tolosa, eta Lizarrarekin batera.

1.873ko urtean Dagonillaren 15ean, Lizarraga karlisten guda nagusiak bere gudariekaz Bergarako errian, 1.839ko urtean Dagonillaren 31n Esparterok eta Marotok siñatu eben itun edo egiuneko agiririak ango oroikarrian egongo ziralakoan, ezereztu eban au, eta agiriak ez ebazalako aurkitu, beste paper batzuekaz, itxurazko ordezkotza egin eben, agiri areik erre ebezalakoan.

1.873ko urtean Dagonillaren 20an karlistek Bilbotarrai, iturriko ura ebagiten dautsoe.

1.873ko urtean Dagonillaren 22an IIIn Isabelek, eukezan legezko almen guztiekaz, bere seme Alfonsoren alderdiko agintari bakarra izendatu eban Del Kastillotar Kanovas, Alfonso semea ta Isabel alabea aurrean direla, bai eta Kanobasek, bere baldintzak ipiñi ta gero, IIIn Isabelek on artu ebana.

1.873ko urtean Dagonillaren 23an espainitarrak, XIIIn Alfonso, erregetzat aukeratu eben.

1.873ko urtean Dagonillaren 24an, 20an Bilbo inguratzen asita, ingurutasun ori estutu orduko, atze aldea babestu bear izan eben karlistak, eta orretarako Lizarra, Biazterri, ta Tolosa artu bear izan eben, lenengo borroka gogor baten ostean, Lizarra artuta.

1.873ko urtean Dagonillaren 25ean Liberalek, Lizarra gure dabe ostera berrezkuratu, karlista gudariekin Dikastillon borrokatuta, baiña galtzaille urten eben eta Lizarra Karlistaren eskuetan geratu zan, VIIIn Karlos borroka orren ikusle izan zala.

Bien bitartean Biasterin, Zurbanotar Migelek, sasigudaren aurkako beste sasi gerlari talde bat sortarazteko alegiñean egonda, erria be sendotzen asi ziran, karlisten erasoai aurre egiteko.

1.873ko Dagonillaren erditik aurrera, 3garrenez inguratzen dabe karlistak Bilbo, Uri barruan guztiz, 40 kañoiakaz egon ziran 4.000 erritar ta gudarien aurka.

Eta Bilbaoko inguratze ori aurrera eroateko, Belasko karlista guda nagusiak antolatuta, prestu ebazan karlistaren guda indarrak:

Kontuan artuta, talde bakotxaren gudariak, 800enetik gora izan zirela.

- 1.- Ipiñatar Juan koronel ordezeko aginduan, Arratiko taldea.
- 2.- Etxebarritar Martinen aginduan, Arratiko taldea.
- 3.- Altarribatar Ramonen aginduan, Durangoko talde bat.
- 4.- Gorordotar Sarasolaren agindutara, Markinako taldea.
- 5.- Seko ta Fontetxatar Joseren agindutara, Bilboko taldea.

- 6.- Gorodotar Sebastianen agindutara, Mungiako taldea.
- 7.- Iriartetar Leonen agindutara, Gernikako taldea.
- 8.- Bernaolar Kasianoren agindutara, Urduñako taldea.
- 9, 10enak - Adetxagatar Kastorren koronel ordezeko agindutara, Enkarterriko taldeak.
- 11.- Bruyeltar Antonio koronel ordezeko agindutara, Gaztelar Zid'en eiztariak,
- 12.- Santxez Naranjotar Telesfororen agindutara, Gaztelar Arlanzoneko eiztariak.
- 13.- Noriegatar Felixen agindutara, VII In Karlosen emaztearen Margarita izeneko zaldun taldea.
- 14.- Garzia Gutierrezar Julian kapitaiñaren agindutara, mendietarako kañoiezko sail edo lerro-kada bat.
- 15.- Jauregitar Gerbasio komandantearen agindutara, tresneri, diru, jantzi ta janariaren banakuntzak egiteko talde bat.

1.873ko urtean Iraillaren 2an Bizkaiko karlistaren Aldundiak laguntza andia bear izan eben, karlistaren gudalozteak diruz, jan-edari, izkilluaren tiroiñak eta gudarako bear ebezan tresneriekaz ornitzeko.

1.873ko urtean Iraillaren 6an gauza orreikaz arduratzeko, batzorde bat aukeratu zan Orueta'tar Markosen agindupean, Basterra'tar Pedro, Legarreta'tar Bittor, Egidazu'tar Zezaro, Bernaola'tar Agustin, Martinez'tar Jose, De la Kina'tar Bernardiño, Laskoaga'tar Manuel, eta Sagarduy'tar Antoniok osatzen ebena, gero Zamalloa, Unzaga ta Llonagaz andiagotu ebena.

Eta beste karlista batzar bat be egin zan, gudalozteak bear ebezan gudu tresneriakaz ornitzeko, Zabala, Zugazaga, *Aranatar Santiago*, Lameu, Epalza, Sollano ta Aldekoa gaitik osotuta geratu zana.

1.873ko urtean Iraillaren 6an espainiar gobernuan Kastelartar Emilio aukeratu eben 133 autar-kirekin, Pi ta Margall'tar Franzizkok 67 lortu eben aurka.

Kastelar au, euskaldunen eritzitik begituta, naita berak errepublikanoa zala esan, goitik berako konstituzionalista izan zan, eta orduan naita ez, sasikatolikoan mercantil liberalaren aginduten ebazan arau legearen adostasunean egon zana, bera Askatasuneko Demokrata eta elkar zaletasunaren<sup>(1)</sup> aldekoa zala aldarrikatu arren.

Nork aitu ?.

Menperatzaile sutsu bat dan espainitar Konstituzioaren aldekoa izanda, naita Aberats Kai edo Puerto Rikon joputasuneko<sup>(2)</sup> legeak kentzeko agindu gogorra emon arren, Errepublika eta Askatasuneko Demokrasiaren zale-itsua dala bera ?.

Zelango gogo edo oldozmena euki eban, euskaldun eta Katalanaren eskubidearekin ?.

Ortik ikusi geinke argi, zelako askatasunaren bizitz itxaropentsu euken erdi ugarte edo peninsula onetan bizi diran erri ezberdiñak, katoliko ta merkantillezko menperatzaile oneik eukezan maltzurrezko eta guzurrezko gogamenaren aurka.

1.873ko urtean Iraillaren 9an karlistek, itzaldi batzuk emon ebezan Bergaran, Bizkaitik Piñera, Antuñano eta Saratzu joan da, Gipuzkoaren aldetik, Dorronsoro, Berzosa, Unzeta'tar Manuel, ta Biñuela, eta Arabatik, Barona, Mendieta ta La Guardia.

Nafarroako batzarraren arduradunak esan eben, eurak ezin ebela joan itzaldi orreitar eta beste itzaldi batzuk antolatu egiezala eskatuta, Bergaran egin ziran Azaroaren 15ean.

Ekitaldi onen ostetik Azpeitia, Plazenzia, Eibar, Elgoibar, Berako burniola, Araozko Bergatar Romualdoren lerrauts lantegia, eta Bizkaiko gudu lantegiak bizkortu ziran, Belgikara joan eta eukezan tresnerien utsunak erosi, karlisten gudalozteak bear ebenagaz ornitzeko.

(1) Elkar-zaletasunaren- federalista, o, a favor de cantonalismo, con un poco de libertad autonómica, que es lo que hoy tienen implantado. (2) Puerto Rikon edo Aberatzaren Kaian joputasuneko legeak kentzeko, agindu gogorrek agindu aren = aunque en Puerto Rico mandaron con leyes muy duras abolir la esclavitud.

Lau lurraldeen Aldundiak eroan eben Karlisten jaurkintzazko lanen ardura nagusia, euren artean baiña, Gipuzkoakoa bereztu bear dogu, bere aurrean egon zan Dorronsorotar Migel kementsua, aipagarrienetarikoa izan zalako.

Andrazkoak be, ez ziran atzean geratzen, alargunduta egon ziran Arrindatar Sebastiana, ta Uzelaytar Petrak 6.000 longain<sup>(1)</sup> gudal jantziak bear ebezanakaz eta guzti, emon ebezalako euren zarpetetik ordainduta karlista gudarienzat.

1.873ko urtean Iraillaren 13an espainitar gobernuak, Santxez Bregua Iparraldeko liberal gudal nagusiak ezin ebalako ezer egin karlistaren aurka, Moriones ipinten dabe euren gudalozte agintari, eta onek gudariai errepublikaren arimako izpiritu barriagaz biztuta, Gazteizetik Iruñarantza joaten da bere 12.000 gudariekin Urrillaren batean Larraganen sartuta.

1.873ko urtean Iraillaren 13an espainitar gobernuak, Bregua gudal nagusia kentzen dabe gudaloztearen agintaritzatik, eta Moriones ta Murillotar Domingo Orokietako markesa ipinten dabe, Erdiugarte onen Iparraldeko gudaloztearen agintari.

1.873ko urtean Iraillaren 21ean Moriones liberalak Gazteizetik, agiri bat zabaldu eban zemaika edo larderiaz Euskalerrri osorako, euren agintari zaintzaillezko agindupetik kanpo egon ziran udalerrri eta lurralde nagusietako apaiz eta alkateak beartzen, euren legezko agindu onegaz:

“Jakiten ebenean liberal gudalozteak euren tokietara doazela, bakotzaren erriko ateetan baiño 300 metru aurrerago kokatuta egon bear zirala arduradunak prest, gudaloztearen agintari aurrean aurkeztu egiezan, euren gudalozteetarako emon bear ebezan mutil gaztearen kopuruak, ia ordainduta eukiten ba ebezan, agiriak”.

1.873ko urtean Iraillaren 30ean Durangotik, agindutako agiriak erakusten dauan lez, eta urtearen amaierarako, Kataluñaiko karlisten guda indarrak ia lurralde guztia euren eskuetan eukinda, ez eben jakin egoera orretatik ezeren onurarik artzen, gudal nagusiak euren arteko etsaikeriakaz geiegi arduratuta egon ziralako.

1.873ko urtean Urrillaren 6an Morionesek, Mañeruko Santa Barbara mendietan aurkezten ziran Ollo, Rada, Mendiri, ta Argonz karlista gudal nagusiekin, egin eban borrokan, bardiñ antzera urten eben, naita liberalak il askoz geiago euki.

1.873ko urtean Urrillaren 6an liberalak, Migel Zurbanogaz aurkako basa gerlarien talde bat atonduten egon ziran bitartean, Biazterriko karlistatik babesteko. Liberalaren gudal nagusiak Lizarra berrezkuratu gure dabe, eta Mañerun Mendiry karlista gudal nagusien agindupean egon ziran guda indarrakin borrokan asita, liberalak ondo astinduta urten eben.

## 2. 54. (11). *Arana-Goiri Sendia.*

*1.873ko urtearen Urrillan Arana Goiritar sendia, Baionan kokatu zan, eta Luis ta Sabino Rua de Espagnen dauan San Luis Gonzagaren iraspeneko ikastetxean, gaur Le Guitxot izenagaz ezagutzen dana, emon eben izena 1.873/1.874 eta 1.874/1.875 urteko ikasketak Donibane Loitzunen beteteko eta azkeneko azterketak Ondarribin egiteko.*

## 2. 55. *Karlisten guda ostera berreskuratuz.*

1873ko urtean Urrillaren 6an liberalak Lizarra artu gurean, galtzaille urten eben.

Azaroaren 7, 8, ta 9ko egunetan, Moriones gudal nagusiak, Lizarra berrezkuratzerantz joan zan ostera, eroan ebazan 11.000 gudariekin, eta Jurramendin<sup>(2)</sup> 9.000 karlista gudarien aurka borrokatuta, Morionesek egunduko astinialdia artuta, alde egin bear izan eban.

(1) 6.000 longain = capas o, capotes para los soldados. (2) Jurramendi = Montejurra.

-Ille orretan Biazterri karlistek berrezkuratuta, eta beragaz Arabako erri geienak geratu ziranez karlisten kontrolpean, Biazterri ipiñi eben gudaitegi lez, Errioxaldetik egingo ziran ekitaldiren asiera izan zediñ.

1.873ko urtean Abenduaren 2an Moriones liberal guda nagusiak, Belabietako borrokan, karlistak Tolosari inguratzeko euken prestaera apurtzen dautsez.

1.873ko urtean eta Abenduaren lenengo egun onetan, Santa Kurtz apaizak egin ebazanek Lizarraren aurka, (Santa Kurtzen bizi kondairan esaten dodazena), gudari karlistentzat, mendeko eritzitik urten edo ta biozkatzeko gauzak<sup>(1)</sup> izan ziran.

1.873ko urtean Abenduaren 9an, Moriones ta Loma guda nagusien gudaizteak bat eginda, Belabietako mendiaren inguruari erasotzeko, eta Tolosan sartzeko prestuten egon zirala, Lizarraga karlistaren guda nagusiak, bere guda nagusiakaz, Tolosaren babesa asi zan prestuten Moriones eta Lomaren gudaizteari aurre egiteko.

1.873ko urtean Abenduaren 10ean, Santa Kurtz apaizak, Frantzira joateko bidean egoala Anzuolatik, eskutitz bat bialdu eutson Dorronsoro guda nagusi karlistari, beren aberkidetza aurkezten, eta Lizarragaren aurka zergaitik egin eban egin ebana adierazteko, egun bat eskatuta berarekin alkar izketa bat eukiteko, arazo orrei, urten bide bat emoteko itzaropenean.

Dorronsororen erantzunda: zelan “agintari lez, aizatu edo bere atzean jarraian ibiliko zala bera arrapatu arte” esanda, eta bide batez aolkua emonda, Frantzira atzerriratu zedin.

1.873ko urtean Abenduaren 21 eta 22ko egunetan, Moriones eta Loma liberal nagusiak, ezereztu ebezan Tolosa ta Gipuzkoako alde ori menperatzeko euki ebezan antolakuntzak, eta Santanderrera joan ziran gudaizteak obeto prestuten.

Karlistak sasoi osoan oster, indar berritu edo sendotuta, ta Gipuzkoako inguru orreik babesteko antolamenduak eginda, Azpeitian, emankortasun osoan ipiñi ebezan, lerrotu barri ziran gudari gazteak ikasi egien, kañoi, izkillu ta gudu tresnaren lantegiak, gero Bilbo erasotzera joateko.

## 2. 56. *Ondorengo oarpen labur bat.*

*Argi ikusten da emen be, espainitar liberal gudaizteak, ez ebela inungo premiñarik euki, Erdi Ugarte au, Europako liberalak agindu eben legedian, eta 1.812an espainitar guda nagusiak sortu eben Kadizeko konstituzioaren legepean ezarri gindezan asko kostata be. Jakin ebelako, denboraren luzetara, eurak izango zirala garailla. Karlistak ez ebelako dirurik, ez gazterik, eta ez tresneririk be euki, borroka luze baten jokatzeko.*

*Sasi asmakizunarentzat, aurrerazko urbil ta urrunera begituz, bear zan indarrezko almen guztia euren eskuetan eukinda eta maltzurtasunez jokatuta, Menperatzaille elburu orreik izan ziran arduratzen ebezanak bakarrik, Europa eta munduko errigizarteak, euren norkeizko asmakerian edo serbitzuan bizi gindezan.*

## 2. 57. *Karlisten guda oster berrezkuratuz.*

1.873ko urtearen Dagonillatik, Bilbo inguratuta egon arren, Bilbotarrak bear ebezan janari ta borrokatzeko tresneri guztiak, Portugaleteko bidetik ekarten eutsiezan.

1.873ko urtean Abenduaren 29an baiña, peninsula onen Iparraldean ezin ezik, beste lurralde guztian, gudaren eten antzeko bat sortu zan, eta karlistak euren indar guztiakin Bilbo eskuratzen saiatu ziran.

1.873ko urtean Abenduaren 29an Bilbo babesteko, barruan egon ziran liberal indarrak: 27 guda nagusi, 260 gudaiburu, 40 kañoi, eta 4.826 gudari ta erritar, eta 204 buru zaldi ta mandoen artean osotzen ziran.

(1) Mendeko eritzitik gabetzeko edo ta biozkatzeko = indisciplinarse y desanimarse.



*Bilbaoko zeaztasun guzti auk aurkitu gura ezkerro: Etxebarriatar Marianok idatzi eban "Bilbao ante el bloqueo" 1.873/1.874ko bonbaketaren liburuan aurkituko dozue.*

Orretarako karlistek, Ibaizabalean Olabeagatik, Las Arenas eta Portugaleteraino, liberal gudarien itsas untziren joan etorriko ibilkerak geratzeko, ibaian, kateak zabaldua zarratu eban, eta edateko ura ebagi eutsoenean, Bilbo, guztiz inguratuta geratu zan.

1.873ko urtean Abenduaren 30ean Dorregarai karlista gudal nagusiak, Portugalete asten da inguratzen, bide batez Baldespina markesak, Zubi Barriren mendiko goi aldia, Santo Domingo, Artxanda, Ollaran, Zorroza, Arnotegi ta Basurtoko mendi barrenetik gudariak zabaldua.

## 2. 58. **1.874ko urtean agertutako aldizkariak:**

- "Bizkaiko lurraldearen agintezko aldizkaria".
  - "El Eco Bilbaino", Kosme Etxebarrietak eta Laskurainek argitaratua.
  - "Irurac-bat", de la Muela ta Udondo 'tar Rikardo bere zuzendari zala.
  - Delmas eta Truebak irasitako "La Correspondencia Vascongada".
  - "La Guerra" Etxebarrietatar Kosmek eta Laskurainek argitara ataratakoak, askeneko aldizkari onek "Noticiero Bilbaino"n aldatuko zana.
  - "El Eco de los Voluntarios" Laherran 'ek argitaratua. Bilboko eiztari gudarien aldizkaria izan zana.
  - Eta 1.869ko urtean ertsitu ta berriz agertu zan "Euskalduna" aldizkaria.
- Emen argi agertzen da ze garrantzidunak izan ziran Bilboko Uri ta beren inguruko erriak.*

## 2. 59. **Karlisten guda ostera berreskuratuz.**

1.874ko urtean Urtarrillaren 3an Pabiak espainitar gudal nagusia matxinatu, eta I errepublika ezereztuta, bitarteko eskubitar jaurkintz barri bat sortu eban, Serranoren agindupean ipiñi ebana.

1.874ko urtean Urtarrillaren 8an baieztu zana.

1.874ko urtean Urtarrillaren 21ean Portugalete jausten da Andetxaga karlista zarraren eskuetan, 2.000 kañoien lerkaien eztanda igaro edo eutsi ondoren.

1.874ko urtean Urtarrillaren 22an Amos eta Kijadatar Muñiz liberalen gudal nagusia, Dorregarai karlisten gudal nagusiai etsaimendu zan, eta karlistak alde bietatik lerrotuz ta izkilluak aurkeztuta, liberal gudariak lerrotuz aldatu ziran karlista gudarien erditik, errege erakundearen abestiko doñuakin.

Eta Andetxaga geratu zan Portugaleten, Enkarterri ta Nafarroako gudari taldeakaz.

VIIIn Karlosek Andetxagari ekintza onegaitik, Dorregarai gudal nagusiaren ordezkua izenduz gain, zelaiko mariskala be izendatu eban, Patero ta Rada general ordezkuan, Kalderon koronel izendatuta.

## 2. 60. **Gogora ekarteko oar txiki bat.**

*Eta emen beste geraldidi bat egin bear da, itaun au gogora ekarteko:*

*"Gure Euskal gizarteetan, zergaitik batzuen (asko ezango neuke nik) sendipenetan ezarri zan karlistaren izatasuna, karlistak espainiarrak izan ba ziran?"*

*Euskaldunak, gure Foruen legeagaitik borrokatu giñan, Vn, eta VIIIn Karloseri laguntza eskeiñita, Foru Legeak, euren erri ta beste atzerriko erritarrentzat, lotsorkotasunekoak edo adeitsuak izan zitezten.*

*Argi ikusten da, euskalgizarte arteko geienak, ez ebela euki orren arazoaren barri edo argibiderik, denbora aietako errigizarteetan bearraldi edo ta bizitzeko premiñ andiak egon ziran, agertu barriak ziran Euskal arazo orreik arazoiz ulermentzeko, eta izatezko arazoiz orreik, ez genduzelako zuzendu, oker ulertukoak sendotu egin jakuzan.*

*Errigizartearentzat, gudabidez sortzen diran naztezko zurmur edo lokatzutako oiartzunak, indar geiago eukien arrazoiarenak baiño, arrotzak menperatzailearen lanak egiterakoan, daukien “VENI, VIDI, VINCI” indarkeri guztiagaz beti lez erasotzen ebelako, eta guk erlijiotik asita, bear genduzenak euren kontrolpean egon ziralako, beti kosta izan jaku, bear doguzenak berrezkurutzen.*

*Eta Menperatzaileak, maltzur-nazte orreik sortzea, ikur lez daukielako, ezjakiñaren arloetan arrapatuta dagozenetatik, beti jausiko dira batzuk baiño geiago lokatz orretan.*

*Bai eta ainbat diru zaleen artean, naste orreik emoten dauazan maltzurrezko aukera bidetik, norberira biurtzen diranean, Ekanduzko sinismen arloak ustu egiten dira, gaur gertatzen jakun lez.*

*Euskaldunak sekula ez gara izan karlistak, gure Baitan oituratutako Nortasunaren zentzuzko zeaztasunak, ori baiño askoz arinago “Lege Zarrakin” egokitu genduzelako.*

## 2. 61. *Karlisten guda berreskuratzuz.*

1.874ko urtean Otsaillaren 1ean karlistek, Portugalete inguratu eban, eta kañoiaren leerkaiekin erasotzen dabe.

1.874ko urtean Otsaillaren 1ean, liberal gudaletzak Morionesen agindutara, Sionsierako San Bizentetik urtenda, Urizarreko mendikateak<sup>(1)</sup> ta Biasterriren inguruko erriak, mendetu gure dabez, eta Llorente ta Otxagabia karlista gudaletzagatik nagusiak, premiazko estura larrian egokituta, Morioneseri iru eritar mezulari bialdu eutsioezan, eurak etsaimentzeko itun baldintzakaz. Morionezek, onartu ebezanak, eta Primo de Ribera gudaletzagatik nagusia ta Blanko koronela Biasterriko Urian sartuta, karlistek atxilotu ebazan.

1.874ko urtearen Otsaillako 2an Llorente eta Otxagabia karlista gudaletzagatik nagusiak, Morionesekin egin eben elkargoko itungai bidetik, onek gudariak izkilluak itziazio ta gero, bakotxa bere etxeetara bialdu ebazan.

Erabagi oneik artu ziralako, zalantzazko eztabaida andiak sortu ziran liberal gobernuan, erabagi bigunak artu ziralako karlistekin.

Liberalentzat baiña, denbora aiek ez ziran onak izan, alako erabagizko zigor gogorrek artzeko karlisten aurka, Pabiaren matxinatasun ostetik Madrilleko gobernuan, konpondu ezinezko aukerean ibilita euren arteko zalantza andiak euki ebazalako, errepublika edo elkar zaleko jaurkintza baten ezartzeko gora berak euki ebazalako.

Eta danez gain, Euskalerrri, Kataluña ta Galiziagaz, erri iltzailearenak egiten egonda, Kadizeko konstituzio ori menperatzaile ta guzurrezkoa izanez gain, ez ebelako jakin, zelango arautegian ezarri bear ebezan Erdi Ugarte onen lurraldeak, bereztasunezkoaren egia, nabarmengarria dalako.

*Orregaitik itanduten dot emen:*

*“Gure apaiz-lekaide aberkide geienak, espainitar konstituzio menperatzailearen aurka, beti borrokatu diranak, eta orregaitik katolikotasunezko aberkidearen aurka, gaur arte, konturatu ez, beren erpeak IVn gizaldean, Nizean egin ziran eleiz Aberri-katolikoaren batzarretan eukezala. Nabarmeneko osotasunean, Goiko Jaungoikuak Izadi oneri ipini eutsioezan arau-sortaren aurkakoak izanda ?*

*Siñezmena, ez da sekula be itsua izan bear, abertzale katolikuak esaten daben antzera, euren menperatzaileezko egarriak asetzeko. “Jaungoikuak, argi itzi ebazalako lege guzti orreik, sortu eban Izadi onetan, berak daukazan legeakaz, danontzat edo gaia, abere ta gizarentzat, bardiñak diralako”.*

1.874ko urtean Otsaillaren 12an, karlisten Foru Aldundiak aginduta, Oñatiko ikastetxe nagusia zabaldu ta leneratu egiten da.

1.874ko urtean Otsaillaren 19an, karlisten basa gerlari apaizgaitik eragin ta bideratuta euki ondoren, Bizkaia osoa euki eben euren jabetasunpean, Bilboko Uria izan ezik.

(1) Urizarreko mendikatek = Sierra de Peñacerrada.

1.874ko urtean Otsaillaen 20an Bilboko Alkate zanak Uragontar Felipek, karlistaren lerkai era-soari aurre egiteko, agiri baten, araudi batzuk aldarrikatzen dauz, Bilbotarrak gertu egon zitezen.

1.874ko urtean Otsaillaren 21eko goizaldian, ainbat andra eta ume urten eben Bilbotik Atxuriko kaletik, lerkaien erasoko inpernutik alde egiteko.

1.874ko urtean Otsaillaren 21ean karlistek Bilbo bonbakatzen asten dira, Pitxon, Kintana, Artagan, Mendiko Etxe, Ollargan, eta Santa Monikan euki ebazan kañoiekaz.

Somorrostroko bidea, Rada, Andetxaga, Ollo ta Eliok babestuten eban.

1.874ko urtean Otsaillaren 22an Portugaleta etsaimenduta<sup>(1)</sup> eta Desierto ta Lutxanako babes lekuak karlistek eskuratuta, Bilbo bakartu<sup>(2)</sup> egiten dabe, eta Gernika, Durango, Markina, ta Mungia-ko taldeakaz inguratu eben.

1.874ko urtean Otsaillaren 22tik aurrera, karlistak Bilbaoko Criaren aurka, geratu bako bonba erasoan asten dira.

1.874ko urtean Otsaillaren 24an Moriones espainiar guda nagusia Somorrostrotik agertzen da beren errepublikano guda lozteakaz eta karlistak prestatzen asten dira aurre egiteko.

1.874ko urtean Otsaillaren 25ean, Ollo, Rada, Endetxagatar Kastor, eta Elio guda nagusi karlistak, Bizkaian batuta eukezan gogozko mutillak, Aragon, Nafarroa, eta Gipuzkoako, gudu taldeakaz zabalduz, atondu ziran Morioneseri aurre egiteko, eta ikaragarritzko astiñ ederrak emon eutsezan karlistek errepublikako guda lozteari, urrengo egunean zelaiko gudan ikusi ebenagaitik.

Morionesek, Lamindano, Enkarterrietan eta Menako ibarretan artu ebazan jipoi bidez, itsasoz, Santanderretera joaten da.

Borroka au, Somorrostron egin zan lenengo borroka izan zan.

1.874ko urtean Otsaillaren 26an Morionesek ezin ebalako karlisten aurka, eta Madrilleko gobernuan arritasuna sortu ebalako, onek espainitar gortekoai, gudari geiago eskatu eutsezanean, guda agintari nagusi bat geiago be eskatu eutsoen, guda loztearen aginduagaz arduratu zedin, Madrilleko gortekoak, Serranotar Franzizko dorreko dukea bialduta.

1.874ko urtean Otsaillaren 28an karlistek, Bilbaon jasankor<sup>(3)</sup> ibili ziranai, agindu bat bialdu eutsen etsaimendu zitezen, eta Castillo errepublikako guda nagusiak, Bilboko Urian agintari nagusia izan zanak, ezetza emon ondoren, bonbaketaren eraso aurrera egin eban.

1.874ko urtean Otsaillaren 28an VIIIn Karlosek, Zeballos karlista guda nagusiari idatzi eutson eskutitzan, auzen esaten eutson: *‘gogozko gudari ta Gipuzko lurralde osoan, Santa Kurtz apaizari Frantzitik sartzen zanean laguntzen eutsoenai, saltzaille edo judas lakoak artzeko esaten eutson, eta kontu andian euki egiezala, tiroz ilteko artzen ebanean’*.

*Zeballosek, Zabalatar Ladislao bialdu eban Santa Kurtz apaizarengana, erabagi oneikaz oartu zedin.*

*Santa Kurtz abadeak ostera, Zabalatar Ladislao guda nagusia bere erantzunagaz Zeballosengana bialduta: “berak ez ebalaz ezer egingo ziurtza emon eutson” eta VIIIn Karlosen parkamena berriro eskatzen ebalaz esaten eutson.*

*Zeballostar Ermenejildok baiña, Santa Kurtz apaizarekin ez ebalako ezereen usterik euki, oso zelatuta euki eban Ziburreko Madame Duport egon zan etxean.*

1.874ko urtean Epaillaren 3 eta 4garrenengo egunetan, Bilbao ta Begoñaren aurkako bonba erasoak geiagotu egiten dira, eta bilbotarrek, 1.836ko urtean euki eben eraso bardiñ antzerakoan aurkeztuta, erantzun bardiña emon eben.

1.874ko urtean Epaillaren 5ean, karlisten kañoi taldeak lerrauts edo bolborarik gabe aurkezten ziran, eta Bilbo barruan egon ziran karlistekin eukiten ebezan sarriko ukiketa bat eginda jakin eben, liberalak zelaz etxe baten ostonduta euki ebezan 304 ontzi lerrauts beterik, eta talde karlista bat gabaz Bilbon sartuta, bolboraren ontzi guztiekaz egin ziran.

(1) Etsaimendu = rendirse. (2) Bakartu = aislar. (3) Jasankor = paciente, sufrido, resistente.

1.874ko urtean Epaillaren 5ean karlistek borroka gogor baten bidez Tolosa, liberal eskuetatik berrezkuratuta, VIIIn Karlos sartu zan Urian garaitzaille, karlistek Gipuzko lurralde osoa eskuratuta, Donosti ta Irun izan ezik.

1.874ko urtean Epaillaren 12an Serrano ta Domingeztar Franzizko Torreko dukea, espainitar errepublikako lendakaria zana, eta Moriones ta Murillotar Domingo, Orokietako Markesari ikusten jakie somorrostrotik agertzen, 30.000 gudariekin.

1.874ko urtean Epaillaren 17an espainitar Serrano lendakaria, Sopusertan asten da kañoi bidez, karlistei erasotzen.

1.874ko urtean Epaillaren 18 ta 19ko egunetan karlistek, Begoña ta Bilbo gogor astintzen dabe kañoiakaz, ia etsaimendu edo menpekotu egiten ba ziran, baiña alperrik izan zan.

Ordurako karlistek, Begoñako Ama Birjiña, Santos Juanes edo Justo ta Pastor´eko basilizan egon zan lekutik, Zornotzako karmeldarren lekaidetxera eroan eben babesteko, bertan guda amaitu eta Begoñako Santutegia konponduarte egoteko itxaropenagaz.

1.874ko urtean Epaillaren 19an gudalozte liberalak 20 itsasontziekin, Portugaleta ta Algortatik eroaten ebezan gudariak porturatu gura ebazan, baiña itsasoaren denboraldi txarra eta karlisten bonba eraso bidez, alde egin bear izan eben andik.

*1.874ko urtean Epaillaren 22an, Santa Kurtz apaiza Ziburren bizi zan Madame Duporten etxetik urten ebanean, karlistek atxilotu eban eta Baionara eroan eben espetxean sartzeko.*

1.874ko urtean Epaillaren 24ko egunean Serrano Torreko dukeak, Somorrostroko San Juan kallean ipiñi eban bere gudalategia, eta eukezan 48 taldeekin, bertatik asten da antolatzen karlistari egin bear eutsen eraso.

1.874ko urtean Epaillaren 25eko goizean, Serrano gudal nagusiren kañoiak asi ziran lerkiaekin erasotzen, karlisten babes lekuak.

1.874ko urtean Epaillaren 27an asten dira aurkako borrokak, eta karlistaren aldetik 2.000 il, liberalaren aldetik 4.000 il eta Primo de Ribera ta Lomas liberalaren gudal nagusiak zauritu ondoren, liberalak atzeratu izan bear ebezan euren gudariak, bezperan euki ebazan babes lekuetara.

1.874ko urtean Epaillaren 28an, goizetik asten dira erasotzen liberalak, eukezan kañoi guztiekin, gero gudariekin, eta naita ariñagoko egunean lez, ain gogor ta ainbeste guda indar gogorrakin borrokatuta be. Ez eben euki ezeren almenik karlistek menperatzeko, eta 29ko egunetan borrokaren eten bateko antz baten geratu ebazan erasoak, ilda eta zauritutako gudariak, ikaragarritzko ixiltasun baten, borrokaren zelaitik kentzeko.

Karlistek, Somorrostroko odol jariozko borroka onetan geratu ebezan espainitar gudalozteak bigarrenez, eta ez ziralako egon olangoko beste borroka bat egiteko prest, Elio, Dorregarai, Mendiritar Torkuato, Ollo, Orbetar Juan Baldespinako Markesa, Lizarraga, Andetxaga, Martinez de Belasko, Larramendi, Benabides gudal nagusiak, eta Rada, Oliber, Berriz, Zaratiegi, Yoldi, Zalduendo, Alvarez, Lerga eta Aizpurua koronel ordezkioak, VIIIn Karlosen agindupean batzartu ziran.

Andetxaga, Elio ta Berriz gudal nagusiak esaten ebena, ontzat artzen eben an egon ziran geienak, eta lenengo gudan Zumalakarregigaz sortu zan antzera, Ollo ta beste gudal nagusi gitxi baiño izan ezik, gure ez arren, Bilboko ingurutasuna aurrera eroatea erabagi zan.

Eta datorren borroka onetan, 1.835eko urtean Zumalakarregigaz gertatu zan antzeko bat gertatu zan, ikusiko dogun lez, oso kaltegarria izan zana karlistentzat.

1.874ko urtean Epaillaren 29ko egun orren arratsaldean liberalak, osteran asten dira bonbaketetan, eta liberalak ikusita, Safuentes erri aurretik, Elio, Dorregarai, Ollo, Radika, Escudero, eta beste karlista gudal nagusi batzuk, euren gudu lekua ikusten egon zirala, kañoiezko legeraillu bat bota eutsen, eta Ollo, Radika, Torrezilla, ta Eskudero larri zauritu ebazan.

VIIIn Karlosek, gertakizun ori ikusi ondoren, Olo San Salvador del Ballera eroan eben, baiña berton il zan, eta egun bi barru Diaz de Radatar Klaudio (Radika) ta ¿ Eskudero ? be, 31n il ziran.

1.874ko urtean Epaillaren 31n, karlisten Baldespinako markesa Bizkaiko guda nagusiak, keiña-da edo meatxuzko aldarrikapen luze bat egin eutsen Bilbotarre, euren aldera aldatu zitezen, baiña aldarrikapen luze bat lez geratu zan bakarrik.

1.874ko urtean Epaillaren 31n “Cuartel Real” karlista aldizkariak, beren esanakin, liberalak ziri-kiten dauz, eta liberal aldetik gogoratzen asten dira, ia karlistakaz askeneko egiune edo itzarmenean, ez ba eben parkamen larregi ibili.

1.874ko Jorraillaren 3an Serrano liberalak, ariñautik euren gortekoai laguntza eskatuta, auek gu-dari ta tresneri naikoa bialdu eutzen 3n guda lozte gorputz bat egiteko, Gutierrez de la Kontxatar Manuelen agindutara, eta Iparraldeko liberal guda loztearen guda nagusia izan zedin.

1.874ko urtean Jorraillaren 1ean karlistek, eraso txiki bat baiño ez eutsoen egin Bilbori kañoien leergailluekaz.

Epaillaren 31ko idazt egunagaz egiten dabena baiña, Baldespina Markesaren aldarrikapen bat bialtzea da, “Cuartel Real” aldizkari karlistatik Bilbaon ezagutu egien, zeintzuk ziran euren garaipenak eta asmo politikuak.

Itxaropentsu agertu ziran karlistek ekintza orregaz, ia bilbotarrak, euren alde kokatzen ba ziran, Bilbokoak baiña, eskutitz gogor bategaz erantzun eutsen, ta urrengo egunetan ugaritu ziran bien aldetik eskutitz bitarteko erasoak.

1.874ko urtean Jorraillaren 6an, Kontxa liberalen guda nagusiak, baietza emon eutsen espainitar gobernukoai, peninsula onen iparraldeko guda loztearen agintaritzan, bera ezarriko zala erantsunda. Baiña danak ez eben gura Kontxa guda nagusia agintari nagusi lez, eta eztabaida gogorak sortu ziran espainitarren gobernuan, liberal agintaritza ia ezereztu arte, euren artean naita balio andibako gizonak izanda be, esku luze ta euren eragipeneko gizonak ipiñi gurean ibili ziralako.

1.874ko urtean Jorraillaren 6an, lasaitasuneko egun batzuen ostean karlistek, ostera erasotzen dabe Bilbo, kañoiezko lerkailuekaz, eta karlisten belarrietara barri batzuk eltzen dira esaten, *liberalak Alemaniatik 14 kañoi “Krupp”<sup>(1)</sup> ekarrita eukiezala, berarizko*<sup>(2)</sup> *Aleman gudariakaz bideratuta, borrokan asteko.*

1.874ko urtean Jorraillaren 12an karlisten, Elio, Dorregarai, Mendiri, Larramendi eta beste guda nagusi batzuk, San Salvador del Ballen batzartzen dira VIIIn Karlosen agindupean, eta egon ziran guda tokian irauteko erabagi zan, arik eta liberal guda lozteak erasotzen asi arte.

## 2. 62. 1.874ko zati onen oarpena.

*Emen argiago ikusten da, borroka onetan ez ziralta izan espainitar katoliko erlijioaren aberkide liberalak bakarrik, Europakoan aberats ta liberal katoliko erlijioaren aolku bidex, egon zalako guda konstituziozko erabagi ori, eta ez eutsoen ardurta andirik emoten, guda ori luze edo laburra izan zedin, eurak euken indar, diru eta gauza guztien kontrolagaz, jakin ebelako garaipendun urtengo ebela.*

*Europaren aberkide katoliko liberaltasunaren ardurak, menpeko araudiaren ezarpenak izan ziran, eurak asmatzen eben sasijainkotasuneko andikerian bizi gindezan.*

*Eta katolikotasuneko menperatzail arauditasun ori da gaur, osoan daukaguna, argi erakusten dabelako, mundu onen gizatasunari gaurko lez, lapurkerizko ekintzak egiten dautsezanean, maltzurrezko arauditasun orren sare arteko txeberan danok arrapatuta gagozelako.*

(1) Krupp Kañoiak = cañones Krupp. Familia alemana de grandes industriales, cuyo primer elemento Friedrich (nacido en Essen el año 1.787 y muerto en Essen el año 1.826) fundó su primera empresa de aceros Krupp en Essen, en la que continuaron sus descendientes. Muy famosos en la fabricación de armamento pesado durante las dos guerras hasta hoy. (2) Berarizko = especial, singular.

*Eta oartu gindezan, menpetasunezko eritzi orreri esker, zelako antolakuntzazko ezarpenean gagozan gaur egokituta, kontuan artu bear dogu, katoliko liberal orreik 1.879ko urtearen ezkeroztik, sekula ez dabela izan gura, nai Jaungoiko irasleak legeztukoa izanda be, gizaren gai-bereztundutzeko antolakuntza, begirunezko kontuan euki.*

*Errigizarteko antolakuntzan ‘Arbaso, Aiton Amon Guraso, Izkuntz, Sendi, Sendiaren Aitorle, Aita, Ama, seme alabak, Auzune, Erri, Aberri’ ta abar, errenkuraz<sup>(1)</sup>, zeetasunezko leian zaindu bear diran itz sakratuak dira orreik, menperatzaileak, euren naikerian ibiltea gure dabelako, salda, zuku edo saltsa orretatik, eurak irabazle urteteke.*

*Begitu bestela PPkoak, Rouko Barela espainitar eleizako lendakari ta epaiketetan lagun dabizenak, zer eta noren jaungoiko begira dabiz, egiten dabezanakaz.*

*Atzo, Epaillaren 11n, Madrillen egin eban lez, A.V.T.koak euren taldeko biurtuta, Madrilleko tximist gurdiaeren istripuan sortu ziranak, gaur zortzi urte geroago zeaztasun guztiagaz epaituta egon arren, ostera E.T.A.ri leporatu gurean, aur-galtzeko legearekin, eta beste legeak, Frankoren denboretara atzeratuazoteko dabizen alegiñetan eta abar.*

*Ostera gure dabe menperatasunaren katoliko fede zaindietara itzuli gindezen, eurak diruzko edo “urrezko zekor sasijainkoari gurtzeko”.*

*Espainitar orrentzat, JAUNGOIKORIK ba ote da ?*

*Europako gizarteak erne egon bearko dabe, espainitarrak benetan, beste gauza bat direlako.*

## 2. 63. *Karlisten guda ostera berreskuratuz.*

1.874ko urtean Jorraillaren 21ean karlistak, Euskalerriko lau lurraldeetan, auta edo 18tik 35 urte-riñoko gaztearen bilketa egin eben, gualozteak gazteakin indartzeko.

1.874ko urtean Jorraillaren 25eko egunean, Euskalerriaren Ego aldeko 4 merindadekoak Azpeititik, VIIIn Karloseri eskatu eutsen, eurak artuko ebezala ardurak, gudak bear ebazan diruak, ariñago batu ta banatzeko, Urrillaren 15etik asiko zana.

1.874ko urtean Jorraillaren 27an Kontxa liberal gudu nagusiak, eraso gogor bat egiten dautse karlistari, baiña oneik eutsi eutsen ekiñaldi orreri.

1.874ko urtean Jorraillaren 28ko eguerdian Kontxa liberalaren guda nagusiak 30 kañoiakaz, Talledo<sup>(2)</sup> erriaren aurka zabaltzen dabez euren lerkiaezko bombaketak. Gero, 15.000 gudariek erasotzeko.

Karlistek, atzerantza egin bearrean aurkitu ziran, eta geiago, Muñekazen galdu eben borrokan, Andetxaga tar Kastor karlisten guda nagusia bertan il ebelako, eta Dorregarai karlista guda nagusia beste agintariekaz batzartuta, Durangora joatea erabagitzen dabe.

## 2. 64. (12) *Arana tar Santiago, Sabino ren aita.*

*Aranatar Santiago izan zan ondamendi onen aitortzaille.*

*Eta Aranatar Santiago ikusita, zelan gudariak izkilluak hurrera botata, negar baten, “Judaskeria egin eutsola” aldarrikatzen ebela, Santiago oso larri gaixotu zan.*

## 2. 65. *Karlisten guda, ostera berreskuratuz.*

1.874ko urtean Jorraillaren 28/29 ta 30eko egunetan karlistek, ostera erasotzen dabe Bilbo lerkiaiekaz.

Bilbon, gozeagaz larrituta, saleros-baltzetan, ildako katu bat 30/40 erleko, ta arratoiak pezta batean saltzen ziran.

(1) Errenkuraz = escrupulosamente, perturbadamente. (2) Talledo = menditxo baten dagon meatokiko erritxoa, Kastoren ondean eta Otañesetik urbil.

1.874ko urtean Jorraillaren 30ean, Sopuertako ezker aldea, Kontxa liberalaren guda nagusien eskuetan geratzen da.

Emendik aurrera, karlista guda nagusi batzuen osotasunezko ustea, etsipentzen<sup>(1)</sup> asten da.

1.874ko urtean Loraillaren 1ean, Bilbori egiten eutsoen eraso gogortzen da, Kontxa liberalaren guda lozteak inguratzeko erasoan agertuta baiña, Elio karlista guda nagusia orrezkero ez eban euki gogorik, Bilbaoko toki areik geiago erasotzen, eta karlista guda nagusiak batzartuta, VII In Karlosen eritzien gaiñetik, edo ta bera ez zalako bertan egon, atzeratzeko erabakia artu eben.

Eta benetako atzerakada emon bear dabe Asuaraiño, San Salvador ibarretik, Retuerto, Zornotza, ta Burtzeñatik aldatuta, Durangon indar guztiekaz alkartzeko.

Eta or, botaten dira askeneko lerkai bi Bilbaoren aurka, urrego Loraillaren 2ko egunean liberalaren guda lozteak Serrano guda nagusiaren agindutara, Bilbon sartuta.

125 egun izan ziran Bilbo inguratuta egon zala, eta 5.369 kañoiezko leerkai, 1.307 tiroiñ, 107 granada, eta metralazko leerkai bi izan ziran Bilbora bota zirenak, bertan egon ziranak eraso gogor orreri, ausartasun aundiz utsita.

1.874ko urtean Loraillaren 2an, Bilbotarrak, kañoiezko 21 lerkai bota ebezan aixetara euren askatzea ospatuz, ta egun berean, goizeko 11etan arratsaldeko 2bietan Portugaletetik etorrita sartu ziran Kontxa liberal nagusien guda lozteak Bilbora. Eta arratsaldeko 4retatik aurrera, omenaldi aundia egin eutsen, Etxague, Martinez Kanpos ta Reyesen guda lozteai.

1.874ko urtean Loraillaren 2an Bilboko askatasunak ez eban gura esan, guda amaitu zala, karlistak, erabidez atzeratu zirala baiña, Galdakao ta Durango bitartera, euki eben 70.000 gudari baiña geiago eta tresneri guztiarekin.

1.874ko urtean Loraillaren 3an Bilbotik atzeraka, Zornotzan batu ziran karlisten indarrak, guztiz etsipenduta eta gogo barik.

1.874ko urtean Loraillaren 13an VII In Karlosek, Elio guda nagusia kendu gura eban bere agintaritzatik, Mendiri guda nagusiari deituta baiña, onen aolkuagaz, Dorregarai ipiñi eban Guda lozte guztiaren agintaritzan, Elio guda nagusia, gudako ministroa izendatuz.

1.874ko urtean Loraillaren 14an oraindiño iraun egiten eban karlisten atzerakada, eta Mendiri guda nagusia 26an, Lizarran txokoratzen da, talde nagusi bi, Nafartar 7 talde, Arabatar talde 2, eta Giputz talde 2gaz osotzen zana.

1.874ko urtean Loraillaren 15ean Kontxa liberal nagusia Gasteizerantza joan zanean, Mendiri karlisten guda nagusia Billarrealerantza aldatu zan.

Ainbat oarpeneko gauzak esan eutsoezan Kontxa liberal nagusiari espainitar gorteko agintariak, Durangon karlistaren guda lozteak egon ziranean, ez ebezalako erasotu.

Kontxak, ondo baiño obeto jakin eban baiña, karlistek ondo atonduta egon zirala Durangoen inguruetan.

1.874ko urtean Loraillaren 28an VII In Karlosek, bere anai, Borbon ta Austriatar Alfonso, katalanen guda nagusi izendatuta Solsonatik, Tristan ta Asistar Franzizko guda nagusiari idazten dautse eskutitz bat oartuazoten, Kataluniako guda lozteak atondu egiezela espainitar izatasunean, katalanak euren Foru-lege bidez, Kataluniako Aberriaren Askatasuna lortu gure ebelako, eta kontu andian euki egiezala gauza orreik.

Eta atonduketa orreik dirala ta, Borrell sendagille, Andreu koronela, eta koronel ordezeko gazte bat bota ebezan karlisten guda lozteetatik, auek Frantzian atzerriratuta.

1.874ko urtearen Bagillako illean, lendik be gogorak izan ba ziran be, karlista ta liberalaren guda lozteak dirala ta, oso gogorak biurtu jakien eguneroko egoerak Kataluniako erritarrai.

(1) Etsipentzen asten da = desmoralizarse.

Alde bietatik, diru, janari, ta euren gualozteko gaztearen eskaera bidez, gazte orrein bizitza gero ta estuagoa biurtu zalako alde batetik, eta bestetik, diru ta janariaren ezean, gudako araubideen orekak zaintzeko, zigor aundiekaz galazotu egin bear izaten ebazalako.

Eta baita, karlista ta liberalaren arteko odoljariozko borrokak, oso latzak izaten ziralako.

1.874ko Bagillan, Kontxa liberalaren gual nagusien eritziz, Bilboko guda amaituta egoala ta, Lizarrarantza joan zan bere gualozteakaz, Ebroren lur bideko Miranda ta Tudela bitartean ezarrita, bertatik, karlistak Lizarra euken Uri sakratu ori, beren 50.000 gudari ta 80 kañoiekaz, kentzeko itxaropenean.

1.874ko urtean Bagillaren 25, 26, eta 27ko egunetan egin eban Kontxa gual nagusiak borroka odoltsu ori Abarzuzaren aurrean dago Muru mendian, 50.000 gudari ta 80 kañoiekin, karlisten 25 gudari talde ta 3 kañoien aurka.

Eta Bagillaren 27an, Gutierrez de la Kontxa´tar Manuel liberalaren gual nagusiak, geratzen ziran karlisten indarrak zeitzuk ziran jakin gurean ondoratuta, lar urreratu zalako, oneik izkilluen zupin aldi bategaz il eban, eta liberal indarrak atzeraka, alde egin bear izan eben andik.

Espainitar errepublikako 22 gudari il ebezan tiroka karlistek, liberalaren atzerakadan, Abarzuzako erritxoia erre egin ebalako ordainez. Itzelezko eztabaida sortu ebana, ez bakarrik liberalen gualozteetan, bai karlisten gualozteetan bardin, Europako erri guztietan esaten zalako: ez zala eskubiderik egon, karlistek Abarzuzan egin ebezan fusilamenduak egiteko.

Karlistek uts galanta egin eben borroka onetan, ez ziralako konturatu, Gutierrez de la Kontxa´tar Manuel espaindar gual nagusia il ebela, euren gualozte aundi ori ezereztuteko eta guda irabasteko.

-Liberalak, Nafarroako ekintza onetan uts andia be eginda, karlistaren Irun eta Iruñako inguratzeak, ez ebalako euki garaipenik.

1.874ko Uztaillaren azkenetan, Belazkotar Fernando karlisten gual nagusiak, aginduten eban arratiko taldea 400 gazte gudariakaz, Akosta espainitar gual nagusiaren gualozte aundiari astindu ederra emon ondoren, auek ibaizabalaren erreka eskuiñ aldetik euki ebazan gudari taldearen ingurura aldatu bear izan ebezan bere indarrak.

1.874ko urtean Uztaillaren 31n Bergarako aztetxeari, Real Seminario Vasco-Navarro de Vergara izendatu eben, Manterolatar Bizente izanda beren lenengo zuzendaria.

1.874ko urtean Dagonillaren 14an Bitores Benito karlista sarjentuak, beste 10 gudariekin, Ebroren Mirandako geltokian, suburdiñeko ibilgaillu bategaz egin ziran, eta urrutiko idazkiñatik bialtzeko mezuaren aria, ibil gailluari lotuta, Zenizerorarte joan ziran 39 kilometruetan urrut idaz gaillu orren serbitzua ezereztuta, inguru areitan egon ziran 14.000 liberal gudarien aurrean.

## 2. 66. *Karlisten gudak, Kataluñako ekitaldietan.*

1.874ko urtean karlistek eta liberalak Dagonill ta Iraillaren ille artean, egin ebezan gudak Puigzerdan´en Uriagaz geratzeko, eta liberalak garaipendu ondoren, Uria babesteko agintaritzan egon zan Moleratar Andres guda jaurlaria xingolatu eban lenengo. Eta gero, Lopezzar Domingez liberalaren gual nagusiak, dedu-domiñ andi bat egitea agindu eban, alde batetik Uriaren armaria, eta beste aldetik: "A los defensores de Puigcerdá la Patria reconocida Agosto y Septiembre de 1.874", eskañita egon zana.

*Espainitar aberri-asmu orrek baiña, euki eban aita-amarik ba ?*

*Asmo ori ezinezkoa da, Izadiko bizi onek, daukazan legearen aurkakoa dalako.*

Kataluniako karlistek emendik aurrera, naita borroka aundi, latzak, ta ugariak irabazi arren, malda-beran asi ziran, bertokoakaz ez ebelako gualoztearen pizkortzerik, espainitar liberalak Europako liberal konstituzionalistaren bidetik, euki eben beste.

A ta guzti, karlistak ustetsu edo itxaropentsu agertzen ziran aimbesteko gairaipen bidetik, eta geiago euren belarrietara Bilbo jausi zala zabaldu zanean, Ekandu maillan asko beratuta, eurak egiten ebazan festatan erakusten eban lez.



Eta nai eta euren itxuran ustetsu agertu gura baeben be, euren barneko egizko baitak, beste susmo bat aurkezten eutsen, azkeneko kondairetan agertuko dana.

1.874ko urtean Dagonillaren 2an ostera joan ziran karlistek Teruel arrapatzera, baiña liberalek oartuta, aldendu ebazan karlistak.

1.874ko urtean Iraillaren 11n VIIn Karlosek, Kuenkako Uria arrapatu eben eguna ospatzeko, oroi-garrizko domiña bat agindu eban egitea.

1.874ko urtean Iraillaren 12an, Markotar Manuelek karlisten guda nagusiak, Bagilla eta Uztaillaren illetan Tudela ta Kuenka 'ko Uriak artzen joan ziranean, zelako gauzak gertatu ziran esan eutsozan VIIn Karloseri, berak ez egian onartu Billalain, eta beste guda nagusien maltxur kondairak.

Kataluniako karlistak, Borbon eta Austriatar Alfonsoren agindupean egonda, garaipen aundiak lor-tu gura ebazan, lenengo Teruel askatu gura izanda, liberalen eskuetatik.

Uztaillaren 3an Borbontar Alfonsok, Markotar Manuelen agindupean bialdu ebazan guda-lozteak, Terueleko jauregia artzeko.

Asi ziran Teruel erasotzen, guda nagusien artean baiña, Billalain guda nagusiagaz sortu zan bezala, beren erara ibiltzen zalako, kide-tasunezko atondukeran saldukeria egiten ibili ba ziran lez agertzen ziran, eta ez zalako agertzen iñungo alkarrezko ulertzarik, Teruel eta gero Kuenka be, liberalen eskuetan geratu ziranean, karlista guda nagusien artean bekaizgo, batak besteari erruak leporatzen, maltzurkerizko guzurkeri zikiñetan asi ziran.

Baita, zelan Uztaillaren 15ean, Kuenkako erri barruan sartu ziranean, an gudariak egin ebena, ez eukalako iñungo zuriketa edo ta karlista gudarien garbitasunezko barkamenik, ekanduzko giza-bide arloetan be, zinkin geratu ziran.

Eta karlistek euren garaipen ugari-ekaz, gogoratuarren gorantza joan zirela, ez eukien zeregiñik, Madrilleko konstituzioaren gobernu-koak, etenbako laguntza euki ebelako guda tresneri gauzatan, Euro-pako konstituzionalistaren aldetik.

1.874ko urte amaieran, ez zan egokitasunezkoa edo zorionsua izan karlisten egoera, Erdiugarte onen Ekialdeko lurraldeetan.

a) Erdiugarte onen erdiko lurraldearen borrokak, guztiz amaitu ziranean, liberalen guda-lozteak, karlisten guda-lozteak baiño indartsuagoak izan ziralako, peninsula onen Ipar aldeko borroketan garai-pentzeko.

b) Eta karlisten atzerakadan, Kataluña liberalen aldetik gudari talde aundi bigaz indartuta, auek egin ebezan azkeneko borrokak, indartsu ta ugariagoak izan ziralako.

## 2. 67. *Karlisten guda-k, Euskalerriko ekitaldietan.*

1.874ko urtean karlistek, Bilbon porrot egin eta apur bat buru makur egonda, Abarzuzako garai-penak ostera bizkortu ebazan, eta Iruña, Gazteiz ta Donostiko Uri nagusiai erasotzea erabagita, Iruñari Dagonillaren askeneko egunetatik aurrera, ardura geiagorekin inguratu eben, bera izan zalako gudari gitxien euki ebazanak 2.000 gudariek-in.

1.874ko urte onetan espainitar gortekoak ikusita, zelako aurrerakuntzak egiten ebezan karlistek, ondo prestatutako 8.000 gudari bialdu eutsoezan Moriones guda nagusiari.

1.874ko urtean Urrillaren 2an, karlistek Motrikun, ainbat izkillu, eta tiroiñak itsasontzitik lurreratu ebezan, Krupp galda-altzairuaren<sup>(1)</sup> 8 lodieran 6 kañoi, eurentzat 400 leerkaillu, 1.000 ler-ziri<sup>(2)</sup>, 1.000 frictore ?, 4.000 Berdan-izkillu, 2.500 su-izkillu eta 270.000 tiroiñ.

(1) Krupp galda altzairuzko = acero fundido. (2) Leer-ziri = espoleta.

## 2. 68. (13) *Merindadearen arduradunak.*

1.874ko urtean Urrillaren 15ean karlisten guda arloko ardura, Euskalerrriaren Ego aldeko lau merindadearen arduratan ezarri zan, batzar onen arduradunak: “Nobia ta Zalzedotar Alejo, Basozabaltar Juan, Praderatar Gregorio, Garrotar Jose, Ingunzatar Tomas, eta Aranatar Santiago izan ziran.

1.874ko urtearen Urrillan Praderatar Gregorio, Arana ta Ansotegitar Santiagoren garazkidea<sup>(1)</sup> zanari, egiten dautsoe Bizkaiko lantegiaren zuzendari nagusi.

## 2. 69. *Karlisten Euskalerriko ekitaldiak berreskuratuta.*

1.874ko urtean Urrillaren 24an, VIIIn karlosen errege agindu bategaz, Oñatiko ikastetxe nagusia “Errege ta Aita Santuaren” izena ipintzen dautsoe, Ego Euskalerriko lau lurraldearen ikastetxe nagusia lez izendatuta.

Denbora onetan karlistek, gogaituta egon ziran Beobiako zubian 30 mikelete ta muga zaiñekaz egon zan gaztelutxoakin, eta bera erasotzera joan ziran egñeko gurdi bategaz, ainbat esku lerkai ta arroliogaz, liberal babestoki ori, erre ta ezerezuteko asmorekin.

Baiña porrot andia euki eben, karlistek gurdia azpitik ankak agiri agirian eroaten ebezalako, eta liberalak anka aiek ikusita, tiroka asi jakiezan, karlistek inguruerdiko itzulia eginda, andik alde egin bear izanda.

Eta 1.874ko urtean Urrillaren 31n, Baldespinako markesa, Karudel, eta Lopezzar Manuel gudar nagusi karlistak, Alemaniako gudar nagusiaren agindupean joan ziran, Iruneko erritik liberalak botateko, Santiago, Txoritokieta, ta San Martzial mendi ingurutik, Zeballosen agindupean kañoi batzuk ipiñita, erasoan ziranai laguntzeko.

1.874ko urtearen Azaroen asieran karlistek, Biazterri galtzen dabe betiko.

1.874ko urtean Azaroaren 3an karlistek, euren gudariak Bilbaon, Sopelanako mendian eta abar, egiten ebezenagaitik emoten ebazan barriak, garaipenduzkoak izaten ziran geien.

1.874ko urtean Azaroaren 4an karlistak Biazterri betiko galduta, Irungo Uria inguratu eben, eta VIIIn Karlosen urteguna ospatzeko, Irun erasotzen asten dira.

1.874ko urtean Azaroaren 11n Serna liberalaren gudar nagusia oartuta Iruneko ingurutasun orregaz, Logroño, Eboko Mirandan, Zenizero, ta Bribieskan bananduta euki ebazan gudariak batu ebazan, eta karlistek, Serna liberala gudalozte andi orregaz etorrela jakin ebanean, Zeballos gudar nagusi ta Karudel koronelak al izan eben edozein eratara altzau bear izan eben, Iruneri egiten eutsoen ingurutasun ori.

1.874ko urtean Azillaren 12an Karlista gudar nagusiak asarre iges orreik egiteagaitik, batzartu ziran, eta Diaz de Zeballostar Ermenejildo ta Karudel karlista gudar nagusiai leporatu ondoren uts orren erru guztiak, salatu ebazan.

Lizarran egin ziran, euren aurkako epaiketa orreik, eta 1.875eko jorraillaren 29an aske itxi ebazan ezereen errurik bage, ostera eurak aginduten eben lekuetan ipiñita.

Guda oneik baiña, diruaren kontuan ba eukezan euren arazo batzuk, eta liberalak ez ebelako euki ogi zati bat euren gudariak agora emoteko, ostera be Donostira atzeratu bear izan ebazan indar orreik, euren babes lekura.

A ta guzti karlistek ez ziran izan gai, Iruneko inguruan euki ebazan babes edo ta eraso tokiak ostera berrezkuratzeko.

1.874ko urtean Azaroaren 30etik aurrera, Euskalerrri ta Errioxako karlisten gudar nagusi lez izendatuta egon zan Mendiritar Torkuato karlistari, botako eutsoezan erru guztiak, Iruñako ingurutasuna liberal gudalozteak apurtu ebelako.

(1) Garazkidea = socio.

1.874ko urtean Abenduaren 8an Mendiri karlista gudal nagusiak, liberalak, euskal gudari ta erritar karlisten aldekoari egiten eutsoezan mendekuagaitik<sup>(1)</sup>, guda aldarrikatu eban Euskalerrriaren lurralde osorako, mendeku orreik gero alde bietatik ugarituta.

1.874ko urtean Abenduaren 16an VIIIn Karlos Oñatin egon zan, mailla nagusiko ikastetxea, lanera zabaldu zanean.

1.874ko urtean Abenduaren 24an VIIIn Karlosek, Orduñako guda taldeak begiztatu egiten egoala, barri bat agertu jakon Zornotzatik esaten, liberal gudalozteak Larraskitun eta Arraizen egindako erasoari, erantzun ona emon eutsoela, eta atzeratu egin bear izan ebezala, euren guda indarrak.

1.874ko urtean Abenduaren 29an, Martinez Kanpos eta Daban liberal gudal nagusiak Sagunton euki ebezan gudari talde bi, eskudroi batzuk, eta kañoi talde gitxi baten aurrean, XIIIn Alfonso izendatzen dabe espainitarren jaurgo barri edo konstituzioaren errege lez, eta emen amaitu jakozan VIIIn Karloseri, 1.868ko urtearen ezkeroztik aurrera, espainitar lurraldeetatik zear asi ebezan bere errege eskubidearen zabalkuntzak.

Ezer ez eutson balio VIIIn Karloseri, Morentinetik, eleizako ondasun bidez aberastu ziranai beren alde egineko aldarrikapenagaz, oneik euren aberastasunak babesteko, geiago gure ebelako XIIIn Alfonsoren zuzenbide edo 1.812ko konstituzioaren lege barri bidetik joatea, berenagandik baiño.

## 2. 70. *Karlistek euki ebezan indarrak denbora onetan, olan zenbatu leikez.*

-1.874ko Abenduan Gipuzkoak, Zebalostar Ermenejildo gudal nagusi agindupean, 9 talde gudari<sup>(2)</sup>, eta zaldun talde bat<sup>(3)</sup>.

-1.874ko urtearen Abenduan Araban, Albareztar Rafael gudal nagusiaren agindupean, 6 gudari talde eta zaldun talde bat.

-1.874ko urtearen Abenduan Bizkaiak, 10 gudari talde eta zaldun talde bat.

-1.875eko urtearen Urtarrillan Nafarroan, Perula gudal nagusiaren agindupean, 200 zaldi.

-Eta beste gauza batzuen artean, 12/150 arteko gudari, berarizko ainbat talde basa gerlari artean mezuak banatzeko, sare arte edo zelatako<sup>(4)</sup> erasotan ez jausteko, berri edo argibideak arrapetan, eta zaintzari lez ibilteko.

-Nafarroako erregetzaren Aldundiak irasitako “Nafarroako Zaintzaleak”.

-Lenengo gudaren gudari zarrak, eta atzean joaten ziranak irasitako “Taldea Sakratua”.

-VII Karlosten lagun taldeagaz peninsula onen beste lurraldekoaren gogozko gudariak, eta Bizkaitarrakaz batera joaten zan “Zuzentzaille edo Gidarien taldea”.

-Gaztelako gudaloztea 6 taldeagaz osotuta egon zana.

-Rioja, Asturias, eta Aragoiren zaldunezko taldeak: Gaztelatarrak 3 talde, Kantabroak 1, Aragoikoak 1, Asturiarrak 1, Errioxakoak 1, eta beste bat, VIIIn Karlosek lagungo zaintzari lez eroaten eban “Arlabaneke Usares” esaten eutsen talde bat.

## 2. 71. *Gudarako tresneri lantegiak:*

-Urdaxeko kartutxoaren lantegia.

-Lizarrako kañoitegia.

-Azpeitia, Bera, Desierto eta Arteagako kañoien galda edo burdiñolak.

-Soraluze-Plazentzia, Eibar eta Elgoibarreko izkillu ta gudu tresnerien lantegiak.

-Etxaguen, Araoz, Aramaiona, Bera, eta Riezuko errauts edo auts lantegiak.

-Legariako tresnamendua.

-Amurrioko jos-bakan edo ilbaintzeko<sup>(5)</sup> langintza.

(1) Mendekuagaitik = tirria, espiritu de venganza. (2) 9 talde gudari = 9 batallones. (3) Zaldun talde bat = 1 batallón de caballería. (4) Sare-arte edo zelatako = trampa. (5) Jos-bakan edo ilbaintzeko = embastar, o, hilbanar.

-Guda asi barri ta aurrerantzean, ustiatu edo berunezko<sup>(1)</sup> mamia atara<sup>(2)</sup> egiten eben Baranbioko beraun meaztegia.

## 2. 72. *Gudarien ikasketarako:*

- Oñatin egon zan gudarien ikastetxea.
- Azpeitian, egon zan kañoilari ikastetxea.
- Eta Bergaran egon zan injenieritzaren ikastetxea.

1.874ko urtean Abenduaren 29an “El Cuartel Real”aren aldizkariak, Serrano liberal agintari nagusiak Abenduaren 8an argitaratu ebenetik, olan zenbakitzen dauz Erdiugarte edo peninsula onen Iparraldean, liberalak euki ebazan gudu indarrak:

- Orokorrezko Kapitan guda nagusi bat.
- Orokorrezko Kapitain ordezeko lau.
- Guda zelaiko 10 mariskal.
- 23 koronel ordezekoak.
- Gudaloztearen buruzpidedun<sup>(3)</sup> bat.
- Osasunbidearen ikertzaile bat.
- Orokorrezko entzulari bat.
- Gudarien kapellau ordezeko bat.
- Oñezko 88 gudari taldeak.
- Zaldunezko 8 talde nagusiak.
- Kañoiezko 13 andana<sup>(4)</sup>.
- Mendiko kañoiaren 5 andana.
- Eta, erriko mutillaren<sup>(5)</sup> gain, txapel gorri<sup>(6)</sup>, muga zaiñak<sup>(7)</sup>, ta gogozko mutillak<sup>(8)</sup>.

## 2. 73. *Onen oarpen laburra.*

*Orregaitik, aldakuntza au ikusi ondoren, eta leiak geienetan galtzailezkoak izan arren, liberalai ez eutsen ardura andirik emoten, denborarekin eukiten ebezan luzetasunezko aldiak, eta gitxiago aberri katolikotasunezko kiserraren alde ilten ziran gudariai, euren ustez. Zerutik, dan gustia parkatuta euki ebelako, nai astakeri aundienak egin arren..*

*Europaren laguntzagaz gainera, denbora guztia euki ebelako, arrazoi ta zentzunezko erri baten eskubideko alegeñak utsean izteko, gudari, tresneri ta denboreagaz ez ebelako ezeren eztukuntzarik euki.*

*Zertarako baiña: “I Konstantino, I Silvestre, ta Kordubako Osio gotzai menperatzaileen asmoak beteta, Goiko Jaungoiku Irasleen bereztasundutako Legeak betetan diralako ?.*

*Zer uste dabe menperatzaile baragarri orreik, Goiko Jaungikua, belarri luze baten antzekoa, edo asto bat dala ?.*

*Izadi onetan agertzen ba gara, ez da edozer gauzatarako, ekanduz ondo zaindtuta, BERAK bereztutako legeak beteteko baizik.*

*Orregaitik dira Izadi onen edestiko denbora guztiak, “bardiñak”, gure gizatasunezko zeregiñaren zor-eskubideen ordaiñezko-arduratan, Bere Legeak, BAITAZKO-EKANDUZ betetea eta ordaintzea dalako.*

*Europako eta espainitar liberalarenak batez be, ardura bakarra, dirua da, “Por el destino Católico en lo Universal”en aitzakia ipiñita, eta Erdiugarte ontan, batzuen “Nacional Catolicismo”aren laterritasuna izanda, Jainkoak berezko erriari emoneko legezko eskubideak kontuan artu barik, euren norkerizko eritzian, diruaren Urrezko-Txekorren sasi-jainkotasunez bizi gindezan da. Nortzuk ? = EURAK !.*

(1) Beruna = plomo. (2) Berunezko mamia = mineral del plomo. (3) Gudaloztearen buruzpidedun = intendente, o, administrador del ejército. (4) Andana = fila de cañones. (5) Erriko mutillak = guardia civil. (6) Txapel gorri = Arabazo Foru-gudal zaiñak. (7) Muga zaiñak = carabineros. (8) Gogozko mutillak = voluntarios.

## 2. 74. *Karlisten guda otera berreskuratuz.*

1.874ko urtean Abenduko 29an, Martinez Kanpostar Arsenio liberalen guda nagusia, errepublikako gobernuaren aurka, eta Saguntoko Urian matxinatuta, II In Isabel erregeñaren semea XII In Alfonso Borboia, espainitarren errege lez aldarrikatzen dau.

Eta VII In Karloseri, XII In Alfonso errege izendatutako ekintza onegaz, 1.868ko urtetik asita, Morrentineko lekutik gogoz egiten ebazan aldarrikapenak, eleizaren ondasunakaz aberastu ziran jauntxoak bere errege izateko eritzira ekarteko, amaitu jakozan.

Euren arteko bidetik espainitarren lurralde osoan aĩn zabaltasunezko atsegintasun andiak lortu ebezaneetik, auek aurrera ta euren buruari begira, XII In Alfonso erregetzaren menpeko edo gordetzailletasunezko legedira aldatu ziran, euren diruzko altxorrek bete euki ezkerero, *bost ajola arduratzen eutsielako, Jaungoiko edo ta diabruen Ekanduzko arrazoiak izaten ba ziran be.*

1.874ko urtean Abenduaren 30ean II In Isabelen semea XII In Alfonso, espainitarren errege lez auke-ratzen dabe Europatik aginduta, onek, 1.810/1.812ko urte artean Kadizen guda nagusiak agertu eben menpetasunezko jaurgo edo konstituzio barri ori, ontzat artu ebalako, gobernuaren lenengo agintari lez, "Kanobas del Kastillotar Antonio" izendatuta.

1.875eko Urtarrillaren 1ean espainitar liberal gortekoak XII In Alfonso errege izendatzen dabe.

## 2. 75. *Onen oar laburra.*

*Emen argiago ikusten da, XII In Alfonsoren alde erregetzazko aldarrikapenagaz, zelan 1.812ko urtean Kadizen agertu eben merkantilista ta menperatzaillletasunezko fazizta lege orrein bidez, Kanobasek, sendotu egiten dauela peninsula onetan gaur daukagun menpeko laterri au, Europa guztian ezarri gure zalako katolikotasunaren batzangotasuna.*

*Atzo ikusi neban telebistan, zelan 1.812ko konstituzioaren liburu agiria erabilten eben ondo zainduta, juduen "Itun-Kutxa" izan bazan lez, Madrilleko ez dakit nungo kaletan kamioi batera igoten.*

*Zelango aukerarekin geratu ziran Berezko erritarren eskubideak ?.*

*Alango menperatzaillletasunezko guda-indar ta maltzurrezko guzurraren aurrean Berezko errigizarteak, zeozer egiteko aukerean geratuko ote ziran ?.*

*Europako jakituri geiena, edo ta indar geiena, euren eskuetan euki ebenetik ez beintzat, andiki orreik bidebagekeri orregaz, adoz egon ziralako.*

*Gaiñera, emen esan bear dana, beste gauza bat da:*

*Euren barneko baitaren aurkakoa izanda "Jakín aundiko gizon eta emakume guztiak, ez ziralako egon menperatzaill edo zapal-batzangotasunezko eritzi orren alde, sasikatoliko erlijiozko laguntza maltzur orregaz baiña, okerreko bide orreitan geienak batu ziralako, bai".*

*Ez ziran oartzen nungo lokatzarteetan sartzen ziran, eta "Diruaren Arauzko Serbitzura ipiñi euskun danori", batzuk, ondo edo ta sasijainko lez, bizi zitezzen.*

*Gaur geiegian egiztuta dago, peninsula onetan daukagun menperatzaillletasunezko laterri au, berezko arrazoiaren legetik kampo egonaz gaiñ, ez dabela balio bere barruan gaudenai jaurkitzeko, demokraziaren zentzua aurka eukinez gaiñ, nortasunaren izatasunezko arduratan ez garelako bardiñak, ta lapurtza aundi orreik, batzuen artean bakarrik eilekezan gauza dalako, nai ta, lapurtzaren zentzua dan guztiko agirian agertu arren, lapurtza aundi orreik, beartasunean sartzen gaituelako.*

*Orregaitik: 1.793 urte geroago, fazizta eritzi barri ori agertu zan okerreko toki ber beran gogoz, bizitzaren errakuntza zuzendu, edo ta arteztutea gura ba da.*

*Gaur gogozan larritasunezko egoera bardiñean, aurrera egingo ete dogu ?.*

*Ori egiten ba da, sinistu ezin leiken beste astokeri aundi bat egingo da, gero ta lokatzarte aundiagora sartzen gaituelako.*

## 2. 76. *Karlisten guda otera berreskuratuz.*

1.875eko urtearen sarreran, Bizkaiko jaurerriak eukezan 189.954 biztanletik, 66.608 baiño ez eben jakin idazten ta irakurten, 12.746 irakurri bakarrik, eta Bilboko 15.000 jakin eben irakurri ta idazten

biztanleak kentzen badautzasuz, Bizkaiko lurraldean, 125.642 eskola bagekoak geratzen ziran orduko denboran.

1.874ko urtean Otsaillaren 12an, VIIIn Karlos errege naiaren aginduagaz, Oñatiren Goi Maillako Ikastetxea zabaldu zanean, Karlisteren lurraldeko gaztearen irakaspenak, erri guztietako eskoletatik gain, Urduñako Ikastetxean, Tolosako Prantzizkotarren Lekaretxean, eta 1.874ko urtean Uztaillaren 31tik aurrera, Bergarako “Real Seminario Vasco-Navarro de Vergara” Manterolar Bizenteren zuzendaritzapean, euki ebazan.

Eta 1.874ko urtean Urrillaren 24an VIIIn Karlos berak, Oñatiko goi maillako ikastetxea, “Real y Pontificia” lez izendatu eban, lau euskal lurraldearentzat.

Karlos bera, egon zan bertan, ikas-aldiak zabaldu ziranean.

1.874ko urtean Abenduaren 31n, espainitarren guda lozteak matxinatu ziranean, I Errepublikoa ezereztu ondoren, Borboiak, ostera berreskuratzen dabez euren erregetzazko eskubideak, XIIIn Alfonso espainitarren errege lez aldarrikatu ebenean. Nai ta iñork konturatu ez ala jakiñaren gaiñetik, lege orreik, maltzur eta guzurrezko legeak zirala, menperatzaillaren naikerizko legeak ziralako.

1.875eko urtean Urtarrillaren 1ean Martinez Kanpostar Arseniok Saguntotik, XIIIn Alfonso errege izendatzeko alde egin eban aldarrikapenagaz, Lizarraga karlisten guda nagusia Txelbako guda ltegian egoala, jakitun geratu zan, zelan XIIIn Alfonso izendatuko eben errege.

Eta gogoratuz, liberalaren guda lozteetan eritizko zalantza sakon orreitan sartuta, eztabaida gogorretan asiko zirela, Guadalajara artzera bialdu ebezan Gamundi ta Boet karlista guda nagusiak.

Eta Belasko ta Kukala, Balentziaren aurreko errekararen ingurura, liberal guda lozteai orko bideak zarratzeko, eta bera Ballesekin Aranjuez artzera joan ziran, XIIIn Alfonso Madrillen sartu orduko, su-gurdiaren ibilbideak apurtzeko asmoagaz.

Lizarragaren oldozmen onegaz, baleiteke liberalaren guda indarrak euki ebezan arazoakaz, Uri nagusiaren babesera joanda, Uri barruetan geratuko zirala.

Baiña Belasko ta Kukala karlistaren guda nagusiak, ezin eben apurtu Binarozeko liberal gudariak aurkeztu eutsen erantzunagaz. Eta Gamundi ta Boetek be ez ebelako ezerik egin gaisotu ziralako, Lizarraga bera oraindiño baikor egon arren, Ballez bialduta Aranjuez ta Molina artu egien, onek ez eban lortu ezer.

1.875eko urtearen lenegoetan karlistak Baionatik, “La Cruzada Española” aldizkaria agertzen dabe.

1.875eko urtean Urtarrillaren 6an, “Diario de San Sebastian”ek, Benigno de Morazatar Mateo, Gazteizeko Lege Gizona ta Arabako Foru Aldundiaren aolkularia, Bizkaiko gizartearen jaurleri edo agintari<sup>(1)</sup> egin ebela ekarten aban.

1.875eko urtean Urtarrillaren 8an, “El Noticiero Bilbaino” agertzen da Logroñon jaiota, Etxebarria ta Torrestar Manuel Tomasen zuzendaritzapean, 1.936ko urtean “El Pueblo Vasco”gaz alkartuko zana eta Frankoren guda ostein 1.938ko urtean “El Correo Español - El Pueblo Vasco”ren izenagaz gaur arte urtego dauana.

1.875eko urtean Urtarrillaren 9an, “Noticiero Bilbaino” aldizkariak, albiste au ekarri eban: “frantzezak Baionako euskal lurretatik, zelan atxilotu eben apaiz euskaldun bat, eta peninsulara bota ebela, espainiarrakaz euken egiune edo itzarmena beteteko”.

1.875eko urtean Urtarrillaren 10ean VIIIn Karlosek urtarrillaren 6an, “Cuartel Real” aldizkariaren bidez, espainiarrari idatzi eutsen “bere santutasunezko agindua”, gudakin aurera eginda bete egingo dauela, esanez.

1.875eko urtean Urtarrillaren 14an, XIIIn Alfonso 18 urte eukezala eltzen da Madrillera errege lez, Atotxako su-burdiaren geltokira, ezkil-errepika<sup>(2)</sup>, kañoien leer kai, zupiñ aldi, ta txaloketa ugari artean, ongi etorria emoteko.

Ez zan onartu karlisten aldetik XIIIn Alfonso espainiarren errege lez izendatzea, eta karlisten izparingietan, XIIIn Alfonso erregeen arteko berdingarrietan beti agertzen eben: “El mocete”, “El niño rey”,

(1) Jaurleri edo agintari = gobernador. (2) Ezkil-errepika = repique de campanas. (3) Maillaka = escalonadamente.

“Alfonsito el chico” ta txantxako izen orreikaz, eta karlistek Lakarreko garaipena lortu ebenean, ta XIIIn Alfonso atxilotzeko arriskuan euki ebenetik “El fujitivo de Lakar”eko izenagaz deitu eutsoen.

1.875eko urtean Urtarrillaren 14an karlisten gudalozteak, Berriz koronelak bideratuta, Balmasedan sartzen dira, liberalak bietako urartetik, Billasanaraño, maillaka<sup>(1)</sup> kokatuta egon zirala.

1.875eko urtean Urtarrillaren 15ean, Nafarroako erregeztaren Aldundiko ordezkari Itzarbe ta Geronimo, Gipuzkoako Aldundian orokorrezko arduraduna Dorrnsortar Migel, Arabako Aldundiaren orokorrezko arduraduna Mendietatar Franzizko M<sup>a</sup>, eta Bizkaitar jauntzako Aldundiaren orokorrezko arduradunak Urkizatar Fausto, eta Piñeratar Pedro M<sup>a</sup>k, agiri bat aldarrikatu eben “Euskal-Naparrarentzat”<sup>(2)</sup>, katolikotasunaren gora beran esaten dodanagaitik arrazoia emoten daustena:

## 2.77. Oarkuntza.

Zelan izan leike, sasikatolikotasunezko erlijio aldetik: “Gure bizitz fisiko onen Ekandu arloetan, arrazoi bardiña emon, Menperatzaille eta Menperatuta geratzen diranai?”

Eleiza katolikoa era baten, edestiko borroka guztien ostetik naita beti ezeren lotsa barik menperatzaillearen alde egon, berezitasunezko legean bizi direnai menperatu ta gero, sekula ez daustolako esan arrazoirik ez daukienik, arrazoiaren eretxi edo uste orreitan beti, maltzurutasunez jokatu daualako.

Geiago, “jakinda”, emen sortzen dan lez, alderdikerezko norkerietan zapaltzaille dabiltzana, ta Jainko legean berezko nortasunean, zapaltzaille orrean ekintzari aurka egiten dausten artean:

Bata, maltzurutasunaren sasi-asmalaria dala.

Eta bestea, Jainkoaren Legebidea zaintzen dabela, gure arimaren gai-giza bereztuta daukagun esku-bidetik.

Gure adimenean, eta epaiketazko almen bidetik artu bear doguzan erabagiak: “bardiñak ote dira GUZURRA ta EGLA?”

Argi dago, emen zeozerrek, ustel usain andia daukela, edesti guztian, sare arteko txebera orren ekintza izan dalako Euskalerrriaren zabaltasunezko “Jendekuntzari” murriztuazo egin daustoen, gaur gagozan lurralde txiki onetan geratu arte.

Kadizeko espainiar jaungo aldeko Norkeri orren sasikatoliko ta sasimerkantilista asmatzailleak, naita PPko, Sozialista, edo ta Errepublikak zaleak izan arren, gaur daukien norkerizko oldozmenagaz ez dira egokituko, arik eta Euskalerrria ezereztuarte, 1.812ko konstituzio maltzur orrek barruan daukana, menperatzailleak asmatutako lege araudi sorta dalako.

Noz konturatuko dina, konstituzio ori euren dala, eta ez gurea, gurea gudaloztearen indarragaz sartu gure izan dabelako, edesti guztian?

Nork emoten daustie jabetasun ori, egin dabena, maltzur, eta gudalozteko indarraren lapurtzagaz egin ba dabe? Argi dago, erlijio edo sasikatolikotasunetik agertzen jakien lapurrezko jabetasunetik dala.

Euskaldunak gure izatasunean, Jainkoaren Legeari begira, eta gizartean oiturazko entseguka<sup>(3)</sup> Paleolitico-Neolitikotik gure Europako Mendebal onetan jokatutearren beti, eldu giñan daukagun demokrazi aundira. Orregaitik Norkerizko guzurr ta menperatzaille asmatzail orreik, batzangotasunezko eritzian daukien aurkari aundiena “EUSKALERRIA” izanda beti, eta mik esango neuke, bakarra izan dala, Europako Mendebal onetan ez ziralako egon euskaldunak baiño. Ortik agertzen jakuz euskaldunai zitalezko erasoak aldi guztietatik, katolikotasunezko erlijio ori, berezitasunezko demokraziaren aurka asmatuta dagelako.

Euskaldunak orregaitik “ulertu” bear dogu, “elburu” bakar bateri begira ipiñi bear doguzala, daukaguzan berezitasunaren arrazoizko indar guztiak.

Eta naita menperatzailleak kaizar eritziekin beartuz<sup>(4)</sup>, euskal nortasunezko izatasun gorpua zatitu egin bada be, eta euskaldunak daukaguzan alderdiekaz jokatu bearrean aurkitu arren, gure artean kontu andian euki bear doguz, JAUNGOIKO ta GIZONAREN aurrean guk nortasunezko leen ardura lez, ez daukagula beste arrazoirik: “EUSKERA ta EUSKALERRIAK” daukana baiño.

(1) Maillaka = escalonadamente. (2) Euskaldunak Nafarroatik banatzen, Naparrak Euskaldunak ez ba ziran lez. (Historia General del Señorío de Bizkaia lenengo liburuan, (1.870-1.876), 303,4,5 eta 306ko orrialdietan datorrena. (3) Entsegu = ensayo, prueba, tentativa. Entseguka = empíricamente. (4) Zesar'en = “VINI, VIDI, VINCI”.

*Mundu au danon ardurazkoa izanda, batzango baten ulermenera eldu bear bagara, gaiak eta gaitutako gizak daukan eskubidearen bidetik eldu bear gara.*

*Ala., Mundu fisiko onetan alango egun baten, lapurkerian asi gintzazalako, ta norberkeri orregaitik menderatuta, "Bizitzazko Legeetan biurtuko ote doguz lapurtza orreik?"*

*Beste alde batetik begituta, ez dira galdu bear, erantzuteko aurkezten jakuzan aukereak, legunean agertu jakun antzera, espainitar gortetan Rajoik birriten Iñaki Antiguedaderi esan eutsonean: "beragaz ez eukala, inungo zorrik".*

*Zelako erantzuna ote da ori: "Espainitarrek, euskal izatasunetzko bizitzaren arloan, euskalerria menperatuta eukiteagaitik, euskaldunekin zor aundienak edo ta guztiak eukiten dabezanean?". A la bera ez da espainitarra?.*

*Espainitar gorteko batzarraren aretoan egun orreitan, eta batzarraren lendakarien aotik, arro esanda entzun ginduzen: "200 urte dira jaupidetzen asi zirala kadizeko jaurgoarekin, gudaizte, polizia ta guardia zibillaren laguntzagaz".*

*Ez ebena esaten, lenengo egunaren arazoak, gaurko arazoak dirala, Euskaldun, Katalan ta Galleguak askatasunetzko erriak izanda, ez dogulako onartzen inungo maltzurrezko menpetasun zikiñik, Berezkotasun onetan gaituta egonda, daukaguzan askatasunaren arrazoizko araudien kanpotik, ez dogulako maltzur eta guzurrezko legerik onartzen.*

*Teresa Santuak esaten eban: "Jainkoa, lapiko artean ebillela". Eta egia da, Goiko Jaungoikuaren egia ontzat artzen ba dogu, Beren Legeakaz topo egin dogulako.*

## 2. 78. *Karlisten guda otera berreskuratuz.*

1.875eko urtean Urtarrillaren 17an Bilboko Urrikalmendu Etxean<sup>(1)</sup>, txarriaren zozketa egin zan, eta 1.831tik eskero, jarraian etorten jakuna da.

1.875eko urtean Urtarrillaren 21ean Bilbaoko aldzikari "El Noticiero Bilbaino", Salamanka ta Negratar Manuel liberalaren guda nagusiak, Urtarrillaren 18an XIIIn Alfonso erregearen alde aldarrikatu ebena agertzen da, eta argi itxi eban Erromako eleiza katolikoen aberkuntza, eurakaz egoala.

1.875eko urtean Urtarrillaren 22an Del Kastilloko Kanobasek, XIIIn Alfonsoren aoz Nafartar Peralta Uritik, aldarrikapen bat egiten dau: "Foruak zainduko zirala, izkilluak lurreratu egiten ba ziran". Euskaldunen artean ez zana onartu.

## 2. 79. (14) *Arana ta goiri'tar Sabino.*

*1.875-1.876 urte arteko ikasketak, Donibane Loitzunen betetan dauz, azken azterketak Ondarribin osotuaz.*

*1.876ko urtean Sabino'k amaika urte eukezala Bilboratu egiten da, eta 1.876ko ikastaroa Orduñako Josu-Lagunen lekaidetxean azten dau.*

## 2. 80. *Karlisten guda berriz berreskuratuz.*

1.875eko urtean Urtarrillaren 24an XIIIn Alfonsok, bere guda nagusi guztiak batzartu ebazan, eta gud-antze<sup>(2)</sup> bat antolatu ondoren, bakotza bere aukeratuko lekutik, euki ebezan gudaizte andiekaz zabaldu ziran, guda amaitzeko itxaropenean.

1.875eko urtean Otsaillaren 2an Dorregarai karlista nagusiak, Lizarra babesteko, Karraskalen eta inguratuta euki eben Iruñako bidean ipiñi ebazan ondo antolatuta bere gudari indarrak, baiña Mendiri' ren agindu txar baten bidez, Eskinzako erri txoa babes barik itzi eban, eta liberalak Lorka ta Lakarren sartuta, Moriones liberalaren guda nagusiak bere 35.000 gudariekin, Iruña eskuratu eban.

(1) Bilboko urrikalmendu etxean txarriaren zozketa egin zan = se celebró la rifa del cerdo en la Casa de la Misericordia de Bilbao. (2) Gud-antze = estrategia militar.



1.875eko urtean Otsaillaren 3an Karlistek, ostera berrezkuratzen dabe Lakar, XIIIn Alfonso espainitarren errege barria bertan egoala, karlisten gudariak atxilotzeko arrizkuan.

Mendirik baiña, ez eban kendu euken miña, karlisten gudal nagusiak biotz ondoko gogorkerian artzen ebelako, Karraskalen, berak egin eban atzerakadagaitik.

Eta emendik aurrera bekaizkeri asko agertuko ebezan karlisten gudal nagusiak Mendiriren aurka, eurak lez, ez zalako izan antziñako gudal nagusia.

1.875eko urtean Otsaillaren 5ean Mendiri, karlista gudal nagusiak beragaitik esaten ebezanagaitik asarre, eskutitz bat bialdu eutson VIIIn Karloseri bere ardurazko agintetik, itziera eskatzen.

Denbora onetan, Donosti eta Gazteiz inguratuta dagoz, bai Bilbo erasotuta be, eta emen asten dirala esan leike, karlisten alegiñak okertzen, lenengo gudan sortu zan lez.

1.875eko urte onen asieran Del Kastillotar Kanobasek, ongune batera eldu gura eban VIIIn Karlosekin.

Bere erregetzazko eskubideak ostera berrezkuratu egiezan, bere alaba Elvira XIIIn Alfosorekin ezkondata.

Lau euskal lurraldearen Foru eskubideak, euskal jabetasunean zainduta, guda au ez bazan gertatu lez, eta abar.

Guzur ustel bat bakarrik izan zana, euskaldunen Foru Legeak, 1.810/1.812ko urtetan irasi ebezan menperatzeko legeakaz kendu egin ebazalako, ez 1.872an egon ziranakaz, naita lege guzti orreik, gauza bardiñak izan.

Eta guzti au argitzen da, XIIIn Alfonsoren agintaritzapean, euren legezko agirien VIIn atalean ekarten ebanagaz:

*“MAS EL GOBIERNO NO SE CONSIDERARÁ OBLIGADO A GUARDAR NINGÚN GENERO DE CONSIDERACIONES A AQUELLA O AQUELLAS DE LAS INDICADAS PROVINCIAS<sup>(1)</sup> QUE NO SE SOMETAN A LA AUTORIDAD DEL REY ALFONSO XII DENTRO DEL PLAZO MARCADO EN EL ART. VI”.*

Eta “Gaceta de Madrid” en agertzen zanetik, illabeteko epean beteteko aginduagaz, argi ikusita, eskeintza ori espainitar gobernuaren keiñadura gogor bat bakarrik izan zala.

VIIIn Karlosek ez eban onartu, eta aurrera egin eban beren leiarekin.

1.875eko urtean Otsaillaren 7an XIIIn Alfonsok, galdu eban Lakarreko borroka, eta arrisku aundian egonda karlisten eskuetan jausteko, Madrillera joan zan gudaloztearen babes.

Orren ostean Iruñan sartuta, Euskelarriko lurraldeen borroka latzari, Bagillararteko eten antzeko bat egin jakon.

Denbora onetan XIIIn Alfonsoren gudalozteak, 778.782 oiñezko gudari, 1.651 zaldi, eta 92 kañoi euki ebezan.

Karlistak alderantziz 33.860 oiñezko gudari, 1.808 zaldi, eta 79 kañoi.

1.875eko urtean Otsaillaren 7an Suizaren Elkartasunezko aolkularitzaren aldetik, onartu zan XIIIn Alfonso gaztearen erregetza, Italiako errege ta Aita Santuak ipiñi ebezan aurretiko baldintzarekin.

Argi ikusten da emen, noregaz izan zan adiskide Batikano ori.

1875eko urtean Epaillaren 3an liberalak, gudari geiago bialtzen dabez Bilbora.

Epaillaren 3an karlistak, Portugalete inguratu gure dabe.

Epaillaren 3an ziurtu egiten da karlisten aldetik, Parisen prantzes andiki batzuekin batzar bat euki dabela, Prantzezak amaitu gure dabelako guda au.

1.875eko urtean Epaillaren 5ean karlistek, Santa Marinako inguruak sendotu ebazan.

1.875eko urtean Epaillaren 11n Kabrera, lenengo gudan karlisten gudal nagusia zanak, beste gudal nagusi batzukaz batera, XIIIn Alfonsori euren onespena emon arren, VIIIn Karlosek ez eban gura guda amaituterik, eta aurrera egin eban leiarekin.

(1) Lurraldekoak guk ?. Gu, Euskal ABERRITARRAK GARA. Y no provincia de facinerosos nacional católicistas.

1.875eko urtean Epaillaren 12an Makanaztar Isidorok, Bizkaiko liberalaren orokorreko gudal nagusiak, bere guda indarrakin Bilbotik urten da, Serantes mendi andiaren jabe egin zala eta Zierbanako mendi ganean kokatuta dagozela aldarrikatu eban.

Liberalak, Santurtze, Portugalete ta Sestao arrapatu gure dabez, bigarren Jibraltar antzeko babes toki bat egiteko.

1.875eko urtean Epaillaren 14an borrokan eten bat egiten dabe, alde bietatik baituta daukiezan gudarien ordain edo aldaketak egiteko.

1.875eko urtean Epaillaren 17an Gazeta aldizkarian agertuta eta Notiziero Bilbainoren aldizkariagaitik adierazi edo argituta, Arbolatxako borrokan karlisten aldetik:

-77 il eta 240 zaurituak egon zirala esaten eban.

-Liberalaren aldetik, 4 agintari ta 12 gudari illak.

-Aldundiko zaintzale aldetik 5 agintari ta 52 gudari zaurituak.

-Saboyako taldetik, il bat eta 16 zaurituak.

-Albuerako taldetik, agintari bat ta 3 gudari il, eta 38 zaurituak.

-Kañoilari taldekotik il bat eta 6 zaurituak.

-Eta Abrilleko mendian egon ziran Zamorako lurraldeen gudari taldekotik, 6 zaurituak.

1.875eko urtean Epaillaren 17ko egun onetan be, Gazetilla aldizkariak, gizon emakume artean oituratu ziran baikuntzak<sup>(1)</sup> argitzen dauz.

1.875eko urtean Epaillaren 20an VIIIn Karlos Durangora eldu zan, gudalozteak ikusita gero, Balmasedara joateko.

1.875eko urtearen Epaillatik, Kesadak bideratzen ebazan liberal gudalozteak Martineztar Kanposekin batera, jende ta gudariak erakarteko politikagaz asi ziran, baiña politika orregaz aurrera egiteko, liberalaren sasigudan ibiltzen ziran Karrikalutxi, Lakalletar Tirso “Ziraukiko Anka Motzak” eta abar, egiten ebazan sarrazkiak geratu bear ziran, baita ta, berak arrapetan ebazan gudariakin eta errikoakaz egiten ebazanak, be bai.

1.875eko urtean Epaillaren 23an liberalaren indarrak, 78.782 oiñezko gudariak, 1.651 zaldun eta 92 kañoi euki ebazan.

Eta karlistek alderantziz 33.860 oiñezko gudari, 1.808 zaldun, 794 mando, eta 79 kañoi.

1.875eko urtean Jorraillaren 4an Madrilletik agertutako barriak: “Kanpostar Martinezek Kataluñan, karlistek Oloten euki eben erritoki sendoenetariko bat artu ebal, eta Erdi Ugarte onen Iparralde osoa bizkortu gure ebal, esaten eban”.

1.875eko urtean Jorraillaren 6an VIIIn Karlosek, Gaztela indarrez artzeko euki ebazan gogoak alboratuta, Durangotik urtenda, Balmasedara joan zan, bertan Elio eta Mogrobejo gudal nagusiakin alkartzeko, eta inguru ori sendotzeko.

## 2. 81. Arabaren galduera.

1.875eko urtean Jorraillaren 7an aldizkari bidetik esaten zan, karlisten inguruan entzuten zala: “borroka au amaitu bear zala, agintarielik esan orreik, kontuan artu barik”.

Egia baiña, Balmaseda menderatzen eban San Seberino mendia, karlistek indartzen egon zirala zan.

1.875eko urtean Lorailaren 13an karlistek Getari artu gura eben, eta gogor asi ziran erasotzen.

Karlistek 12terdiko 15 kañoi, eta 7terdiko 8 kañoiekin asi ziran erasotzen, baiña leen itsas-ontziren leergai erantzunekaz, eta eurak euki eben kemenezko gogortasunagaz aurka eginda karlisten erasoari, ekintza gogor orretan egon ziran 1.876ko urtean Urtarrillaren 26ko egunerarte.

(1) Oituratu ziran baikuntzak = moda que apareció de secuestrar personas y cosas.

Euren lepoetan 340 bonba ta 4.276 granadaren eztanda artu bear izanda, eta janariren ezean, erriak euki ebezan 900 biztanletik, 1.876ko Urtarrillan, 150ean geratu ziran, Getari, Marine itsas koronelak, bere gudariekaz ontzitik lurreratu ondoren, askatu arte.

1.875eko urtean Bagillarterako denbora onetan, Primo de Ribera liberalaren guda nagusiak, denbora pasa bat izan balitz bezala, Ziraukiko San Kristobalen baselizatik, Zirauki, Artaza, eta Billatueta bonbakatzen ibili zan, bide batez Etxauriko ibarrean egon ziran erriak eskuratzeko, arik eta bere egitarauan antolatuta euki eben Lizarrari eraso egiten asi arte.

Eta Perula karlista guda nagusiak beste aldetik, Iruñako Kriaren, Mesede kale ingurutik, itzelezko kalteak egin ebazan San Kristobaleko gaztelutik bonbaketeagaz.

1.875eko urtean Bagillaren 6an, ille onen baretasunean, garrantzizko borroka bat egon zan Trebiñoko Zumelza errian, liberalak, Perularen zalduneko taldearen aurka, Perulak atzera egitea bear izanda.

1.875eko urtean Bagillaren 15ean Liberalaren guda lozteak urtetan dabe Ebroko Mirandatik, karlistek Gaztezeri egiten eutsen ingurutasuna apurtzeko, ta Tuyoko Kontxatan euki eben borroka bidetik, liberalak Gazteizen sartzen dira.

Eta emendik asiko dira liberal guda lozteak, Euskalerriko beste toki batzuetara zabaltzen, gudaren amaiera lasterragotzeko.

## 2. 82. (15) *Arana Goiri tarren sendi ta anaiak.*

*1.875eko urtean Aranatarrak Baionan egon zizala, Maiatzeko-Bagillaren egun bitarteko Pazkoan Sabinok, lenengo Jaun Artzea egin eban, Donibane Loitzuneko eleiz nagusian.*

*1.875eko Lorail onetan, Arana-Goiritar sendia, Ziburrera joaten da.*

*Eta Urrillan Donibane Loitzunera<sup>(1)</sup>, artean Arana ta Goiritar Luisek apaiz karlista baten irakatsiak ikasten, eta Sabino, Lodioko Oruetak karlisten Arratiko lenengo taldean bigarren agintaria izan zanak, Loitzunen igeslarientzako zabaldua euken eskolan ikastera joanda.*

## 2. 83. *Karlisten guda osterara oratuta.*

1.875eko urtean Uztaillaren 1ean VIIIn Karlosek, Mendiri guda nagusia kentzen dau Iparraldeko lur osoaren agintaritzatik, eta berak artzen dau agintaritzaren orren ardurea, bere bigarren lez Perula guda nagusia izendatuta, eta Mendiri oiñezko gudarien antolako lanetan ipiñita, Mendiri berak itzi eban lan ori Uztaillaren 5ean.

1.875eko urtean Uztaillaren 3an Dorregarai karlista guda nagusia, peninsula edo Erdiugarte onen erdi inguruan Lezena del Zizen borrokan ibili zan, eta bere izena erdi saltzaille lez ibiltzen eban lez, Ebro ibaia aldatu eben Segre mendi gainera joanda, bitartean liberalak Kantabiejako gaztelua berrezkuratuta.

Eta ekintza onegaz amaitu ziran Erdiugarte onen, erdiko lurraldearen borroka, Kataluñako guda indarrak, beste gudari talde andi bigaz sendotu ondoren, Iparraldeko borroka gogortuta.

1.875eko urtearen erditik aurrera, gure Foru Legeak ez ebena ezeren artu emonik euki, karlisten Zigorrezko Legediagaz zuzendu zan.

Orregaitik VIIIn Karlosek Oñatin, dirua egin eta bidai-txartelako sillu edo zigiluak<sup>(2)</sup> ataratea agindu eban, andiki edo jaun izenak emon, eta abar.

Eta gure Foru Aldundikoak izan ziran benetako jaurtzaileak, euregandik kanpo ez zalako al izango karlisten gudako antolakuntzarik, eta gitxiago gudarik, izkillu, janari ta gudariak jartzeko guztiekin, euren-gandik kanpo ez zalako egon arduradunik.

(1) Donibane Loitzun = San Juan de Luz. (2) Zigiluak = posta-kutxako seilluak.

Ainbat aldizkari agertu ziran, bakoitza egokitzen jakon lekuan datorrena.

1.875eko urtean Uztaillaren 5ean VIIIn Karlosek gure Foruai ziñez itza emon eutsezan berriz, eta bi egun barru, Billafrankan Gipuzkokoari.

1.875eko urtean Uztaillaren 7an Kesadatar Jenaro, XIIIn Alfonso errege liberalaren guda nagusi barriak, Perula karlista guda nagusiari atzeratuazota, beartu egiten dautso Nanklares eta Subijana bitartean babesten.

1.875eko urtean, tranbideko gurdiak tximist-indar edo argi indarragaz ibili egiezan, goi aldetik ipiñi eutsoezan zirgak<sup>(1)</sup>, tximist indarra, tranbideko eragitaluagaz gardaiñatzeko<sup>(2)</sup>.

## 2. 84. *Azkeneko oarra.*

*Lekurik ez daukalako, emen amaitu bear dodaz atal onen idaz lanak, gero XIIn atalean, karlisten gudakin eta Arana ta Goiri tar sendiagaz aurrera egiteko.*

Atutxa 'tar Paul  
Zornotzan, 2.018ko urtean Uztaillaren 6an.

---

(1) Zirga = el trole de los tranvías. (2) Gardaiñatzeko = para conectar la corriente de los cables aereos, al motor del tranvía.





Euskeraren Erri Akademia  
Academia Popular de la Lengua Vasca  
L'Academie Populaire de la Langue Basque

---

e-mail: [aeuskerazaintza@gmail.com](mailto:aeuskerazaintza@gmail.com)  
[www.euskerazaintza.org](http://www.euskerazaintza.org)